

Eibarko euskeriaren

*unidade
didaktikua*

*Euskara
Batzordea*



Eibarko euskeriaren unidade didaktikua

Mikel SANGRONIZ

*Euskara
Batzordea*

Izenburua: Eibarko euskeriaren unidade didaktikua

Egillia: Mikel Sangroniz

Frantskiæren egokitzailia: Serafin Basauri

Argitaratzailia: Eibarko Udala. Euskera Zerbitzua

Diseiazua eta maketaziæua: Koldo Mitxelena Zumaran

Inprimategixa: Gertu kooperatiba

Tiradia: 800 ale

ISBN: 84-89696-28-4

Lege Gordailua:

2001eko irailla

AURKIBIDIA

HITZAURRIA

7. arr.

UNIDADE DIDAKTIKUA ZELAN ERABILLI

9. arr.

SARRERIA

11. arr.

1. GAIXA

Berezittasun fonetikuak eta h-nen idaztara uak:bokal alkartiak, ariketak 15. arr.

Hiztegixa: sarreria, ariketak, Hiztegixa(1), ariketak 16. arr.

Aditza: sarreria, oharrak. Indik: nor, naiz/nintzan, ariketak 18. arr.

Indik: nor-nori: jata(z)/jata(ze)n, ariketak 19. arr.

Indik: nor-nork: dot/neban dittut/nittuan, ariketak 21. arr.

Esamoldiak(1), ariketak

22. arr.

Irakurgaiak: Villanueva de San Andresetik Eibarrera, 30 su

Kontzejuko bost etxiak 24-25. arr.

1.Gaixaren hiztegixa: Antxiæako Eibar, Euskeria eta herrixaren kondaira baltza 26. arr.

2. GAIXA

Fonetikia eta idaztara uak, bustidurak, erderatik hartutako berbak, ariketak 29. arr.

Hiztegixa(2), ariketak 31. arr.

Deklinabidia: alaba(biziduna), ibar(bizigobia). Oharrak, ariketak 32. arr.

Esamoldiak(2), ariketak 34. arr.

Sintaxia: Sarreria. Perpaus sinpliak, perpaus alkartuak(1) 34. arr.

Irakurgaiak: Escuela de Ameriaren hasieretako oroipenak. Ume kontuak 35. arr.

2.Gaixaren hiztegixa: Eskolia, jolasak eta neskamutilletan 37. arr.

3. GAIXA

Fonetikia: orokorrak ez diran aldaketa fonetikuak, ariketak 41. arr.

Hiztegixa(3), ariketak 42. arr.

Deklinabidia: pertsona izenordaiæak, erakusliak. Ariketak 44. arr.

| | |
|---|----------|
| Sintaxia: Perpaus alkartuak(2) | 46. orr. |
| Aditza: Indik.nor-nori-nork: dest a(z)/ zesta(ze)n. Ariketak | 47. orr. |
| Aditz trinkua: Sarreria. Egon, etorri, ibilli, juan. Ariketak | 49. orr. |
| Esamoldiak(3). Ariketak | 52. orr. |
| Irakurgaixak: Aratuztiak Eibarren. Gure Sanjuanak. | 52. orr. |
| 3.Gaixaren hiztegixa: Herriko jaixak eta kalegirua | 55. orr. |

HITZAURRIA

Eibarko Udalak eta Eibarko Euskeriaren Mintegixak, alkarlanian, demaseko biharra egin dabe eta egitten dihardue azken urtioan, eibarreraren corpusa jorratu, jaso, publikaziñuak egin eta zabaltzen, trasmisiñuaren katia eten ez dadiñ ahalegiña egitten. Horrez gaiñ, jakiña, eibartarrok afektiboa dugunakin gozatuz jarraitu bihar dogu eta, erregular, eibarrerak bere zeregiñ lokala betetzeaz gaiñ, batuaren erregistro orokorraguari ekarpenak egitten segidu bihar dau, batuak benetako batua izateko oiñarrizko euskeretatik jaso eta horren osagarri izan biharra daukalako.

Aurrian esandakuaz ideia garrantzitsu bi edo hiru aittatu dittugu honen liburuonen zergatixak azaltzeko: trasmisiñua, geureakin gozatzia eta hizkuntzaren zeregiñ lokala betetziaz batera batuari ekarpenak egittia.

Hortik ildotik jarraituz, garbi ikusten da, eibartarrok geure artian euskeraz dihardugunian, geuriaren erregistro biharra daukagula komunikaziñuak beruagua, afektibuagua izan deixa. Horretarako, jakiña, tresnak eta aukerak eskeñi bihar dira, herritarrok bertoko euskeria aberastu eta modu egokixaguan erabilli daigun. Hori guztia bideratzeko trasmisiñua da oso kontuan hartu biharreko gaixa. Eta, zoritzarrez, trasmisiño naturalak: etxeak, lantegiak, lagunartekuak... kale egitten dihardu. Hori dala-ta, trasmisiño kulturala: euskaltegi eta eskola bidezkuia da jorratu behar doguna eta, hori zeregiñori betetzeko sortu dogu hau ikastunidadeau. Ia era horretan, danok ahalegiña eginda, lortzen dogun trasmisiñuaren garrantziaz konturatu eta bide horretan sakontzia, hori dalako euskaldun konpetentiak sortzeko modu naturalena.

Liburuan modu progresibuan emoten dira konteniduak, errezenetatik gatxenetara, eta, bakotxak bere kontura ikasteko, autoikasketarako, aukeria be emoten dau, zuzenketa atala be badakalako liburuak. Horrez gaiñ, badira baitta be, irakurgaixak eta, azken partian, eibarreraz nahiko frakuenziakin erabiltzen diran berba eta espresiñuen hiztegixa be.

Beste alde batetik, esan beharra dago, liburuaren osagarri, ikusi eta entzuteko bideo-zinta bat be prestatu dogula eta, hor zintan, eibarrera jatorraren itturrittik erateko aukera pare bakua daukagu.

Amaittu baiño lehen eskerrak emon gura dittut. Hasteko, erregular, egillari, Mikel Sangronizi, motibaziño haundixakin jardun dabelako, eta, baitta be, herriko euskaltegietako ordezkarixeitza eta Eibarko Euskeriaren Mintegiko kidieri euren lagunten oso garrantzitsua izan dabilo, hórren artian, bereziki, Serafin Basauriri liburuaren gehigarrixka egokittu eta atondu dabelako.

Eta zuri, eibarrera ikasi edo-ta sakondu gura dozun horri, animoa eta honek liburuonek emon deixazela espero dittugun frantuak.

Iñaki Arriola Lopez

Alkatia

UNIDADE DIDAKTIKUA ZELAN ERABILLI

Unidadia zazpi ataletan banandu dogu, eta bertako ikasgaixak errazenetatik gatxenetara ordenau doguz; horregaitik ez da derrigorrezkua dan-dana ikastia. Ikasliaren maillaren arabera, gai batzuk bestiak baiña gehixago landu biharko dira. Dana dala, guk hemen prozesu osua markau dogu, ikasliari gauzak erraztiaren, baiña euskaltegi batian praktikau ezian, nahiko teorikua gelditzen da. Euskaltegixan, hónek ikasgaixok sakonago aztertuko dira eta eibarreraz berbetan soltzeko be askoz aukera haundixagua izango dau.

Kontzeptu barri guztietai ariketak jarri doguz, baitta erantzunak be azken orrixotan. Dana dala, tauletako hutsuniak osatzen laguntzeko bibliografixako liburuetara jo leike.

Gai guztietai bi hiztegi sartu doguz, bata hiztegi orokorra edo oiñarritzku da, egunero gehixen darabiguna eta bestia, espezifikuagua, lantzen dihardugun gaixakin zerikusixa daukana. Gauza berbera esan geinke esamoldien gaiñian. Hiztegixa eta esamoldiak ez dagoz zailtasunaren arabera sailkatuta.

Irakurgaixeri dagokixenez gaixaren inguruko informaziñua sartu nahi izan dogu. Revista Eibarren edo ...eta kitto!-n azaltzen ziran moduan idatzi doguz. Revista Eibarreko artikuluetan grafiari erreparau biharko detsagu (**h**-ari batez be). Artikulo gehixenak Don Pedro Zelaiak idazten zittuan, eta askotan batua egitteko (bai aditza bai hiztegixa) joeria zekan; beraz badago zer landu Eibar aldizkariko artikukoetan. ...eta kitto!-ko artikulo gehixenak eibarreraz idatzitta dagoz eta moldatzeko ezer gitxi izango dogu, beraz informaziñua jasotzea eta eztabaiderako erabilliko doguz. **Irakurgai gehixago eta testu motz eta bizixak** ataletako testuetan eibarreraren formarik oiñarritzuenak negritaz jarri doguz, errazago ezagutziarren. Leheneguan, zeiñ ikasgairi dagokixon be markau dogu, materixal gehixago eukitziarren. Bigarrena (testu motz eta bizixak) txistiekiñ eta istorio xelebriekiñ osatuta dago, eta berbetarako eta hittanua lantzeko oso egokixa da.

Ikasgaixen amaieran hiztegi espezifikua dator. Hori hiztegixori erabiltzeko atxakixa izan leike antxiñako Eibar eta gaur egunekuaren arteko konparaziñua egittia gai guztietai. Unidadeko testu guztiak antxiñakuak diranez konparaketia erraza da.

Unidade hau ikusentzunekuakiñ osatzen da. Bertan, ikasliak eibarrera jatorra zelakua dan entzun ahal izango dau, baitta bertako entonaziñua be.

SARRERIA :

Euskal Herrixak 60ko hamarkadatik aurrera sekulako aurrerapena egin dau euskeriaren berreskurapenian. Orduan sortu zan euskera hutsezko irakaskuntza sare berezixa ikastolen bittartez, eta azkenian irakaskuntza ofiziala bera be euskalduntze bidian sartzia lortu da.

Gerora euskera hutsezko hedabidiak sortu ziran: irratixak, telebisiñuak, egunkarixa eta azken hamarkadan indar haundixa hartu dabentz herriko aldizkarixak.

Apurka-apurka administraziñuan be sartzen doia euskeriak eta horretarako danerako 1968xan hainbat dialektotan zatittuta zeguan euskeria batu eta eredu estandar bat sortu zan, eta horren bittartez lortu dira aittatutako aurrerapen guztiak. Kontuan hartzen bada hiztun kopurua,(milloierdi eskas) eta Francoren diktadurapian gaindittu biharreko traba eta debekuak, herritarren borondatia izan da euskeria gaurko egoerara ekarri dabena.

Nork esango eban 1960 inguru haretan holako osasuna izango ebala euskeriak?

Orduan sasoian, gure inguruan industriak gora egiñ ebanian, makiña bat gurasok erderaz hazi zittuen euren seme-alabak. Aurrerapenaren burpillion sartzeko erderaz egin biharko zala uste zan, euskeria eta atzerapena basarrixan laga biharko zirala. Harrezkero, gure inguruko neska-mutilen jolas eta jardunak erderaz izan ziran.

Eta egin dan ahalegiñ itzalorri esker, euskeriaren gainbehera geldittu egin da, eta geldittu ez eze, indartzen be hasi da barriro... Baiña dana ez da izan irabazixa. Zenbait gauzatan oker jokatu da, eta galdu be egin da, euskalkixaren esparruan, esate baterako.

Oiñ arte gaztiak eskolan ez dabe batua baiño ikasi, eta edozein gairi buruz berba egitteko gauza dira euskera zuzenian, baiña lagunartian, familixan, aisialdixan edo biharrian ez dagoz erosoa dakixen euskeriorrekin, naturaltasunik ez dakalako, eta erderara joten dabe. Gaiñera, guriaren moduko inguru euskaldunian, pedante, sasiletrau eta petrala begittantzen jaku geure ingurukuekin batuaz egittia. Horregaitik, euskalkixa bultzatzia izango da euskeria gazterixiaren artian indartzeko tresna garrantzitsua.

Euskeriaren kalidadia makaltzeko beste errezo bat zera da, gaur egungo guraso asko ez dirala euren seme-alaben irakasle. Guraso batzuk ez dakixelako eta bestiak eskolan ikasitakua hobia dalakuan, ez

dira zuzentzen ausartzen, eta okerragua dana, askotan umiak dira gurasueri zuzentzen detsenak, etxeakuaren ordez batua inposatuz.

Osasun oneko euskeria, kalidadeko euskeria nahi badogu, geure buruarengan konfiantzia berreskuratu biharko dogu, eta horretarako, leku duiña izan biharko dau euskalkixak.

Euskalkixaren alde ez dogu egin bihar erromantizismoz edo aittitta-amama zaharren berbetia ez galtziaren, ezta hurrik emon be! Euskalkixaren alde egin bihar badogu, euskeriaren alde egin nahi dogulako da, euskeria geure bizimoduko esparru guztietaera zabaldu nahi dogulako eta euskera ona, jatorra, bizixa eta aberatsa nahi dogulako.

Horrekiñ asmuorrekin prestau dogu eskuartian dakazun eibarreraren unidade didaktikua.

Oharra: Hau sarreriau egitteko Koldo Zuazoren *Deba ibarreko euskeria* liburuan oiñarrittu gara.

Eibarko euskeria

Geure berbetia Bizkaieraren esparruan kokatzen da, eta Soraluze, Elgeta, Ermua eta Zaldibarko Eitzaga auzokuakin batera Eibarraldeko euskeria osatzen dau.

Azken mendian zihar, biarra dala eta, mordua izan dira inguruko lurraldietatik etorrittako euskaldunak. Horregaitik oso gatxa da Eibarko euskeria zehatzia, baiña halan eta guzti be ezaugarri nagusienak azaltzen ahaleginduko gara.

Lehelengo gaixa

1) Eibarreraren ezaugarri nagusienetako bat **berba amaierak** dira. **Hiatua osatzen daben bokal alkartiak** hónek dira. Sarrera testuan oiñarrittuz, ataraizuz arauak:

- *- **a + a = ia**: alaba ➔ alabia
- **e + a =**: semea ➔ sem...
- **e + e =**: senideen ➔ senid...n
- **e + o =**: emakumeon ➔ emakum...n
- **- **i + a =.....**: menda ➔ mend....
- **i + e =.....**: animalietan ➔ animal....tan
- **i + o =.....**: behiok ➔ beh....k
- **o + a =.....**: gurasoak ➔ guras....k
- **o + o =.....**: neskatoak ➔ neskat....k

*(**baiña**: ama, amama, aitta, aittita...). **Alabia** (sg.), **alabak**(pl.)

** **Baiña Guztia**

Ahoskatu ez eze, idatzi be halan idatziko dittugu.

2) Jarrizuz hónek berba amaierok eibarreraz:

Esan dozun berba oso zatarra da.

-

Herriarenak dira hónek basook?

-

Gordeizuz artaziak!

-

Abadeen lapikotxoa txikia baiña goxoa.

-

Hórrek sariorrek gaztetakoak dira.

-

Erdialdeko denda barrieta astegunetan ibilli be ezin da egin.

-

Zeuek gazteok ez dakizue zer dan gosea.

Olioa dariola daroia kotxea

3) Aztertizuz azpiko berbok. Gehixenetan **-ea/-ia** amaierak **-ia/-ixa** bihurtu dira. Oiñarrizko berbak errezago asmatziaren, azentu batzuk jarri dittugu.

Habia / habixia:

Aldia / aldixa:

Haria / harixa:

Árria / harrixia:

Asia / hasixa:

Astia / astixa:

Barria / barrixia:

Érria / herrixia:

Ésia / hesixa:

Gerria/ gerrixia:

Guria / gurixa:

Ia / ixa:

Maria / Marixa:

Oria / Horixa:

Ontzia / Ontzixa:

HIZTEGIXA:

Apurka-apurka geure herriko berba eta esakerak zeintzuk diran zehazten juango gara. Sarrittan, sinonimo asko ikasi eta gero ez dakigu zein dan herrikua eta zeiñ ez. Honekiñ ez dogu Eibarraldekuak ez diran berbak desagertzia nahi, ezta hurrik emon be; zenbat eta gehixago jakiñ, hobe, baiña beti hamenguak zeintzuk diran ezagututa. Jakiña, hemen graduaziño bat be egongo da. Eziñezkua da Eibarko berba guztiak jakitzia, erabilixenak eta jatorrenak ikasiko dittugu.

Ordenaizuz asteko egunak: eguaztena, astelehena, zapatua, barixakua, domeka, eguna eta

martitzena.

Zergaitik gustatzen jatzuz gehixago ala gitxiago hónek egunok

- Ezkerreko zutabian egunian-egunian darabiguzen berbak daukazuz, eta eskumakuan Eibarren gehixen erabilitakuak. Alkartizuz:

HIZTEGIXA (1):

- | | |
|--------------|-------------------|
| 1- Apaiz | a- Osatu |
| 2- Omen | b- Ume |
| 3- Haur | c- Zela(n) |
| 4- Sendatu | d- Armozu |
| 5- Puskatu | e- Abade |
| 6- Ote | f- Kerizpe |
| 7- Gosari | g- Zoro |
| 8- Itzal | h- Ete |
| 9- Nola | i- Batu |
| 10- Bildu | j- Apurtu |
| 11- Maindire | k- Izara |
| 12- Ero | l- Ei |

HIZTEGIXA (1): Osatziz esaldioxok eskumako illarako berbekiñ:

1. Umiari panpiña..... jakok eta barrixa erosi biharko juagu.
2. Baiña, nor arraixo izango.....don gaberdiko orduotan ate-joka?
3. Halako eguzkixakin haritzaren modukorik ez jagon.
4. Joxek diñuanez, ume asko ikastolara..... barik joaten dittuk egunian-egunian.
5. Sei hillabete barru eukiko jonat eta oindiñok siñistiak be kontuak jakanaz!
6. Ibon datorren hillian ekarriko.... jone.
7. Gure Andonik plantak egin jittunan soldadutzara ez juatiaren.
8. barrixa etorri danetik domekan-domekan elizia inkillauta egoten dok
9. Ez jatan buruan sartzen..... egiñ ahal izan daben halako astakerixia.
10. Etxian egun batzuk patxadaz gelditu artian, hire ama ez don
11. Harik eta lurrera bota dittuan jolas guztiak.....arte, ez deuat kalera urtetzen lagako.
12. Ez juat bape ondo lo egiñ, zergaitik eze imutxez inkillauta jeuazen.

ADITZA: SARRERIA

Eibarko berbetiaren ezaugarri nagusietako bat aditza da. *Eibarko Aditza* liburuak primeran jasotzen dittu dan-danak, baiña guk bertatik entresaka bat egingo dogu eta erabilixenak eta jatorrenak ikusiko doguz. Aditz taulak konsultatzeko eta aditzaren gaiñian gehixago jakiñ ahal izateko, badakizu nora jo.

Ohartxo batzuk:

1- Aspektu burutuan, (T)U markiaren hiru bariante darabiguz eibarreraz:

- AU: **amatau, asmau, billau, estimau, ezkutau, kontau, pentsau...**
- TU: **agertu, aittatu, hartu, berotu, bildurtu, eskatu, garbittu...**
- DU: aditzoiña “n” edo “l”z amaitzen danian: **afaldu, epeldu, ezkondu, konpondu...**
mailleguekin: **kabidu, prijedu, segidu, zerbidu, sufridu, atrebidu...**

2- -TZEN/-TEN:

- **batuaren moduan:** ibiltzen, etortzen, hiltzen.
- **batutik desbardiñ:** urtzen, jardutzen, joten.

3- URTEM:

- **Urten** aditzakiñ ez da Nor erabiltzen **Nor-Nork** baiño: Eibarraldetik **urten genduan**.

4- Ahalezkua, subjuntibua eta aginteran aurrian euskara batuan **-i edo -tu** aspektu markia kendu egiten da. **Eibarreraz ez:** ikusi neike, sartu deiñ, etorri hari!

ADITZ LAGUNTZAILLIA IZAN / *EDI : NOR. INDIKATIBUA ORAI A/ LEHENA

Beteizuz hutsuniak. Arazorik badozu, testuren batian begiratu.

| | ORAIÑA | LEHENA |
|-------|----------------|------------------|
| NI | | |
| HI-M | | |
| HI-N | |/*hintzanan |
| HA | | |
| GU | |/giñazen |
| ZU | | |
| ZUEK |/*zara(z) | Ziñien /..... |
| HÁREK | | |

Oharrak:

- * Oso pertsona helduak darabixe zara(z)
- * hintzanan ez da forma zuzena, baiña erabilli izan da.

4) Osatzizuz hurrengo esaldioxok oraiñ eta lehenaldixan:

- Hárek goiz juan/..... mendira.
- Miren aboziñau samarra/..... háren ustez.
- Ni zurekiñ ibiltzen/..... egunian-egunian.
- Zu ez/..... iñoz diskotekara hurreratu be egiñ.
- Hori dok hori guzur anporra! Gu ibilli/..... perretxiko batzen.
- Eta hi zergaitik ez/..... foballian egittera etorri?
- Azkenian alkartu/..... zuek bixok.

LAGUNTZAILIA, IZAN: NOR-NORI, INDIKATIBUA ORAIÑA/LEHENA (NOR 3. PERTS.)

Hamen dakazuzen aditzok apur bat ordenaizuz formiari jarraituz,
(oraiña/lehenaldixa gero plural/singular, ostian pertsonaka...)

Jako, jatzuz, jatan, jatzue, jakoz, jakue, jataz, jakun, jatzuzen, jatzu, jakoz, jakuez, jakuzen, jatazen, jakuez...

Lehenaldikuak:

Oraiñaldikuak:

Nor (zer) singularrekuak:

Nor (zer) pluralekuak:

Nori singularrekuak:

Nori pluralekuak:

Beteizuz puntudun hutsuniak: (hittanokuak aurrerago ikusiko doguz)

| | NERI | HIRI-M | HIRI-N | HARI | GURI | ZURI | ZUERI | HÁRERI |
|--------------|---------------|-----------|------------------|------------------|----------------|----------------|----------------|----------------|
| NI | | | | | | | | |
| HI-M | | | | | | | | |
| HI-N | | | | | | | | |
| HA | jata jatan | Jak jan | Jan janan | | | | | |
| GU | | | | | | | | |
| ZU | | | | | | | | |
| ZUEK | | | | | | | | |
| HÁREK | | Jaz jazen | Janaz Janazen | Jakoz jakozén | | | | |

Oharrak:

- Nor 3. Pertsonako adizkixak baiño ez doguz jaso, bestiak erabiltzen ez diralako.

5) Osatzizuz hónek esaldioxok:

Neri gehixen gustatzen mendira juatia da.

Háreri atzoko tomatiak eta piparrak ez..... bape gustau.

Anderrek etxia txukunago euki ezkerro ezinguruko arratoi guztiak etorriko.

Hasarre gaozela? Erregular, zeueri ez.....halako isuna sekula eterri.

Ondo merezixa daukazu! Esandakua egiñ ezkerro ezhalakorik pasauko

Joni ez..... bape ondo begittandu bere arrebiari esan detsaguna.

Neri ugezabak ezetxera biharra emotera eterri, gero!

Zeuri oindiok ez.....oporrak burutik juan.

Señoritura eterri tripa truke biharra eskaintzera, eta nik ezetz esan netsan, jakiña!

Britaiñarreri gure herrixka asko gustatzen ei.....

Partidua ona? Atzeneko illadan tokau.....eta ez genduan pelotia be ikusi!

Maillukixak madarixak baiño gehixago gustatzen.....zueri.

LAGUNTZAILLIA, *EDUN: NOR- NORK INDIKATIBUA, ORAIÑA

Hamen dakazuzen aditzok apur bat ordenaizuz formiari jarraituz,(oraiña/lehenaldixa gero plural/singular, ostian pertsonaka...)

Dot, dittu, genduan, zenduzen, nau, gaittuzue, ninduen, ginduzen, dau, dittuzuz, dozuz, dittuez, dabez, genduzen, dozue, nozue, zeben, nabe.

Lehenaldikuak:

Oraiñaldikuak:

Nor (zer) singularrekuak:

Nor (zer) pluralekuak:

Nork singularrekuak:

Nork pluralekuak:

Beteizuz puntudun hutsuniak:

| | NIK | HIK-M | HIK-N | HAREK | GUK | ZÜK | ZUEK | HÁREK |
|-------|-------------------------|---------|---------|------------|-----------------------|----------------------|---------------------|------------|
| NI | | nok | non | nau | | | | |
| HI-M | | | | Hau | Haugu | | | Habe |
| HI-N | | | | Hau/haun* | Haugu /haunagu | | | Habe |
| HA | | dok | Don | | | | | |
| GU | | Gaittuk | Gaittun | | | Gaittuzu | Gaittuzue | |
| ZU | Zaittut | | | | Zaittugu | | | Zaittue |
| ZUEK | Zaittuet /zaittueraz | | | Zaittue(z) | Zaittuegu(z) | | | Zaittue(z) |
| HÁREK | | dittuk | dittun |(z) |(z)/... | Dittuzu(z)/ |(z) /dozuez | |

LAGUNTZAILLIA, *EDUN: NOR- NORK INDIKATIBUA, LEHENA

Beteizuz puntudun hutsuniak:

| | NIK | HIK-M | HIK-N | HAREK | GUK | ZUK | ZUEK | HÁREK |
|-------|--------------|-----------|--------------|-------------|--------------|-----------|-------------|--------------|
| NI | | Ninduan | Nindunan | | | Ninduzun | ninduzuen | |
| HI-M | Hinduran | | | Hinduan | Hindugun | | | Hinduen |
| HI-N | Hinduran/nan | | | Hinduan/nan | Hindu(na)gun | | | Hindu(n)en |
| HA | | Heban | Heban/nan | (z)..... | | Zenduan | | (..)..... |
| GU | | Ginduazen | Gindunazen | Ginduzen | | Ginduzzen | Ginduzuezen | Ginduezen |
| ZU | Zindurazen | | | Zinduzen | Zinduguzen | | | Zinduezen |
| ZUEK | Zinduerazen | | | Zinduezen | Zindueguzen | | | Zindueezen |
| HÁREK | | hittuan | Hittuan/nan* | | | | zenduezen |(ze)... |

6) Osatziz hónek esaldioxok:

Katuak ezin halakorik egiñ.

Hárek atzo ez aittu geure azalpenak

Atzo Anttonek ez bihar haundirik egiñ.

Atzo egin guk egittekuak!

Zuekiñ ernagauta nago eta ez gehixago pegoran zaiñ eukiko

Irakasliak ez beti sudurran puntan jartzen jakuena egingo.

Domekan ez guk nahi beste perretxiko batu.

Berbia emondako opari guztiak ekarri zuk?

Afan usaiña darabill eta danak adurra darixola lagako dago.

Gu hire etxera agertu bat egittera etorri eta hara nun topau umien jostailluekiñ afariketan.

Zuek atzo nahi beste afaldu, ahua neurri!

Julianek pelotia lagako dabela aitzen emon

Kanposantu erdixan ezkutau nintzan eta bertan laga granujok, koskabilluak zimurtuta!

Aldapadia igotzerakuan aldian geroian arropa guztia kendu

Atzo zuk zelan ekarri lagun guztiak etxera? Burutik egin jatzu ala?

Hórrek egin armozua! Biña kafittesne ta hiruna zumo arnasa baten eran

Zuek gaurko posturak irabaz baiña hurrenguan arrio egin biharko

Gizonezkuak ez andrazkuok aintzakotzat hartzen.

ESAMOLDIAK: Geure berbetaik hiztegi berezixa daukala ikusi dogu, baiña hori bezin garrantzitsua da esakera propixuak eukitzia, jatorrak. Berbetan dihardugula sarritan erderara jotzen dogu hórrek esamoldiok ezagutzen edo erabiltzen ez dittugulako.

Lotizuz hónek esamoldiok azpiko definiziñuekin:

1- Aida ta ixo:

2- Adurra darixola egon:

3- Afana emon:

4- Afariketan egiñ/ ibilli/ jardun:

5- Agertu bat egin:

6- Aidian egon:

7- Aldian izan:

8- Amaiñ emon:

9- Hanka jokua, perra hotsa:

10- Ahopian berba egin:

a-) Zeozer nor berekin, soiñian eruan edo euki. b-) Zeozeri larregizko onespena emon. c-) Antxitxiketia, ospa egittia. d-) Ahal dan moduan. e-) Bisitatu. f-) Baju egitten dabelako edo ondo ahoskatzen ez dabelako, bateron bati aitzen ez jakonian. g-) Asmoren bat gauzatu barik daguanian esaten da. Zeozer zalantzhan edo erabaki barik daguanian. h-) Zeozergaitik ahozabalik geratzen garanian. i-) Askatu, sikikoki edo fisikoki. j-) Umiak helduen eguneroko zeregiñak imitatuz egiten dittuezen jolasak.

1- Kaixolan neukan txorixarinajetsan ez ebalako kantatzen.

2- Gaur arratsaldian.....biharko detsagu amari.

3-, bagoiaz zahartuaz.

4- Kuadru bati gizonak hainbeste.....zelan.....leikian be ez eban konprenditzen.

5-egitten dau eta ez jako bape aitzen.

6- Jaka barrixa.....daroialakuan buzuakin doia kalian zihar, pintxo-pintxo.

7-dago bere maittiari begira.

8- Eiñgo dogu....., zu aitta ta ni ama?

9- Hori kontuori.....oraindiokan.

10-Txapelokerrak agertu ziranian, ha izan zan....., ahal ebanak ahal eban lekutik.

Testuan ageri diran berba amaierak moldaizuz:

VILLANUEVA DE SAN ANDRESETIK EIBARRERA

Ez uste gero, gure Eibar atzokoa danik! Ezta gutxiagorik ere . Egia da, legez, 1.346. urtean sortu zala. Hain zuzen ere, Alfonso XI.a erregea izan zan Villanueva de San Andres izenez herri moduan bizitzeko eskubidea emon zeskuna. Baino ordurako, hemen inguruko baserritarrak eta inguru hauetan bizi ziranak eibartar sentitzen ziran eta, nola ez!, eurentzat herri honen benetako izena Eibar zan. Horrelaxe, gainera, agertzen da hamabostgarren gizaldia ezkeroko agirietan.(...)

Datu hónek, azken batean, zer esaten deskue? Hemen, Unzuetatarren gidaritzapean, eta Azitain eta San Andresko elizen inguruan, baserri eta alde hauetako inguruko etxeetan, bizi zirala eibartar sentitzen ziran gizon eta emakumeak. Eta eurak izan ziran Gaztelako erregeari eskatu zetsenak, San Andres elizaren inguruan herri bat jasotzeako eskubidea, eta horrekin batera legez herriari zegozkion araudi, ondasun eta eskubideak emoteko. (...)Zelakoa ete zan XIV. gizaldian gure Eibar? San Andres elizaren inguruan ipini zittuen gure aurretikoak harresi batzuk dorretxoekin, hónen barruan euren etxebizitzak jasoz.

Aldatz gora hiru kale zeguazen: Iparkale, Elgetakale eta Txiriokale. Kale lauak, berriz, hónek ziran: Ospital kalea, Arraindikalea, Untzaga kalea (gaurko Calbeton) eta, behar bada, Bilbozar. Esan leike harresiak Barrenkalean hasten zirala. Barrenkalea, hain zuzen, Iparkalearen jarraipena zan, nahiz eta gero ebagi Bidebarrieta kalea zabaltzeo. Garai hartan, Arragueta, Musategi, Ardantza eta Isasi oso herritik kanpora geratzen ziran.(...)

Pedro Zelaia

Gaur egun Eibar da inguruko herrixetan haundixena, baiña beti izan al da halan? Irakurri artikulua eta gero komentaizu zer begittandu jatzun.

HOGEITAMAR SU

(...) Domenjon Andiak XV. mendian *Libro de los Bollonesen* probintziako herrixen barri emoten dau. Datu jakingarri asko. Batzar nagusietan emoten ziran zifrak dira. Esaterako, Eibarrek oin dala 500 urte 1447an 30 su ekazen. Hau da, gitxi gorabehera ehun eta hogeiren bat bizilagun. Zoritzarrez ez dagoz zerrendan Gipuzkoako herri guztiak. Bai guri interesatzen jakuzen banaka batzuk: Plazentziak 26 ekazen. Elgoibarrek Mendarogaz 64; Mutrikuk 83; Mondragoik 138 su zittuan. Ordurako Ahaide Nagusien arteko burrukak amaituta egongo ziran kontizu gure artean. Untzueta eta Ibarra, Elexalde eta... enparauak Ermandadien kontrolpian. Txikixa zan orduan gure herrixak oin dala bostehun urte bere inguruko batzuekin konparatuaz... Ez da harritzekua. Gure herrixak ez dau oingo mendera arte garrantzirik izan probintzian. Oingo mendian egiñ ditxuanak baiña kontuan hartzekuak. Erdi isilik pasatu dittuan bostehunak ondo tapau dittu atzenengo mendiak.

Antxon Narbaiza ...eta kitto. 146 zk.

Gaixaren errepasso moduan, azpimarraizuz ikasittako eibarreraren ezaugarri nagusixak. Ostian, irakurrittakua komentaizu.

KONTZEJUKO BOST ETXIAK

Bixente Tanborrerua kalerik kale ibiltzen zan orduan sasoian banduen eta Udal erabagixen barri emoten. 1901 urtian, seguruenik berak emongo zeban Untzagako Udaletxiaren inauguraziñuaren barri. “Don Antonio Iturriozez, Eibarko herri honetako alkate konstituzionalak, jakiñaren gaiñian lagatzen dau...”, antzeko berbeken iragarriko zeban setienbriaren 14ko inauguraziñuaren inguruan ospakizun batzuk egongo zirala.

Untzagako Udaletxia Eibarren egon diran bostgarren Udaletxia da. 1663ra arte Herriko Batzarra ez zan etxe baten barruan egiten, kanpuan baiño. Orduan urtian Kontzejuko lehelengo etxia jasotzia erabagi zan, behintzat lehenago beste udaletxerik egon zan ala ez diñuan datorik ez dago. 1672xan hori etxiori harategirako hasi ziran erabiltzen. Bittartian, itxura danez, bigarren leku baten jaso zeben udaletxia. 1751an zabaldu zan kontzejuko hirugarren etxia, Elgeta Kalian. Fatxadiak Plaza Barrixa daguan tokira emoten zeban. 1794an frantsesak herrixari su emon eta udaletxia be erre zan. Laugarrena Plaza Barrixa egon zan. 1800 urtian zabaldu zeben eta 71 urte geruago eibartarrak kejau egin ziran oso egoera txarrian zegualako. Azkenian, Untzagan Udaletxia egittek erabagixa hartu zeban Udalak.

Obra garrantzitsua izan zan Untzagakua. Izan be, lehenago Eibarren zeguan Kontzejukua ez zan honen moduko eraikuntza haundixa. Apala ei zan. Romualdo Galdos frailliaren idatzi baten irakorri leikiane, “etxe apala, miserablia ez esatiarren”.

Emilio Castelarrek egindako ikerketa baten esaten zebanez, Euskal Herriko herri guztiak hiru elemento garrantzitsu eukitzen zeben: elixa, jauntxuen etxe eta udaletxe dotore bana. Baiña Eibarren hirugarren falta ei zan: Plaza Barriko Kontzejukua nahiko etxe txikixa zan.

Kontutan hartu biharra dago 1901. urtian, Untzagako Udaletxia zabaldu zanian, zelako herrixan zan Eibar: 7000 lagun inguru bizi ziran eta gaur egunian be oso herri gitxik dake hain udaletxe haundixa.

Arkupiak dagozen lekuaren azpittik errekkia pasatzen da. Errrekia estaltzeko Madriloko Fomento ministerixuari baimena eskatu egin bihar izan zetsen. “Porlanakin Gipuzkuaren egindako lehelengo bihar garrantzitsua izan zan”, argittu zeban Romualdo Galdosek. Udaletxian, buleguez gaiñ, udaltzaingua, eskolak, musika eta dibujo akademiak, brigadiaren biltegixa eta beste erabillera batzuk be izan ziran hasieran.

“Zenbat irabazi zeban Untzagak eta zenbat Eibarrek udaletxe barrixarekin”, idatzi zeban Galdosek. Halan eta guzti be, lehengo Untzaga be paraje ikaragarri politta zala esan zeban.

Untzagako eraikuntza horretan aldaketa batzuk egin izan dira. Inaugurau eta urtebetera goiko aldia obrak egin zittuen... Argazki zaharretan begiratu ezkero, ikusi leike, behintzat, udaletxiaren goiko aldia oiñ desberdiña dala.

Halau eta guzti be, urte askuan egon da konpondu barik. Oin dala urte batzuk ezarrerako mugimendu estrukturala gertatu zan. Horretxegaitik udaletxiaren ziurtasuna zalantzatan jarri zan. Udaletxiaren konponketak aurrera eruan ahal izateko diru asko bihar zala ikusitta, udal ordezkarixak beste erakundiekin hartu-emonetan jartzen hasi ziran dirulaguntzak jasotzeo. Bittartian, 1996xan udaletxia nahikua mogiduta zeguala ikusitta eta eraikiñaren erdiko aldia (eskillara nagusixa dagon lekuau) hondoratuta zeguala kontutan hartuta, udaletxeko sarbide batzuk itxi egin ziran. Hori zala eta, udaletxia laberinto bihurtu zan: bulego batetik bestera juateko sekulako bueltia emon bihar zan.

Orduan urtian, gaiñera, Portalea kultur etxia zabaldu zan eta Udaletxeko batzorde batzuk (Kultura, Euskera eta Hezkuntza) hara aldatu ziran. Hórreri beste udal departamentuak jarraitu zetsen hille batzuetara, modu probisionalian. Oin momentuan Eibarko udaletxia hutsik dago, konponketiaren zain.

Oier Narbaiza,...eta kitto! 98-III-13(moldatua)

1. GAIXAREN HIZTEGIXA: Antxiñako Eibar, Euskeria eta Eibarren kondaira baltza. Ikusizuz gaixakin loturia dauken hónek berbok eta esamoldiok.

- **Aurretikuak:** arbasuak

- **Entzute haundikua:** Famosua

- **Erderak hartu :** Erderaz ikastera kanpora juan. Eibartik asko juaten zira sasoi batian.

- **Bertako egiñ:** Kanpotik etorr Rita herrixan integrau.

- **Bigun hartu:** Kanpokoa ondo hartu. (kontrakua: estu hartu)

- **Infrañuko Patxi bera baiño gorrixaguak:** Politikan halakuak ei ziran eibartarrak.

- **Euskal gaiztua:** Euskeraz txarto ikasi eta moldatzen ez zana.

.....

- **Autobatzaillia:** Bestien bizimoduaz larregi arduratzan dana.

- **Auzixa:** Arazua. Kasua.

- **Auzuak konturatutu:** Ez egitekoren bat egiñ eta inguru kuak konturatzen diranian.

- **Barriketan:** Berbetan patxadaz egon.

- **Bolo-bolo ibilli:** Barrixa edo albistia herri osuaren ahotan dabilenian.

- **Txutxu-mutxuak:** kotilleoak

- **Jardun:** Zerbaittetan aritu. Txarrian diñogunian, txutxumutxuka ibilli.

.....

- **Afan usaiñak erabilli:** Harro-harro ibilli.

- **Ahoberua:** Harrua. Larregi berba egitten dabena.

- **Berbia harrua eta poltsikua zimurra:** Dirua urri izan arren, haundikerietan ibiltzen dana.

- **Eibarko txitxak olluak (- eta zuenian arranuak):** Eibartarreri harruak dirala esateko.

- **Kanpolarrosa:** Itxurakerixatan bizi danari esaten jako.

- **Panpana jo:** Harropuzkerixan ibilli.

- **Fanfarreria:** Harrokerixia.

- **Putz-erroskillia:** Roskilla harrua da berez, baiña bere burua berez dana baiño askoz gorago ikusten dabeanari esaten jako.

Bigarren gaixa

- **H:** Eibarren ez dogu ahoskatzen, baiña idatzi, batuan moduan idatziko dogu: **haundixa, harrua, behekua...**

- **S / Z:** Ahoz bereizten ez badira be (**danetan S egitten dogu**), idatzi, batuan moduan: **sasoia, zikiña...**

- **TZ / TS:** Ahozkuān bereizten ez badira be (**danetan TZ egitten dogu**), idatzixan bai: **baltza, mahatsa...**

- **i-ren osteko bustidurak:**

- **itz- ➔ -tx-:** Ahoz eta idatzitta: bakoitza ➔ bakotxa, gaitza ➔ gatxa ...

- **i + l tokatzen danian “ill” ahoskatu eta idatziko dogu:** dabillenian, milla...**Berba amaieran be “ill” idatziko dogu, baiña ez beti: hurrengo berbia kontsonantez hasten danian “il” idatziko dogu, eta bokalez bada “ill”:** badabill hori / badabil barriro be, **hill egin dok / hil dok...**

- **i + n gertatzen danian, “iñ” ahoskatu eta idatziko dogu;** kasu guztxetan: **haiñ, oiñ, baiña...**
Salbuespena:

- **iñ horrekiñ amaitzen diran berben** ondoko berbia kontsonantez **hasten bada, -in idatziko dogu:** egin dau / egiñ arren, hain txikixa / haiñ estua.

Oharra: zana, ezpana...lexikalizauta dagozenez ez dira arlo honetako kasuak.

- **i + t gertatzen danian, “itt” edo “itx” ahoskatuko dogu, baiña beti “itt” idatziko dogu:** dittugu, itturrika, badakitt...

- **BOKAL ARTEKO “D” ETA “R”:** Hórrek kontsonantiok **modu bittan** erabiltzen dira:

- Lexikuan edo berbetan “d”ari emongo detsagu lehentasuna: moduan, besarkadia, edo...

- Aditz joko edo konjugaziñuetan “r”ak eukiko dau lehentasuna: etorri hari, daukaraz, ditturaz..

- **BOKAL ARTEKO “G”:** **Berba** egitterakuan gehixenetan **ez dogu** fonema hori **erabiltzen**. Baiña **idazterakuan** berbia dan moduan **erabilliko dogu:** eon ➔ egon, uazaba ➔ ugazaba...

Ere loturia **Be** edo **Pe ahoskatuko dogu** (bokalostian **be** eta kontsonante gogor (k-) ostian **pe**, normalian). Baiña **idatzi**, beti **be** idatziko dogu.

Eta loturia honela ahoskatu eta idatziko dogu:

| ESATEKO MODU JATORRA | ZELAN IDATZI BIHAR DAN |
|----------------------------|------------------------|
| Aitta ama | ...eta... |
| Berreheun bat | ...eta... |
| Zazpi bost (pelotan) | ...eta... |
| Zortzi larenak | ...eta... |

-Z GERO / EZKERO. Batuan etorriz gero, hartuz gero... **Eibarreraz etorri ezkerro, hartu ezkerro...ahoskatu eta idatziko dogu.**

- ERDERAZ “R” BATEKIN HASI ETA GEUREGANATU DITTUGUN BERBAK:

Gatxa da kasu honetan araurik emotia, desbardiñ jokatzen dabelako: **ración ➔ raziña, ratón ➔ arratoi, reconocer ➔ rekonozidu, reja ➔ erreja, regular ➔ erregular.**

Halanda be esan leike ugarixaguak dirala erderazko “re” eta “ra” “erre” edo “arra” bihurtzen diran kasuak.

- ERDERATIK HARTUTAKO BERBAK:

Testua adi irakurrizu:

Aurreko egunian, Andertxuk foballian ziharduala, **balioa** gogor jo eta **armeruaren** auto zaharraren **karrozerixia** apurtxo bat maillatu zeban. Inguruau segiduan **montau** zan **jaleua**. Herriko bost sasiletrauak kalian behera **manifestaziñuan** zetozenean. **Antikuarixuak** esaten zeban autuak asko **sufrido** zebala; **kobradoriak, burokrazia** luzia izaten zala halako kasuetan; **fisikiak**, oin kotxia garagian hobeto **kabiduko** zala, eta **matematikuak** ezetz, zabalian galdu zebana luzian irabazi zebala; azkenian, betiko moduan, **bekarixiari** tokau jakon arazua garbitzia.

Goiko testuko berba amaieretan oiñarrituta, osatizuz hutsuniak:

- eo + a=: video ➔ bide....
- ia (diptongua) + a=: industria ➔ industr....
- ia (hiatua) + a=: armería ➔ armer.....
- ión ➔: estación ➔ estaz.....
- ón ➔: melón ➔ mel....

- ERDERATIK HARTUTAKO ADITZAK:

- ar ➔ -....: cantar ➔ kant....
- er ➔ -.....: atender ➔ atend....
- ir ➔ -.....: sentir ➔ sent.....

- ERDERATIK HARTUTAKO LANBIDIENAK:

- ero + a= -.....: bombero ➔ bonb.....
- or ➔ -.....: pintor ➔ pintt.....
- rio ➔ botikar...../ + a = botik.....
- ria ➔ sekretar...../ +a= sekret.....
- co ➔ medik..../ +a= medik.....
- ca ➔ optik..../ +a=optik.....

HIZTEGIXA (2):

- | | |
|-------------------|---------------------------|
| 1- Kopeta | a- Ugar |
| 2- Zilbor | b- Ardi |
| 3- Pusketa | c- Bihar |
| 4- Arkakuso | d- Amaittu |
| 5- Erdoi | e- Kopeta |
| 6- Hitz, hizketan | f- Sama |
| 7- Trentza | g- Zati |
| 8- Lan | h- Bekoki |
| 9- Lepo | i- Zil |
| 10- Bukatu | j- Berba, berbetan |

HIZTEGIXA (2): Osatzuz esaldioxok eskumako berbekiñ:

- 1- Persona batzuk kanporutz eukitzen jone.
- 2- Oporretatik.....jositta bueltau giñuazen, ixa odol barik.
- 3- Oin be zenbat argaldu don Arrate! igartzen jakon
- 4- Bost miñutu jakanaguz azterketia.....
- 5- Aspaldixan bizikletia ikutu barik najaok eta oiñezkeriokjango juan.
- 6- Jendaurrian ekiten detsanian miña trabatzen jakon.
- 7- Doiala..... jornala kobrau dabena!
- 8- Mundu honetan ez hadi burumakur ibilli, eruain beti.....tente!
- 9- Umetan ez gendunan bape konplikaziñorik ulia orrazteko, pare bat.....egiñ eta aurrera!
- 10- Eta oin nundik jirau bihar juat planuari lapurtutako.....?

DEKLINABIDIA

Osatziz puntudun hutsuniak: ALABA (Biziduna)

| KASUA | MUGATU SING. | MUGATU PLUR. | PLUR.HURBILLA | MUGAGABIA |
|----------------------------|------------------|-----------------|---------------|-------------------|
| 1- Nor | alabia | alabak | Alabok | Alaba |
| 2- Norik | | | | Alabarik |
| 3- Nork | | alabak | | Alabak |
| 4- Nori | alabiari | | Alabori | |
| 5- Noren | | alaben | Alabon | Alabaren |
| 6- Nongo | | | | |
| 7- Nortaz | | | | Alabaz |
| 8- Norekin/zeiñegaz | Alabiakin/gaz | | Alabokin/gaz | Alabakin/gaz |
| 9- Norengaittik | | alabengaittik | Alabongaittik | Alabagaittik |
| 10-Norendako/ tzat | Alabiandako/tzat | Alabendako/tzat | | Alabarendako/tzat |
| 11-Nortzat | | | | Alabatzat |
| 12-Nore(n)gan | alabiagan | alabengan | Alabongan | Alaba(ren)gan |
| 13-Nore(n)gandik | alabiagandik | alabengandik | alabongandik | Alaba(ren)gandik |
| 14-Nore(n)gana | | alabengana | Alabongana | Alaba(ren)gana |
| 15-Nore(n)ganaiño | alabiaganaiño | alabenganaiño | Alabonganaiño | Alaba(ren)ganaiño |
| 16-Nore(n)ganutz | alabiaganutz | alabenganutz | Alabonganutz | Alaba(ren)ganutz |
| 17-Nore(n)ganako | alabiaganako | alabenganako | Alabonganako | Alaba(ren)ganako |
| 18-banatzaillia | | | | alabako |

IBAR (Bizigabia)

| KASUA | MUGATU SING. | MUGATU PLUR. | PLUR.HURBILLA | MUGAGABIA |
|---------------------------|---------------|------------------|------------------|------------------|
| 1- Zer | ibarra | ibarrak | ibarrok | ibar |
| 2- Zerik | | | | |
| 3- Zerk | ibarrak | | ibarrok | Ibarrek |
| 4- Zeri | ibarrari | | Ibarrori | Ibarri |
| 5- Zeren | | ibarren | ibarron | Ibarren |
| 6- Nungo | ibarreko | ibarretako | ibarrotako | Ibarretako |
| 7- Zertaz | | | | |
| 8- Zerekin/zegaz | Ibarrakin/gaz | Ibarrekin/gaz | | Ibarrekin/gaz |
| 9- Zergaittik | ibarragaittik | ibarregaittik | ibarrogaittik | Ibarregaittik |
| 10-Zerendako/ tzat | | Ibarrendako/tzat | Ibarrondako/tzat | Ibarrendako/tzat |
| 11-Zertzat | | | | Ibartzat |
| 12-Nun | ibarrian | ibarretan | ibarrostan | Ibarretan |
| 13-Nundik | ibarretik | ibarretatik | ibarrotatik | Ibarretatik |
| 14-Nora | ibarrera | ibarretara | | Ibarretara |
| 15-Noraiño | ibarreraiño | ibarretaraiño | ibarrotaraiño | Ibarretaraiño |
| 16-Norutz | | ibarretarutz | ibarrotarutz | Ibarretarutz |
| 17-Norako | ibarrerako | ibarretarako | ibarrotarako | Ibarretarako |
| 18-banatzaillia | | | | Ibarreko |

OHARRAK: (Osatziz Eibarko berezitasunen hónek ohar edo erregelok)

- 1- **Nork kasuan, mugatu pluralian eibarreraz –.....** (batuaz –ek): alab.... egin dabe / alabek egin dute.
- 2- **Nori kasuan, mugatu pluralian eibarreraz –.....** (batuaz –ei): alab.... esan detse / alabei esan diete.
- 3- **No(re)kin eta No(re)gaz. Eibarren bixak erabiltzen dira, baiña –..... gehixago:** Argi ibilli txakurrakin / Argi ibilli txakurragaz.
- 4- **Noren** kasuan Eibarren ez da tarteko –.....- ahoskatzen, baiña.....**noren** kasuan bakarrik mantenduko dogu tarteko hori: **andrian / andriaren**.
- 5- **Norengana:** Bi modutara idatzi leike: **ama...../ ama.....**
- 6- **Norantz/Noruntz/ Norutz:** Zeiñ erabiltzen da gehixen eibarreraz?
- 7- **No(re)ntzat / No(re)ndako:** Zeiñ erabiltzen da gehixen eibarreraz?
- 8- **Plural hurbilla oin dala gitxi arte takian potian erabiltzen zan, gaur egunian, ostera, oso gitxi:** Hónek gazti..... jaukek baloria!

7) Beteizuz hutsuniok dagokixen deklinabide kasuakin:

- Gizon..... agintzen ei dogu etx(e)....., baiña andr(a).....dira nagusi.
- Andr(a)..... gaurko egunez gizon..... beste dira eskubidietan.
- Hórrek danetik jakane, alab(a).... eta sem(e)..... ugari.
- Baneki zeiñ alab(a).....kin geldittu diran etx(e).....! Baiña ez jakiñat.
- Sem(e)..... boligrafo ederra ekarri dau am(a).....
- Hiru sem(e)..... eros i detse pisua, baiña laugarren..... ez.
- Eibar..... herri.....lantegi asko juan da kanpo.....
- Herri..... kal(e)..... izenak aldatu bihar detsez.
- Zu.... beti zeur(e)..... eusten, ahuntz..... mendi..... joten daben moduan.
- Caribe..... itsas(o)..... eta hango hondartz(a).....juango nintzake pozik.
- Munduko gobernu buru.....ezin dabe egoer(a).... konpondu.

ESAMOLDIAK (2):

1- Koko jantzi:

2- Ardau jana egin:

3- Haren baten:

4- Arramuzka egin:

5- Arrapataka ibilli:

6- Arrio egin:

7- Hartzekoz jositta/ beteta egon:

8- Autuan ibilli, izan:

9- Aterik aiña maratilla (eta bat sobra):

10- Ahua betian:

A- Gauza bi oso antzerakuak dirala esateko. B- Presaka ibilli. C- Aratostietan mozorrotu. D- Arrazoirik ez, dan-dana berak esan eta gaiñera hasarratu egitten dana. E- Edozertarako be, beti erantzuna prest daukanari esaten jako. F- Zurrutian ibiltzeko aitzakixan egitten dan otordua. G- Agiraka, errieta egiñ, haserre egin; Bateron batek zeozer modu onian esan eta erantzun zatarra emon. H- Tartian izan, parteko izan. I- Ozenki, harrotuta; Hala dan edo ez jabetu barik, ingurukuen aurrian maixukeriatan jardun. J- Erronka edo desafio batian atzera egin.

1- Merezi barik.....zetsan

2- Autua berak hondatu eta oindiok.....

3-guzurra darixola dago tabernan.

4- Atzo erbixa ekarri dau Polak, eta gaur.....dabe Eperranian lagun guztiak.

5- Hainbeste diru jokatu bere alde eta aharixaklaugarren topia baiño lehen.

6- Ezin leike jardun zuregaz,.....dittuzu.....

7- Aurten kuadrilla osua.....gaittun.

8- Bata katu eta bestia txakur,.....dabiz.

9-egindako biharra, alperrikua.

10- Gaztia nintzan baiña.....nintzan, herri guztia zalako parte.

SINTAXIA:

Atal honetan geure berbetiaren berezittasun batzuk ikusiko dittugu. Hónek berezittasunok ez dira gure herrixan bakarrik gertatzen, gehixenak oso zabalduta dagozelako. Oiñ artian lez, jatorrenak eta erabilixenak apartau doguz.

- Perpaus sinplietan:

Horraittiok(an): Formaz adbersatibua da, baiña baieztapen bati indarra emoteko darabigu: **Horraittiok**, etorri zara halakoren baten.

Barren: Aurkaritza markatzen dau: Hi, eibartarrak dittuk **barren!** (beste toki batekuak zirala uste genduan). Hamarrak dira **barren**. (Goizegi edo beranduegi dala adierazteko)

- Perpaus alkartuetan:

eta juntagailluak badaka aldaeria: **Enda**

ez eze....be: Ez dirua, **ez eze** bizixa **be** han laga bihar izan neban. Gaur egunian halan erabiltzen dogu: Dirua **ez eze**, bizixa **be** han laga bihar izan neban.

- Perpaus konpletibuetan:

-(e)la eta **-(e)na**, bixak darabiguz. **-(e)na** batez be **ziur egon, jakiñ, ikusi...** eta antzeko aditzekin: banekixan azkenian txarto amaituko zebana.

Eze: Esan zestan **eze**, ixak eta berandu etorren eta autua konpondu barik eukanez, bixamonian emongo zestala agindutako liburua.

- Baldintzan: - T(z)era: Juliandiak, ona izatera, diru asko balixo izaten dau. (izan ezkero).

- Denborazkuetan:

Ostian: Partia entzun **ostian** erropak plantxau bihar dittut.

Lantzian behiñ: **Lantzian behin** juaten giñan eskolara.

Harik eta ...arte: **Harik eta hill arte**, eran deigun ardura barik.

Astian-astian: **Astian-astian** egitten dau agertu bat gurasuetara. (=astero. Baitta **egunian-egunian, domekan-domekan...**)

ESCUELA DE ARMERIAREN HASIERETAKO OROIPENAK

Ateak iriki zituan Escuela de Armería frontoi zaharreko etxearen, 1913garrenengo Ilbeltzaren hasieran, 15 bat ikaslekin.

Nere grupoa sartu zan hurrengo urteko ilbeltzaren 2an, eta gu be 15 lagun inguru giñan, ba orduan ez zan oraingo zaletasunik semeak Eskolara bialtzeko. Etxerik-etxe ibilli bihar izaten eban Don Julianek ikasle edo alumnuak billatzen.

Hiru gizon jator ziran gure maixuak frontoi zaharreko eskolan 1914garrengoko ilbeltzaren hasieretan. Don Julian Etxeberria, ta Toribio ta Pio Zulaika anai jatorrak. Julian eta Toribio ziran klase teorikokuak, eta Pio tailarretako lanen maixua.

Ez zan erreza Piondako, berak bakarrik, gu bezelako mutil pillua zaintzia, ba, danak bihotz onekuak izan arren, beti okerkeriekin pentsatzen egoten giñan. Buelta emoten ebaneko hasten zan bateronbat kantatzen, orruaz edo barregarrikeriren bat egiten, orduan bestiak pozutzen ziran eta armatzen eben jaleuakin, frontoi zaharreko atsuak balkoira urtetzen eben zer jasotzen zan jakinuraz. Beste batzuetan, iñuxentiena gure arteko bialtzen genduan Zulaika jaunagana gezurrezko enkarguakin, ta gure poza izaten zan ikustekua, gizajuari ezartzen eutsanian kulpa bako zigorra. Sarritan, hurren hartzen ebana kastigatzen eban, ta pagatzen zituan danon kulpak gitxien eukanan.

Negu hotza eta gogorra izan zan urte hartakua. Egun batian, jarraituaz hotzak, geunden leihoa guztiak itxita, ba orduan ez zeguan dirurik estufarik erosteko, lanian, liman guk esaten genduan bezela. Pio beste bikin sutaixan guri zabalak gertatzen zan, ta itxuraz ikatza ondo erre barik egon zalako, denok intosikatu giñan oxido de carbonokin. Lehenbizi nere albuian jausi zan, txalan moduan, Agirregomezkorta ta gerotxuago beste bat; baiña Pio ez zan jausten kontuan sutaixan equalako. Gure txilikuetara etorri zanian, pentsatzen eban gure aboziñaukeriren bat zala, ta hasi zan orruaka. Eskerrak orduan goiko oiñetik jatxi zala Don Julian, ta leihuak irikiaz, etxera bialdu giñuezen danok, gure poz haundiakin.

UME KONTUAK

Gaurko txikixak lez, guk be oso gogoko izaten genduan, uda aldian igari ibiltzia. Horretarako lekurik onena itxasbaztarra izanik, Deba alderaiño juan bihar izaten genduan, atsegin hori hartzeko. Gaur bezelaxe. Baiña gaurtik ordura, alde haundixa dago. Gaurko umiok, Debara juateko erreztasun haundixak daukazuez, egunero juan nahi izanda be. Orduan ez zan horrela. Beribilla zeukan sendixak banaka batzuek ziran. Bardintsu esan geinke motor eta bitxirrinkiari buruz be. Bultzi edo trena izan ezik...eta hau ordaintzeko, txanponak bihar. Horregaitik, domeketan eta jai egunetan bakarrik juaten giñan Debara.(...)

Gabezi guzti hoieri arpegixa emoteko, erreka baztarrak geunkazen, besterik ez. Baiña Eibarren izan al da ba errekarik?, galdetuko dau batedonbatek. Bai, izan da eta bada. Hortxe doia gure Ego ibaixa, nahiz eta apal-apal, herrixaren azpittik, gure garaian, agiri-agirixan, ixa herri guztia igarotzen zeban errekatxua, nahiz eta ez beti oso garbixa. Halan be, Ferruel bizi balitza, esango leuke zenbat aingira, barbo eta abar harrapau zittuan bertan. Euri eraso haundi xamar bat nahikua izaten zan berihala garbi-garbi gelditzeko be.

Ba, hementxe geunkazen gure ordiazko “itxasbastarrak”, astegunetan behiñik-behin igari egitteko. Hortxe, Amaña aldian, Kakalardokua; herrixaren erdi-erdixan, Ariatza; herrixaren urteean Hondamendi –hau aldi baten debekatua–; Txonta eta Matxari be hortxe. Gaur danak lur azpixan.

Hortxe egitten genduzen gure lehenengo igari ikasketak, gero Debara juatian olatuen gaiñian harro-harro ibiltzeko neurriyan.

Halan be errekan igari egittiak bazeukan bere alderdi zailla, zera, gure gurasuen bildurra: zeozer gertatuta be!... Horregaitik ez zeskuen errez baimenik emoten. Eta begira, hori zala-ta, zer gertau jakon gure lagun Antoniori.

Izan be, bi oker egin zittuan batera egun zoritzarreko haretan: zera, eskolatik “martxando” egiñ eta Hondamendira juan igari egittera -debekauta zeguan aldian-. Han zebillen –zoriontsu gure mutilla- bere lagunak baiño luzaruago murgillian egin baietz, hogei kontau orduko zapoburua harrapau baietz, bere abildadiak erakusten, harro-harro. Eta holako baten, bere lagunak nahikua egin zebela eta erropak jazten azi ziranian, hor ageri da ezkutu batetik “Sarrepel” aguazilla. Baiña hauetatik iñor ez zeban atxikittu, danak hanka egin zeben garaiz. Antonio bakarrik jausi zan ertzain maltzurraren sarian. Izan be, murgixian zebillen hau agertu zanian da...

Ur azalera urten zebanian, zapoburu bat eskuetan zebala, hor ikusi dau bape ikusi nahi ez zebana: Sarrepela aurreko aldian, makilla esku batian eta bere arropak bestian. Gaiñera mutilla narru gorri xan zeguan eta ez zeban nahi uretatik urtetzerik. Hantxe geldittu ziran bixak, alkarri begira. Holako baten ertzain jaunak holan esan detsa gure Antonio bildurtixari: -gaur, nere ordez, heure amak berotuko hau. Hemen egon biharko haiz, haura etorri arte hire arropekin; neuk emango jetsaraz, hiri honera ekartzeko; bien bittartian egiñ igari, ez hoztutzeko. Beste barik Sarrepela zuzenian Antonioren etxera juan zan. Ez zeguan urrin be eta laster iritsi zan. Atia jo eta mutikuaren amak urten zebanian, harek holan esan zetsan: hara hemen zure semiaren arropak; Hondamendin geldittu da zapoburuak harrapatzen, baiña debekatua dagualako, bost pezeta emon bihar destazuz, haren ordez, arropa honek hartu aurretik.

Halan egin bihar izan zeban emakumiak. Eta berihala, arropak hartu eta han abiatu zan Hondamendiko “hondartzara” bere semiaren billa. Han zeguan gizajua nahikua hoztuta, baiña ez erre kako uragaitik, baizik gertatuak emon zetsan nahigabiagaitik.

Ama ikusi zebanian, urten zan uretatik, eta harek, arropak baiño lehenago emon zetsan jipoiagaz, bero-bero eginda laga zeban aldi baterako.

2. GAIXA: Eskolia, Jolasak eta neska-mutilletan. Ikusizuz gaixakin loturia dauken hónek berbok eta esamoldiok.

- Afariketakua: **Jostaillua.**
 - Amazulo: **Amaren gonapetik urten bako umia.**
 - Aritxalarixa: **Gurasuen etxia laga eta bere kabuz bizitzera doiana.**
 - Astrapala: **Zalaparta**
 - **Basia, kakatza:** lokatza
 - **Granujia:** Sasoi batian mutiko gazte guztieri esaten jakuen.
 - **Hariatzia:** Hondartzia (Eibarren binguaren parian egitten zeban errekkak hariatzia)
 - **Murgilla:** Ur azpixan igari egitten dana.
 - **Aratian egiñ:** Zerura begira igerixan egin.
 - Lelia/lelua: **tontua (neska edo mutilla)**
 - Martxando egiñ: **Eskolara joan ez. Piper egin.**
 - Txantxetan:**Jolasian. Brometan.**
 - Txipli-txapla: **Uretan jolastu.**
 - Kunbua: **Errekako putzu haundixa.**
-
- Errekaua egiñ: **Maittasun deklaraziñua egiñ, ezkontzia eskatu.**
 - Kulape emon: **Ezezkua, kalabazia emon.**
 - Laztana: **Eibarren musua, igurtzia, maittia.**
 - Zirri egiñ: **Gaur egungo eskua sartu baiño polittagua.**
 - Txirtxilla, Txilibitua: **Zakilla**
 - Ollandia: **Neska gazte liraiña.**
 - **Potxoliña, Potxorra:** Alua

Hirugarren gaixa

FONETIKIA:

Beste berezittasun fonetiko batzuk, baiña orokorrak (arau) ez diranak:

- **Bokal aldaketak:**

- i → u: iriña → uruna

- u → i: urrun → urriñ

- e → a: berri → barri

- **Aldaketa konsonantikuak:**

- g → b: sugia → subia.

- b → g: barbua → bargua

- h, Ø → g: ahua → agua

- iz → ix: noizian → noixian

- l → d: elur → edur

- l → n: lasai → nasai...

- nb → m: zenbaitt → zemaitt

- m → nb: gamelu → ganbelu

- p → f: piztia → fristixa

8) Ariketak: Aldaketa bokalikuak:

Atera →

Ile →

Gutxi →

Haserretu →

Iltze →

Elkar →

Hezurra →

Beltza →

Irten →

Berdin →

Bider →

Dena →

Txerri →

Lore →

And(e)re →

Aldaketa kontsonantikuak:

| | |
|------------|-----------|
| Gurpilla ➔ | Bolibar ➔ |
| Berrehun ➔ | Goizian ➔ |
| Belar ➔ | Larru ➔ |
| Konbeni ➔ | Trumoi ➔ |
| Ipini ➔ | Gurdi ➔ |
| Ihes ➔ | Ilar ➔ |
| Konbentu ➔ | Uhala ➔ |
| Mobidu ➔ | Iaz ➔ |
| Zilar ➔ | Iparra ➔ |
| Leuna ➔ | Pabonua ➔ |

HIZTEGIXA (3):

- | | |
|------------------|---|
| 1- Odolki | a- Amatau |
| 2- Saioa, saiatu | b- Masma |
| 3- Aitona, amona | c- Odoloste |
| 4- Ulertu | d- Buztana |
| 5- Agian | e- Ixotu, biztu |
| 6- Noski | f- Erregular, jakiña |
| 7- Armiarma | g- Aittu |
| 8- Isatsa | h- Aittitta, amama/amandria |
| 9- Itzali | i- Ahalegiña, ahalegindu, zaildu |
| 10- Piztu | j- Biharbada, akaso, baleitteke. |

HIZTEGIXA (3): Osatzizuz esaldioxok eskumako berbekiñ:

- 1- Ondo portau ezkero,....., barraketara eruango zaittuegu.
- 2- Astuari.....oratzen badetsak afarixa ordainduko deuat.
- 3- Maixua hasi zonan berba arraruak esaten eta ez njonan piparrik be.....
- 4- Juari lotara etaargixa, Iberdrolako akzionistia dirudik eta!
- 5- Ama izatia gogorra don, gero! Aurreko asteburuan moduan oinguan be umialaga bihar.
- 6- Ez jagon gauza igoingarrixagorik subia eta..... baiño.
- 7- Nagusixena danez, berari dagokixon basarrixak,.....
- 8- Esaik nahi duana, baiña baba zurixak.....barik jatia gauza tristia dok.
- 9- Ha zonan hotza eta haizia! Surik be ezin izan njonan.....
- 10- Hainbeste bidar.....eta gero ukat egiñ biharra oso gogorra dok.

DEKLINABIDIA:

- Pertsona izenordaiñek deklinabide arrunta eta indartua dauke: ni/neu, hi/heu, bera/berau/berori, zu/zeu, gu/geu, zuek/zeuek, eurak/eurok.
Eibarreraz forma indartuak erabiltzeko joera haundixa dago.

- Erakuslien deklinabidia:

Erakusle singularrak (hau, hori, ha); oharrak:

- **hau** eta **hori** batuan moduan deklinatzen dira. **Ha:** batuatik desbardintzen diran kasuak:
 - nor: eibarreraz **ha** batuaz hura
 - nork: “ **harek** “ hark
 - nongo: “ **haretako** “ hartako
 - Batuak tarteko -e- galtzen dabentzat kasuetan eibarrerak gordetzen dau.(haretan, haretarutz...)

Erakusle pluralak (hónek, hórrek, hárek); oharrak:

- Erakusle singular eta plurala askotan bardiñak dira, azentuaziñuan baiño ez dira desbardintzen, horregaitik, eibarreraz erakusle plural guztieri azentua idatziko detsegu.
 - Desbardintasunak:
 - **Oiñarrixa:** Eibarreraz **hón-**(hónek, hónekin, hónetan). Batuaz hau-(hauek,hauekin,hauetan)
hórr-(hórrek, hórren..) hori- (horiek, horien....)
hár- (hárek, háretan...) hai- (haiiek, haietan...)

- **Erakusle indartuak:** nor, nork eta nori kasuak singular eta pluralian:
 - hauxe/hónetxek, honetxek/hónetxek, (honetxeri-honitxi)/hónetxeri
 - horixe/hórretxek, horretxek/hórretxek, (horretxeri-horritxi)/hórretxeri
 - haxe/háretxek, haretxek/háretxek, (haretxeri-haretxi)/háretxeri.
 - Eibarren sarrittan **erakusliaren tokixan adberbixua** jartzen dogu: **hamen etxian** jaixo zan aitta, **horko etxeko** teillatua hondatu da, **handik etxetik** dator keia.

Erakusliak izenaren aurretik eta atzetik:

- **Singularrian aurretik eta atzetik:** Ikusi dok **hau piezian?** Horrek mutillorrek ez dau gauza onik egingo. **Hareganan neskiagana** juaten da sarri gure mutilla.
 - **Pluralian aurretik eta atzetik:** Izena pluralian doianian eta erakuslia 1. edo 2. maillakua danian (hónek, hórrek), izenak plural hurbilleko markia hartzen dau: **Hónekin** gizonokin ez dago zer egiñik. **Hóren** andron jazkeria barregarrixka da. Erakuslia 3. maillakua danian (hárek), izenak plural marka normala hartzen dau: **Hárek** mutillak ez euken kulparik.
 - **Singularian izenari atzetik lotuta:** 1. eta 2. maillako erakusliekin, (hau, hori..): Isildu hari **mozoluori!** Demasa bota desku **mutillonek**. **Gizonorri** pasatzen ez jakonik.

9) Batuaz dagozen erakusliak eibarrerara pasaizuz, azentua kontuan hartuta, eta gero izenaren aurretik edo ostetik moldaizuz:

- Ardurabako hauek edozeiñ astegun buruzurixan be asarixa egitten juek; ardaujana baiña!
- Amataik radixo hori!
- Hemengo etxe hauetan haiziak gogor joten dau.
- Biharrian astiro gabiz eta gazte hauei barriketan hastia baiño ez jakue bururatzen
- Guzurrik esaten hasi danetik,drogoso haietkin dabillela begittantzen jata.
- Ezagutzen don neska hau?
- Kale horietatik pasatzen da tanborradia.
- Baldar horiek blastiua emon detse semiari.
- Ia zeiñek egitten daben piñu hartara joanetorrixa ariñen!
- Pegorako eskillara horiei garbittu bat emon bihar detset.
- Kobazulo horietako isiltasunak beldurra emoten desta.
- Amorrua emoten jestek tramankulu moderno hauek!
- Atso haiei adar joka ibiltzia be, hik daukak baloria!
- Agintari hauengandik ez juat ezer espero.
- Zer diñok baiña? Guzti hura ez zuan halan izan!
- Neska hark botatako begirakunia ez zuan gozua izan!
- Mutill horrek ez dau gauza onik egingo.
- Ni zakar egon nintzuan, baiña morroi haiet ez zittuan atzian gelditzekuak, gero!

SINTAXIA:

- **Helburuzkuetan (zertarako galderari erantzutzen detsenak):**

-**T(z)iarren:** Begixen bistatik **kentziarren** katamia salduko neuke.

-**T(z)e alde(ra):** Kalerako jazten dan goniari adar **jote alde(ra)** ibil-gonia deitzen jako Eibarren.

- **Kausazkuetan (zergaittik galderari erantzutzen detsenak):**

Zergaittik eze: (oso zabalduta dago nagusien artian, erderakadia emoten daben arren. Batzuetan **zergaittik eze ...lako** be erabilli izan da)

Guardasola etara biharko dot **zergaittik eze** eguraldixa eurira dago.

- **(e)netik:** Aratoste eguna danetik koko jantzi dira gure gaztiak.

- **Ixak eta:** **Ixak eta** heldu garan, hasi gaittian jaten.

- **Konparatibuak:**

Lezko: Donostian **lezko** hariatzia dago Zarautzen.

Lezkotxe: Zuk **lezkotxe** liburua daukat nik.

Laiñ: Goserik ez, bizitzeko **laiñ** badakagu.

Aldian: Nere **aldian** gaztia zara zu, ederrori.(ez *gaztiagua)

Askokiñ hobia (...baiño): Amoko legatza, **askokiñ hobia** ostiangua **baiño**.

Aukeran haunditxua: **Aukeran** haunditxua da daukagun etxia. Lapikuari gatza, **aukeran gehitxo** egin detsazu.

Uste (eze) ...la: Orrualari agintzaille bat da, **uste eze** bere bendian garala ostianguok.

Zein da.... balitz moduan: Pizarra onduan ipiñi zan **zein da** maixua **balitz moduan**.

- **Konsekutibuak:**

Haiñ...eze...-(e)n: **Haiñ** da adurtsua **eze**, Pepitxuak aterpia jartzen **daben** hari aitzeko, txipriztiñen bildurrez.

- **Kontzesibuak:**

Alperrik: **Alperrik** Marixak makillatu, berez bihar dau. (Marixak makillaz jo arren ez da aldatuko)

Arren: **Aditzakiñ:** Gaiztua **izan arren**, ha idixa ondo zaindu genduan.

Izenakin: Pozik juango nintzake, dittudan **urtiak-arren**, euskerak hartzera.

Eginda be: Egiñahalak eginda **be**, biharra eziñ amaittu.

- **Moduzkuak:**

Egiñan puruan: Drogia egiñan **puruan** irabazi zetsazen diru guztiak.(=egiñaren egiñaz)

Lez, letz: Mundu guzurtixan aurrian, haundixa, baiña gizon **le(t)z**, hutsuna bat baiño gehixagoko umia.

Zelan: **Zelan** ibiltzen diran botua kentzeko.

-(e)n moduan: Ezkondu bihar **dan moduan**.

ADITZA:**LAGUNTZAILLIA, EUTSI: NOR-NORI-NORK. INDIKATIBUA ORAIÑA/LEHENA (SINGULARRA ETA PLURALA):**

Hamen dakazuzen aditzok apur bat ordenaizuz formiari jarraituz,(oraiña/lehenaldixa gero plural/singular ostian pertsonaka...)

Desta, detsuez, zeskun, destazu, deskuz, (z)estan, detsaraz, detsagu, netsazen, deskue, zetsen, detsuguz, netsen, destez, gentsan, zeskuzuen.

Lehenaldikuak:

Oraiñaldikuak:

Nor (zer) singularrekuak:

Nor (zer) pluralekuak:

Nork singularrekuak:

Nork pluralekuak:

Nori singularrekuak:

Nori pluralekuak:

Osatizuz puntudun hutsuniak:

| | NIK | HIK-M | HIK-N | HAREK | GUK | ZUK | ZUEK | HÁREK |
|--------|--------------------|--------------------|--------------------|-------------------|-----------------------|---------------------|-----------------------|-----------------|
| NERI | | Destazak | Destan Destanaz | | | | Destazuez | |
| HIRI-M | Deuaraz | | | Deuk Deuaz | Deuagu Deuaguz | | | Deue Deuez |
| HIRI-N | Deunaraz | | | Deun Deunaz | Deunagu Deunaguz | | | Deune Deunez |
| HARI | | Detsak Detsazak | Detsan Detsanaz | | | | | |
| GURI | | Deskuaz | Deskunaz | | | Deskuzuz | Deskuzue | |
| ZURI | | | | Detsuz | Detsugu | | | |
| ZUERI | Detsueraz | | | Detsue Detsuez | Detsuegu Detsueguz | | | Detsue |
| HÁRERI | | Detse Detsezak | Detsen Detsenaz | | | Detsezu Detsezuz | Detsezue Detsezuez | |

Lehena:

| | NIK | HIK-M | HIK-N | HAREK | GUK | ZUK | ZUEK |
|--------|---------------------|-------------------------|----------------------------|---------------------------|--------------------------------|---|--|
| NERI | | | Hestan Hestazen | Hesta(na)n /...(na)zen | | ze(n)stan/ Zestazun Ze(n)stazen/zestazuzen | Ze(n)sten/zestazuen Ze(n)stezen/zestazuezen |
| HIRI-M | Neuan Neuazen | | | (z)euan (Z)euazen | Geuan Geua(gu)zen | | |
| HIRI-N | Neunan Neunazen | | | (z)eunan (z)eunazen | Geunan Geuna(gu)zen | | |
| HARI | | Hetsan Hetsazen | Hetsa(na)n /...(na)zen | | Gentsa(gu)n Gentsa(gu)zen | Zentsan/zetsazun Zentsazen/zetsazuzen | Zentsen/zetsazuen Zentsezen/zetsazuezen |
| GURI | | Hesku(a)n /...(a)zen | Hesku(na)n /...(na)zen | (z)eskuzen | | Ze(n)skun/zeskusun Ze(n)skuzen/zezkuzuzen | Ze(n)skuen/zeskuezen Ze(n)skuezen/zeskuzuezen |
| ZURI | Netsuzen | | | (z)etsun (z)etsuzen | Gentsu(gu)n Gentsu(gu)zen | | |
| ZUERI | Netsuen /...ezen | | | (z)etsuen (z)etsuezen | Gentsue(gu)n Gentsue(gu)zen | | |
| HÁRERI |Netsezen | Hetsen Hetsezen | Hetse(na)n Hetse(na)zen | (z)etsezen | Gentse(gu)n Gentse(gu)zen | Zentsen/setsezun Zentsezen/zetsezuzen | Zentsen/zetsezuen Zentsezen/zetsezuezen |

10) Osatizuz esaldixok:

- Irakasliak zueri martxando guztiak barkatu
- Ameriketako osabak bizikletia oparitu.....eta asko poztu giñan.
- Zoro haiziak emon..... eta neure kontura jarri naiz biharrian.
- Ugezabari ez ondo aittu eta ugalak solte laga genduzen.
- Nik gaur ospittalian daguan lagunari agertu bat egin..... eta kuadrillako txutxumutxu barrixak kontau.....
- Zuek guri atzo posturia luzatu..... eta guk gaur zueri onartu.....
- Autubatzailiak herrikan pregoia jo dabe, baiña guri ez ezertzox be galdetu.
- Basarrikan nekazen trepetxu guztiak laga.....Patxiri ortua lantzeko.
- Frontoian katedrakuak orru galantak egin.....baiña azkenian partidua neuk irabazi.
- Eta guk zer oparituko Piliri bere urtebetetzian?
- Pello Zabalak atzo neri Arantzazun esan.....gaur truxalak egingo dittuala.

- Jonek etxekuori lanpernak ekarri.....
- Nik nahikua ta larregi aguantau.....igez jantxakur hórreri.
- Gaur zuk lixibia egin.....baiña nik bixar pegoria garbituko.....
- Umetan gurasuak litxarrerixia baiño ezemon umiorri, eta oin girgilluak dantzan daroiaz.

ADITZ TRINKUA:

Eibarrerari bizittasun haundixa emoten detsen beste aditz batzuk **trinkuak** dira. Batuaz be badarabiguz, baiña Eibarren badoguz erabillera berezi batzuk. Dana dala hasieratik ekingo detsagu. Laguntzailliakiñ egin dogun moduan, oin be Indikatibua baiño ez dogu ikusiko.

Halantxik, egon, etorri, ibilli, juan, ekarri, erabilli, eruan, euki, esan(*iño, -zer diño?-), jakiñ, irudi, eritxi eta jardun aditz trinkuak landuko doguz.

Asmatizu ia zeiñ aditzi, denpora eta zen personari (nor, nor(zer)-nork edo zer- nori- nork) dagozkixen hónek formok:

| | |
|-----------|-----------|
| Gatoz | Zirudixan |
| Zoiazen | Deritxozu |
| Darabizu | Nenguan |
| Neukan | Dabiz |
| Dakixe | Dihardut |
| Ziharduan | Niñuan |
| Zagozie | Dauke |
| Genbizen | Zetorren |
| Dakarre | Doia |
| Zeritxon | Zerabixan |
| Daroiat | Zeroian |
| Zenkarren | Zekixan |
| Diñozue | Dirudizu |

NOR: EGON

| | NI | HI | HA | GU | ZU | ZUEK | HÁREK |
|-------|-------|-----------|-------|-------------|---------|--------------|---------|
| ORAIÑ | | Ha(g)o | | | Za(g)oz | | Da(g)oz |
| LEHEN | | He(ng)uan | | Ge(ng)uazen | | Ze(ng)uazien | |

1- Bokal arteko parentesietan daguana ez da ahoskatzen.

11) Hurrengo esaldixotan denporiaren aspektua txarto dago ez dogulako aditz trinkua erabilli. Jarrizu ondo:

- Zu etorri ziñanian buruko miñez egoten nintzan, baiña gero juan jatan.
- Tren geltokira heldu giñanian ez egon zan billeterik.
- Ez gara egoten hori oraiñ eztabaidatzeko gertu.
- Istripua izan zanian hárek pare-parian egoten ziran.
- Ointxe gertu egoten zarie txalupan ibiltzeko.

NOR: ETORRI

| | NI | HI | HA | GU | ZU | ZUEK | HÁREK |
|--------|-------|-------------|------------|-------|----------|---------|-----------|
| ORAIÑA | Nator | Hator | | Gatoz | | Zatozie | |
| LEHENA | | He(n)torren | (z)etorren | | zentozen | | (z)etozen |

Hurrengo esaldixotan denporiaren aspektua txarto dago ez dogulako aditz trinkua erabilli. Jarrizu ondo:

- Maltzagatik etortzen nintzela illundu zeban.
- Ointxe etortzen da izeko Maritxu!
- Uste dot egun haretan oso azkar etortzen giñala.
- Nundik etortzen zara gabeko orduotan?
- Hárek ez dira bat etortzen guk diñogunakin.

NOR: IBILLI

| | NI | HI | HA | GU | ZU | ZUEK | HÁREK |
|--------|-------------|-------------|--------|----------|-------|-----------|-------|
| ORAIÑA | | Habill | Dabill | | Zabiz | | Dabiz |
| LEHENA | Ne(n)billen | He(n)billen | | genbizen | | zenbizien | |

Hurrengo esaldixotan denporiaren aspektua txarto dago ez dogulako aditz trinkua erabilli. Jarrizu ondo:

- Gaur iñoz baiño ariñago ibiltzen naiz.
- Atzo hori makiñori ez zan ondo ibiltzen.
- Gaur parrandan gustura ibiltzen gara, baiña bixamona latza izango da.
- Gaur diru morduakiñ ibiltzen zarie, eta bixar auskalo!
- Biharrian ibiltzen ziralako ez dira etorri.

NOR: JUAN:

| | NI | HI | HA | GU | ZU | ZUEK | HÁREK |
|--------|------------|------------|-------|--------------|-------|--------------|-------|
| ORAIÑA | | hoia | doia | | zoiaz | | Doiaz |
| LEHENA | N(ind)oian | H(ind)oian | | G(ind)oiazen | | Z(ind)oiazen | |

Hurrengo esaldixotan denporiaren aspektua txarto dago ez dogulako aditz trinkua erabilli. Jarrizu ondo:

- Gaur atzo baiño bobeto joaten naiz, baiña denpora eskasa egingo dot.
- Zu Anderren billa zenbizenian, ha zure etxera juaten zan.
- Ez dot uste ondo juaten garanik, galdua gabiz bidia laga dogunetik.
- Gaurko txikiteuan oso azkar joaten zarie.
- Etxera juaten ziranian ikusi zeben Arrate.

ESAMOLDIAK(3):

- 1- Azpianian ibilli:
- 2- Baltza izan:
- 3- Bariak oratu:
- 4- Barriketa gitxi eta eurak onak:
- 5- Bata zu ta bestia ni:
- 6- Baten batekin alperrik izan/ jai egon:
- 7- Begittakua izan:
- 8- Begittan hartu:
- 9- Begixa jo:
- 10- Berbia jan:

A- Biren arteko eztabaidea batian oso iritzi kontrajarriak daudela adierazteko. B- Baten bati gogo txarra izan. C- Isilpian, bestiak konturatu barik aurria hartu nahixan ibilli, konspiratu.D- Mehatxu moduan erabiltzen da, bestia ixiltzeko. E- Gustokua aukeratu. F- Baten bat bestiak baiño estimatuago izan. G- Agindutakua bete ez. H- Harridura edo hasarria adierazteko. I- Bere izaera berezixagaitik, baten batekin jardutiak ez dabela merezi adierazteko. J- Antxitxiketan egittian gerrixan agertzen dan miña.

- 1-daukat neskatxa hori, auzoko ederrena dalako.
- 2- Rakelek euki eban bigarren umia, Benjamin, aittak eban seme.....
- 3- Neu hartzekoz beteta eta berak oindiok:.....
- 4- Bere nagusixari postua kentziarren.....
- 5- Bide erdi egin baiño lehen..... eta jarri biharra izan neban.
- 6- Kaxkurrio eta bere andria,....., beti zebizen eztabaidan.
- 7-daben jendia jarri da agintzen toki askotan.
- 8-ba! Halakua neri pasau bihar.
- 9-, eta ez desta biharrian bakian lagatzen.
- 11- Tira, tira! Juari azkar hire lekura,.....eta.

ARATUZTIAK EIBARREN

Eguen zuri egunian hasten ziran Eibarko Aratuztiak Jainkuak daki noiztik. Eguen zuri edo koko-txiki, umien eguna izaten zan bereziki. Umiak koko jazten ziran egun hontan. Arratsaldean, Untzagako plazan tanboliña egoten zan gure txikientzat. Etxerik-etxe, koko jantxitakoak ibilli ahal ziran eta bai taillarretara juan be aitak ikusi ahal izateko. Soziedadetako dantzaldiak be egiten ziran egun hontan. Horrela, adibidez, Plaza Barrixan zeguan Casino Amistaden eta baita be Kontadorekuan, Errebal kalian, “Fomento Industrial” ekoak eratuta.

Hurrengo domekan, Aratuzte Domekan, oso famatuak izaten ziran gaba hartan Untzagako Salón Teatroan egiten ziran jantzi disfrazatzeko dantzaldiak. Nahiko jende batzen zan, eta sorpresa ez txikiak be eruaten ebezen batzuk eta bestiak.

Ia domeka arratsaldian bertan Untzaga plazako dantzaldian “disfrazatzen” ziran banaka batzuek,

baiñan ez asko. Gabian izaten zan “baile de disfraces” famatua. Domeka hontan Orquesta Breton izeneko musika taldeak pasakalliak jo ohi zituan kalez-kale.

Garai batean, Aratuzte astelehenean, arratsaldez, zezena ibiltzen zan kalez-kale. Badakigu 1888gn. urtean, Udaletxeak agindu bat emon ebala ohitura hori kentzeko. Baiñan zazpi urte geruago, berriz Udaletxe edo Ayuntamentuak baimena emon eban zezenaren atzetik kalez-kale ibiltzeko. Badakigu 1896gn. urtean horrela egin zala. Gero eztakigu noraiño jarraitu eban ohitura honek.

Aratuzte astelehenean, kanpotik etorritako konparsak ibiltzen ziran gure herrian. Plaentxiakuak oso zaliak ziran etortzen. Harek kantatzen ei eben: ”Venimos de Francia, aquí hemos llegado dos aviadores y un aeroplano. Si el tiempo lo permite, tendrán ocasión de ver esta tarde la gran función”.

Aratuzte martitzetan, senar-gaia sartzen zan emazte-gaian etxian. Ez bakarrik senar-gaiak, baita be gazte asko juaten ziran neska lagunen etxietara. Eurak inbitatzen ziran –askotan nesken goguaren kontra- eta onartuak izaten ziran etxietan. Etxe askotako afaria egun hontan hau izaten zan: berakatz sopia eta arrautza bat. Sarasuaneko familian gogoratzen dira 32 alkarto zirala halako afari baten.

Aratuztietan jaten ziran peillak eta errebanadak. Peillak aixakin egiten ziran eta errebanadak ogi fotakin, esnetan bustita eta gero prijituak.

Aratuzte martitzetan batez be konparsak urtetzen eben. Gurdi moduko baten kantuan eta disfraczauta kuadrillak ibilli ohi ziran. Era askotako kuadruak errepresentatzen ebezen. Han agertzen zan, adibidez, Gedeon mariñel jantzi txikitxo batekin, txirrinbolia eskuetan ebala eta bere onduan iñudia. Han armagiñak beren lana egiten. Egun hontan kantatzen ei ziran Anbrosio Itxasok egindako bertso xelebriak be.

1902gn. urteko agirietan ,ijitxu eta galleguen konparsetaz berba egiten da. 1905. urtean, lehengo ohiturari jarraituaz, Udaletxe edo Ayuntamentuak saritu zituan konparsa eta maskaradunak. Afiladoreak, Moruak, Murga Eibarresa eta Gasteizko Estudiantina sarituak izan ziran. Aurreko urtean –1904- bi sari egon ziran 200 eta 50 pesetakuak konparsentzat, eta sari txikiaguak Maskaradunentzat.

Errepublika denporan ezagutu genduzen Ameriketara juateko hegazkin baten onduan Markano ta konpañia. Eta berdiñ Goin ta bere taldekoak nahiko barre jendeari eragiñez.

Konparsak batzen eben dirua eurentzat izaten zan. Jendea pozik egoten zan, leihueta urtenda, konparsei begira eta baita be borondate onez botatzen eutsen dirua.

Martitzetan baita be Astelena pelotalekuak egiten ziran dantzaldiak. Hain zuzen, badakigu, 1929. urtean Udaletxeak egun hartako alkilerragaitik 150 peseta ordaindu ebazela.

Horrelaxe, umore onian igarotzen ziran Aratuzteak. Ondoren, hurrengo egunean –Hauts Eguna- sartzen ziran Garizuman. Eta Garizuma oso serio eta benetan ospatzen zan. Barriketa barik.

Pedro Zelaia, Revista Eibar, 89ko otsaila.

GURE SANJUANAK

Sanjuanak gañian dirala-ta, horra gazte batek egin didan galdera: Zuen gazte denporan zelan ospatzen zenduezen Sanjuanak Eibarrren?

Egindako galderari erantzuna ematen hasteko, nik ohar hauxe egin nahi nuke, zera, garai hartako jaiak, horixe izaten zirala guretzako: jai; Gaurkoak ,berriz, zarata eta ixkanbilla. Nere gazte denpora 36garrenetik haruntz jarri beharra daukat.

Herriko jaiak neretzat hau esan nahi du, hots, Herriko Zaindariaren eguna ospatzea, eta bide-batez, beste egun arruntetan baño atsegin pixka bat gehiago hartu ahal izatea, bizpahiru egunetan. Beste egokitasun pozgarri bat ere izaten genduan, zera, gure auzoko herriean bizi ziran senide eta lagunak ikustekoa. Mutikuak giñala, ze pozik juaten giñan trenaren geltokira, nahiz San Juan bezperan, nahiz

egunian bertan. Zenbat eta senide gehiago etorri eta poz haundiagua, jai hobia.

Orain bezelatsu, orduan ere, jaiak San Juan besperan hasten ziran, elizan besperak abestuaz, eta illunabarreko jolas-aldi alaia Untzagan ospatuaz. Bai pozik juaten giñala, amamari edo lengusuren bateri eskua emonda, apalonduan, gure Herriko enparantza ederrera.

Don Poli abadia izan zan urte askuan, bere poxpolin eta dantzari talde haundiakin, jaialdia alaitzen zuana, edo behintzat, alaitasunari hasiera ematen ziona. Agintariak, Ospitaleko elizatxuan Salbia abestu ondoren, plazara hurbiltzen ziranian, Don Poliren taldeak eta Erriko Bandak, hobeto esanda, herri guztiak, San Juanen ereserkia abesten zuten.” Igaz ere San Juan zan eta aurten ere San Juan Bautista...”.

Ondoren edo inguruan, eta zezen plazan, San Juan suak eta Lasturko zezenak haien jirabiran. Hura gazte jendiaren poza! Eta dana osatzeko, suzko-erroberak eta dantza saioa Untzagan bertan, hamaikak ingurura arte. Gero danak etxera. Serenuak bakarrik kalian. Gau pasak mozoluentzako bakarrik izaten ziran.

San Juan egunian, hamarretako Meza nagusira, jende asko juan ohi zan. Meza ondoren, oso atsegingarria izaten zan, Herriko Bandak Untzagan ematen zigun eres-aldia. Gogoan dauzkagu, Irusta, Zuloaga eta abar, gure Bandaren zuzendari bikañak, eta baita beren ardurapeko musicalari asko ere.

Gero etxera amak gertatutako bazkari ederra ahogozatzera. Hiru edo lau azpilleko bazkarixa, eta beste hainbeste azken-goxoki, esne-arroza, budiña, ijito-besua...akeita, anixa eta beste zernahi litxarreri, “astalepo” egiñ arte. San juanak behiñ izaten dirala urtian da...

San Juan arratsaldeko jaialdirik aipagarrienak Astelenako pelota saioak, eta zezenak izaten ziran.

Gabian suzko erroberak eta dantzaldia, txurrogillien olio usaiñakin lurrunduta. Eta bezperan bezela, gaberdi alderako, danak etxera.

Eta zer esan San Juan bigarrenari buruz?

Ba... hau ere oso egun atsegina izaten genduala, batez ere txikijendiarentzat.

Ez nago ziur, baña, uste det, egun hontan izaten zala txirrinka-lasterketa haundia Eibarren. Urte askotan “Kanpazarko bira” deitzen zitzaison. Gerora, askoz luzeago bihurtu zan, Espaiñiako lasterketa ospatsuenetako bat izatera heltzeraño.

Arratsaldian berriz, herri-jolasak Untzagan. Aurresku eta trikitixak, gazte ta zaharrentzat. Laroiei urte inguruko bat be ikusi izan genduen, airoso asko hankak jasotzen... Eta gero, gu bezelako mutikuentzat, nahi aña jolasketa eta txapelketa antolatzen ziran.

Jolas-aldieri begira geunden bitartian, noizik behin piruli gozo bat erosteko gogua ere sortzen zitzaigun, eta han juaten giñan, mantal zuridun piruliñeruaren billa. Han ibiltzen zan inguruan, haruntz eta honuntz, txirixola antzeko eutsgaian, pirulin-ziri mordo bat sartuta, abeslari: “El pirulii, a perra chica el pirulii, de piña , coco, menta limón y aniiis, que quita el catarro y mata la lombriiiiz, el pirulii!

Apaldu eta berriz Untzagara, San Pedro egunera arte, jaieri agur egitera.

Zeruko atezañaren eguna ere Sanjuanetan sartu izan degu beti Eibarren. Egun hau jai osua izanik, kristauon lehenengo egitekua Meza entzutia izaten zan. Gero nahi aña jaialdi. Txirrindulari gazteentzat egun hontan antolatzen zan Debara juan-etorria; bai eta zerrenda edo zinta harrapatzia ere. Zer esanik ez Bandaren eres-aldia Untzagan, bazkalaurretik. Ondoren berriz, utzi eziñezko pilota jokaldiak Astelenan. Bañan nere iritziz, San Pedro eguneko jaia, arratsaldian, zezen plazan ospatzen zana izaten zala. Jaialdi hontan biltzen zan dirua Ospitxalerako izaten zan. Hrregatik plaza bete-bete egiten zan.

Don Poli abadiaren dantzari eta poxpolin taldiak ematen zioten giroa jaialdi honeri, eta hauen inguruan, era askotariko jolasak antolatzen ziran, hots, zirko antzeko ikuskizunak, gizon indartsuak, aixkora apustuak, sokatirak... Lehiaketa hontan, ondo oroitzen naiz Altza praka eta Lagun artea taldeen arteko indarketak nola kilikatzen zuten jendia.

Eta jaia amaitzeako, Eibartar peto-petuak ziran Charlot, Llopisera eta Morroiak, zezen pare batekin egiten zituzten diabrukeriak, txixa egiteraiño barre eragiten zioten jendia. Behin, zezen gizajo bateri –eta berak nahi barik!-, plazaren erdian, bizarra moztu ere egin zioten, aurretek musturra jaboiz ondo beratu eta gero.

Horrela Eibartarrak irriparra, eta barre algara be, ezpaiñetan genduzala, amaitzen genduzen herriko jaiak, gure Sanjuanak.

3. GAIXA: Herriko jaixak eta kalegirua. Ikusizuz gaixakin loturia dauken hónek berbok eta esamoldiok.

- **Atzian gelditzekua ez izan:** Bildurtzen edo lotsatzen ez danari esaten jako.
- **Aurrenengo tanboliña izan:** Jai giruan puntakua izan.
- **Aratoste ibilli:** Mozorrotu. Koko jantzi.
- **Txapliuak:** Jaixetako etxafueguak.
- **Suzko erroberak:** Su artifizialak.
- **Gabonetan keixak:** Zeozer egittiarren eskertzeko umieri egitten jakuen txantxetako eskaintza.
- **Onra-jana:** Hildakuen oriomenezko jana.
- **San Juan, San Juan, nekez etorri eta bizkor juan**
- **Gabon kantuak**

.....

- **Arda jana egiñ:** Edozeiñ atxakixakiñ egindako jana. Jan gitxi eta edan, asko.
- **Arnasa baten eran:** Trago baten eran.
- **Epetakuak egiñ:** Ordaindu barik tabernatik ospa egin. Epetan ordaindu.
- **Errondalarixa:** Gautxorixa
- **Gomitu-larrixka:** Gorakua
- **Patxarra:** Alkoholdun destilatua
- **Txorrotadia:** Txorroztadia
- **Zurrutian ibilli:** Edaten ibilli
- **Albo kargia euki:** Mozkortuta ibilli.
- **Ardaauak onak eta hobiak dira bakarrik**
- **Ajia:** Bixamona
- **Laupardia, Hordixa:** Mozkorra
- **Txitinbrizkau:** Ohitturarik ez daukanak larregi edatia.

.....

- **Anporlarixa:** Gezurterua
- **Belu:** Berandu
- **Drogosua:** Saltserua, tranposua, adarjotzaillia.
- **Duangua, jan-txakurra:** Bestien kontura bizi dana.
- **Etxekalte:** Familixiari lagundu biharrian kalte egiten detsana. Gatxizena zan Eibarren.
- **Iji ta aja ibilli:** Parrandan ibilli.
- **Iñon pekora ibilli:** Bestien kontura bizi.
- **Tutuluko estratara bialdu:** Pikutara bialdu.
- **Zirikalarixa:** Drogosua
- **Etxezulo:** Etxetik urtetzen ez dabena.
- **Txakilletan, txolan egiñ:** Narrua jo.
- **Emoten dabena:** Emagaldua
- **Apua, Apotan egiñ:** Ordainduta narrua jotzen dabena, ordainduta narrua jo.

Laugarren gaixa

FONETIKIA:**12) BERBA ALKARTIETAN SORTZEN DIRAN BEREZITTASUN FONETIKUAK:**

Ariñ irakurrizuz eskumako berba alkartiak, ia erregelia eta esateko modu jatorra asmatzen ditzun:

- “EZ” PARTIKULIA ERABILLIZ SORTZEN DIRAN ALDAKETEN GAIÑIAN:

| KASUA | ESATEKO MODU JATORRA | ZELAN IDATZI BIHAR DAN |
|---------------|----------------------|------------------------|
| ez + b= ezp- | ezpaletor | ez baletor |
| ez + d=..... | | ez dator |
| ez + j=..... | | ez jakixat |
| ez + l=..... | | ez leuke |
| ez + n =..... | | ez noia |
| ez + z=..... | | ez zan |

- “BIHAR” PARTIKULIA ERABILLIZ SORTZEN DIRAN KONTRAKZIÑUEN GAIÑEKO ARGIBIDIAK:

| KASUA | ESATEKO MODU JATORRA | ZELAN IDATZI BIHAR DAN |
|----------------|----------------------|------------------------|
| Bihar + d- | | Bihar dogu |
| | | Bihar destak |
| | bihada | Bihar da |
| | | Bihar dok |
| Bihar + j- | bihaok/n | Bihar jok/n |
| Bihar + ko +d- | | Biharko destazue |

- ADITZ NAGUSIXA “-N”Z AMAITZEN DANIAN SORTZEN DIRAN ZENBAITT KONTRAKZIÑOREN TRATAMENTUA:

| KASUA | ESATEKO MODU JATORRA | ZELAN IDATZI BIHAR DAN |
|----------------|----------------------|------------------------|
| -n + d= Ø | | Esaten detsa |
| | | Emon detsut |
| -n + e=..... | | Esan (z)eban |
| | | Emon (z)eban |
| -n + g= | | Izaten giñan |
| -n + go + d- | emongeuat | Emongo deuat |
| | | Eingo dogu |
| | | Eruango destak |
| -n + j=..... | | Esaten jako |
| | | Etortzen jaku |
| (-n) + ko + d- | | Etorriko dok/n |
| -n + z= | | Ikusten zan |

- ADITZ AMAIERAKO BESTELAKO KASU BATZUK:

| KASUA | ESATEKO MODU JATORRA | ZELAN IDATZI BIHAR DAN |
|-----------|----------------------|------------------------|
| -t + b= p | | Ez dakit ba |
| -k + b= p | | Etorri dok ba |

- ADITZIAN BOKAL ARTIAN “D” FONEMAK JOKO BEREZIXA EMOTEN DESKU:

Berba egitterakuan galdu egitten da. Baiña jarraixan “au”, “eu”, “ei” diptonguak badagoz, ez. Idatzi, oso-osorik egingo doguz. Esate baterako:

- ikusiok/n → ikusi dok/n
- ikusiozu → ikusi dozu
- ekarriesta → ekarri desta

Baiña esan eta idatzi, bardiñ, “d” fonema galdu barik:

- ekarri deuat
- erosi dau
- segidu deixon

Idatzizuz hónek aditzok modu zuzenian. Gogoratizu berba egitterakuan forma alkartuak erabilli bihar dittuzula, beraz ahalegindu danak bihar dan moduan ahoskatzen:

- eztakitt
- izaeben
- biadabe
- ezpalitza
- eruangotsut
- ezeukan
- juangok
- etxaukat
- esatetsuet
- biakodau
- etxoiak
- erosiente
- enekixan
- joateatzu
- ezkaittuk
- jatetsak
- ezteiñ
- biozue
- elitzake
- esangostan
- izatezuan

HIZTEGIXA (4):

| | |
|--------------------|---------------------------|
| 1- Korrika | a- Berakatza |
| 2- Guraizeak | b- Ortua |
| 3- Aurkitu | c- Antxitxiketan |
| 4- Babarrunak | d- Begirakunia |
| 5- Baratza | e- Artazixak |
| 6- Begirada | f- Begittandu |
| 7- Iruditu | g- Topau |
| 8- Baratxuria | h- Bialdu |
| 9- Bezala | i- Babak |
| 10- Bidali, igorri | j- Le(ge)z, moduan |

HIZTEGIXA (4): Osatziz esaldioxok eskumako berbekiñ:

- 1- Autobusa galdu juat eta..... etorri nok.
- 2- Billa ta billa ibilli ostian ez gendunan hire ahiztiaren etxia
- 3- Hik prestaiñaz..... aurrekuan moduan eta guk glok egiñ arte jango jonau.
- 4- Hónek zorrozteria eruan bihar jittuat! ez juek bape moztutzen.
- 5- Aurreko astian....., oinguan be fafua jakanau Cantabrianian.
- 6- Antxiña ondo zaindutako..... zana, oin sasixa eta kakatza baiño ez don.
- 7- Oindiñok goizegi dala..... jakok eta hemen egon biharko juagu bixar arte.
- 8- Atzo postaz..... najetsan aindutako dana.
- 9- bota bihar badetsan paelliari, txiki-txiki eginda botaixon.
- 10- Neska ederrorrek bota destan..... total lotsatu nok

ADITZ TRINKUA:

13) NOR- NORK: EKARRI

| | NIK | HIK | HAREK | GUK | ZUK | ZUEK | HÁREK |
|-------|--------|----------|------------|---------|-----------|----------|------------|
| ORAIÑ | Dakart | Dakark/n | | Dakargu | | Dakarzue | |
| LEHEN | | hekarren | (z)ekarren | | zenkarren | | (z)ekarren |
| | | | | | | | |

1- Nor pluraleko formak (hárek) ez dittugu jarri. -z edo -ze gehittuta nahikua da.

**Hurrengo esaldixotan denporiaren aspektua txarto dago ez dogulako aditz trinkua erabilli.
Jarrizu ondo:**

- Egarri demasa ekartzen nebalako geldittu nintzan itturixan.
- Gauza larregi ekartzen dau eta dana jausiko jako.
- Zuendako txakoliña ekartzen genduan, baiña bidian eran genduan.
- Hónek gaurko haiziok ez dabe ekartzen gauza onik.

NOR- NORK: ERABILLI

| | NIK | HIK | HAREK | GUK | ZUK | ZUEK | HÁREK |
|-------|----------|-----------|-------------|-----------|-----------|-----------|----------|
| ORAIÑ | Darabitt | Darabik/ñ | | | | Darabizue | Darabixe |
| LEHEN | | herabixan | (z)erabixan | gerabixan | zerabixan | zerabixen | |

**Hurrengo esaldixotan denporarien aspektua txarto dago ez dogulako aditz trinkua erabilli.
Jarrizu ondo:**

- Atzo kotxe barrixa erabiltzen nebanian birritan gelditu jatan.
- Gaur Goñik pelotia oso gogor erabiltzen du.
- Jon! Zergaitik erabiltzen dozu halan Xabiertxo?
- Maisuak txakilletan harrapau zittuan! Jainkuari eskerrak, kondoia erabiltzen zeben.

NOR- NORK: ERUAN

| | NIK | HIK | HAREK | GUK | ZUK | ZUEK | HÁREK |
|-------|---------|------------|--------|---------|----------|---------|-----------|
| ORAIÑ | daroiat | Daroiaik/n | daroia | | daroiazu | | |
| LEHEN | | heroian | | geroian | zeroian | zeroien | (z)eroien |

**Hurrengo esaldixotan denporiaren aspektua txarto dago ez dogulako aditz trinkua erabilli.
Jarrizu ondo:**

- Loibia atzian eruaten neban bizikletatik jausi giñanian.

- Ixa urtebete eruaten zeban erre barik, eta atzoko ezkontzan pakete eta erdixa erre zeban.
- Zuk uste dozu gaur eruaten dogun kargia arriskutsua dala?
- Egun osua eramatzen dozue adarra jotzen.
- Hórrek eruaten dabe albo kargia! Eguardirako ple-ple eginda zoiazen eta oindiokan be zurrutian.

NOR- NORK: EUKI

| | NIK | HIK | HAREK | GUK | ZUK | ZUEK | HÁREK |
|-------|--------|----------|----------|---------|-------------|--------------|-------|
| ORAIÑ | daukat | Daukak/n | | daukagu | daukazu | | dauke |
| LEHEN | | heukan | (z)eukan | | Ze(un)kazun | Ze(un)kazuen | |

- 1- Tarteko U jan egitten dogu.

Hurrengo esaldixotan denporiaren aspektua txarto dago ez dogulako aditz trinkua erabilli.
Jarrizu ondo:

- Buruko miña eukitzen neban eta ez nintzan kontzertura juan.
- Egittekoren bat egitteko gogua eukitzen du gaur.
- Gaillurreraiño igotzeko asmua eukitzen genduan, baiña izoztuta zeguan.
- Gogorik eukitzen ez badozue , ez zaittie etorri.
- Hórrek bixok dirurik eukitzen ez zebenez, danon artian ordaindu genduan.

ZER- NORK : *IÑO (ESAN)

| | NIK | HIK | HAREK | GUK | ZUK | ZUEK | HÁREK |
|-------|-------|---------|----------|--------|--------|--------|----------|
| ORAIÑ | diñot | Diñok/n | | diñogu | | | |
| LEHEN | | hiñuan | (z)íñuan | Giñuan | ziñuan | ziñuen | (z)iñuen |

Hurrengo esaldixotan denporiaren aspektua txarto dago ez dogulako aditz trinkua erabilli.
Jarrizu ondo:

- Guzurra zala esaten neban momentuan azaldu zan benetako lapurra.
- Aurrian tokirik ez daguala esaten dau.
- Gu ados gagoz, eta zuk zer esaten dozu?
- Zarata honekiñ, ezin deutsuegu esaten dozuena aittu.
- Bai, oiñ hori esaten dabe, baiña atzo ez zeben esaten halakorik.

ZER- NORK: JAKIÑ

| | NIK | HIK | HAREK | GUK | ZUK | ZUEK | HÁREK |
|-------|--------|---------|-------|--------|--------|-------------|-----------|
| ORAIÑ | dakitt | Dakik/n | daki | dakigu | dakizu | dakizue | |
| LEHEN | | hekixan | | | | Ze(n)kizuen | (z)ekixen |

Hurrengo esaldixotan denporiaren aspektua txarto dago ez dogulako aditz trinkua erabilli.

Jarrizu ondo:

- Nik jakiten neban atzoko partidua ez zana amama izango.
- Jon anporlari hutsa zana jakiten zeban Mirenek.
- Danok jakiten genduan epaillien erabagixan ariapekua eta irutxurra egon zana.
- Zuk bakarrik jakiten zenduan Joxek arrio egingo zebana.
- Hárek ez dabe jakiten ipurdixari erregiaren arpegixa be esaten jakona Eibarren.

ZER- NORK: IRUDI

| | NIK | HIK | HAREK | GUK | ZUK | ZUEK | HÁREK |
|-------|----------|-----------|-------|----------|-------|-----------|-------------|
| ORAIÑ | diruditt | Dirudik/n | | dirudigu | | dirudizue | |
| LEHEN | | | | | | | (z)irudixen |

Hurrengo esaldixotan denporiaren aspektua txarto dago ez dogulako aditz trinkua erabilli.

Jarrizu ondo:

- Arratek Mireni sapua detsala iruditzen dau.
- Dana baltzez margotuta txirtxilla iruditzen dozu.
- Halako aboziñaukerixak egitten zittuan eze burua juan jakola iruditzen zeban.
- Danok alkarrrekiñ hasi eta amaitzen dabeanian Berligo Filarmonikia iruditzen dabe.

ZER- NORK: JARDUN

| | NIK | HIK | HAREK | GUK | ZUK | ZUEK | HÁREK |
|-------|-----------|------------|-------|-----------|-----------|-------|-----------|
| ORAIÑ | | Diharduk/n | | dihardugu | diharduzu | | |
| LEHEN | niharduan | | | | | | ziharduen |

Hurrengo esaldixotan denporiaren aspektua txarto dago ez dogulako aditz trinkua erabilli.

Jarrizu ondo:

- Gaur goizeko bostetatik jarduten dut biharrian.
- Kasko barik eskalatzen jarduten du, gaurko eguraldixakin traba egitten detsala esanda.

- Jakin leike zertan jarduten dozuen danok alkarri begira?
- Arratsalde osuan pijo ikasten jarduten dute.
- Ez dakitt zertan jarduten zeban momentu haretan, baiña danok bildurtu gintuan.

ZER- NORI- NORK: ERITXI

| | NIK | HIK | HAREK | GUK | ZUK | ZUEK | HÁREK |
|-------|----------|------------|-------|-----------|-------|-------------|----------|
| ORAJÑ | | Deritxok/n | | deritxogu | | deritxozue | deritxue |
| LEHEN | neritxon | | | | | (z)eritxuen | |

**Hurrengo esaldixotan denporiaren aspektua txarto dago ez dogulako aditz trinkua erabilli.
Jarrizu ondo:**

- Oso ondo erizten detsat zuek esandakuarri.
- Jonek garestiegixa erizten detsa etxe barrixari.
- Oiñ arte ez zara isildu, baiña benetan zer erizten detsazu?
- Gure aitta-zanak samurregixa erizten zetsan gure bizimoduari.

OHARRA:

Kontuan hartu **ari izan** Eibarren ez darabigula. Bere ordez, **jardun, ibilli eta erabilli** darabiguz. Eibarreraz hónek hirurok eta ***iñō (esan)** oso garrantzitsuak dira.

Konparaziño baterako: Zertan **ari haiz** gabeko orduotan?

- Eibarreraz halan esango dogu:
- Zertan **diharduk** gabeko orduotan?
 - Zertan **habil** gabeko orduotan?
 - Zer **darabik** gabeko orduotan?

ESAMOLDIAK(4):

1- Beruana kendu:

2- Bolo- bolo ibilli:

3- Burua galdu:

4- Burutik behera kaka egiñ:

5- Buskan ibilli:

6- Danari emonda bizi, ibilli:

7- Epetakuak egiñ:

8- Demandan egiñ:

9- Drogia atara, egiñ:

10- Ederra sakatu:

A- Ordaindu barik iges egiñ. B- Badaezpadako gauzen atzetik ibilli. C- Istilluak sortu, jokuan trantzia egiñ. D- Ezeren ardura barik, badaezpadako gauzeta larregi sartuta bizi. E- Engaiñatu, zirixa sartu. F- Gogor eztabaidatu. G- Baten bat larregizko konfiantzia emotia. H- Entzundakua esajeratua dala eta ez jakola kasurik egiñ bihar adierazteko. I- Zoratu. J- Gauza bat denen ahotan ibilli.

- 1- Oiñ be ha zerbaitten ondorik.
- 2- Aurreko tabernatik datoz, hamen beste bat egitteko asmuan.
- 3- herri guztian ezkondu egitten zarala aberats bategaz.
- 4- Jokuan, galdu bihar ebala konturatzen zanian,
- 5- Harek esaten dabenari bihar jako beti.
- 6- detsa emaztiari, balixo ez daben milla pezetakuakîñ.
- 7- Tontua zalakuan barre egitten gentsan eta oiñ berak desku.
- 8- Loterixan lehenengo premixua atara ebanetik,
- 9- Seme-alabak be ez dittu gogoratzen,
- 11- Andra-gizonak, urtebete ez ondiok ezkondu zirala ta.

OKTUBREKO REBOLUZIÑUA EIBARREN

1934.eko urriaren laua zan. Toribio Etxebarria, Donostian, bere partiduko agintariekin erabaki ondoren noiz hasiko zan iraultza edo reboluziñoa, Melitonaneko tabernan, Untzagan, alkartu zan Juan de los Toyos, Jacinto Galarraga, Enrique de Francisco sozialista gaztien buru zana eta Felix Arrregirekin. Une hartan erabaki zan hurrengo egunian, hillak 5, goizeko lau t'erdietan hasiko zala matxinada.

Arratsaldeko 6retan alkartu ziran baita be, Casa Puebluan, 21 sozialista egin nahi ziran ekintzen arduradunak. Jose Iñazio Etxeberria botikarixua hasi zan, hango biblioteka onduan, botilla explosibuak gertatzen. Era berian, Jazinto Galarraga, ALFAn jardun zeban han gordeta eukezen armak banatzen. ALFAn bertan be kargatzen hasi ziran kanposantuan gordeta euki ebezen bonbak.

Hola gauzak eratuta, goizeko lau t'erdietan entzun ziran lehenengo tiruak guardiazibilen kontra Errebal kalian. Hauek be organizatzen hasi ziran eta badezpada STAR fabrikan, kartelan aurrez-aurre zeguana, sartu ziran. Berihala, baiña, goi aldetik, kuartela atakatzen ezkertarrak gogortu ziran. Era berian, ezkertar talde bat Tieme alemanaren etxera heldu zan eskatuaz bere Matxariko almazen haundian zeguazen milloia bat kartutxoren jabe egitia. Tieme, jantzitzen zan bitxartian, telefonoz berba egiñ ahal izan zeban guardiazibilekin. Orduan, hauek heldu ziran estaziño ondora eta han tiroketa sortu zan. Momentu honetan hil zeben tiroteuan Sebastian Landa eta oso estu zaurittuta gertau zan Aitor Orueta. Gitxi gorabehera, ordu berian, iraultzailliak sartu ziran probaderuan, hango armekin jabetuaz. Hantzen, deskuidoz, hil zan 19 urteko Pedro Gerrikabeitia gaztia. Goizeko zazpirak inguruan bazoian Eibarko karlisten buru eitzen zeban Karlos Larrañaga mezatarra, eta Ardantzako Zubixa pasau ondoren, tiroz hilla izan zan. Baita be guardiazibilen tiroz hilda geratu zan kuartel inguruan zeukan hegazti txabolara zoian Matias Biteri.

Goizeko zortziretan heldu ziran Bilbotik Isasi ingurura asaltoko guardixak. Ezkertarrak Armeria Eskolan zegozen eta tiroka hasi ziran haien kontra. Guardixetako bat hil eta lau eritzuta gertau ziran. Goiz guztian, Armeria Eskola ingurua amaigabeko tiroteo baten egon zan. Florentino Vazquez, Armeriko tellatuan zeguana, hantxe bertan tiroz harrapatu eta lurrera erori zan hilda.

Eguardi inguruan, asaltokuak eta guardiazibillak, treneko makiña baten, Eibarren sartu nahi izan zuten, baiñan udaletxetik jaurtittako tiruekin atzeruntz egin bihar izan zeben. Guardiazibillak, Untzagan sartzeko asmuetan, Kalbeton kalian sartu arren, atzera bueltatu ziran hango etxietatik tiroz gogor erasotuak izan ziralako.

Bestalde, Gasteiztik bazetozen soldaduak matxinada emetatzera. Hola gauzak, iraultzailliak errenditzeko asmua hartu zeben. Orduan Toribio Etxebarria eta Agapito Etxeberria komunista, zapi zurixakin hau, abiatu ziran kuartelera. Han, Garrigos nagusiaren aurrian, errendittu ziran. Toribio Etxebarria giltzapetu zeben eta beste asko berakin. Ahal izan zebenak iges egin zuten....)

Matxinada hau zala-ta, 172 eibartar eraman zituzten Iruñako kartzelara. (...)

Febreroko hauteskunde edo eleziñuetan ezkerrak irabazole urtenik, danak askatu zituzten.

Pedro Zelaia, ...eta kitto! 93-XI-12.

ESNATU, ESNATU, REPUBLIKIA ETORRI DOK ETA!

Halakotxe berbekin esnatu ziran oin dala 69 urte eibartar guztiak. 1931ko apirillaren 14a zan eta Eibarko herrixak republikia aldarrikatu zeban, beste edozien herrik baiño lehenago. Egun hori zuzen-zuzenian bizi izan zeben lau lagunekin jardun dogu, Eibarrendako hain haundixa izan zan egun ha gogora ekartzeko: Secundino Loidi, Nieves Marzana, Salvador Marzana eta Candido Egurenkin.

Hau ipuiñau 1931ko apirillaren 12xan hasi zan. Domekia, egualdi ona eta Udal hauteskundiak. Alkatia

aukeratu bihar zan, baiña bide batez, herrixak erregia beran aulkittik kentzeko aukeria ikusi zeban eta danok juan ziran botua emotera, “seguru geuazen herri haundixetan republikian aldeko partiduak irabazi ezkero erregiak alde egingo zebala” diñosku Candidok.

Aurreko urtiak nahiko gogorrak izan ziran: Afrikako gerria, krisi ekonomiko latza eta jendia higoinduta. Secundino eta Salvadorren ustez “republikia derrigor agertu bihar zan. Herixa aspertuta zeguan, ekonomixia eta jendian arteko girua ez ziran onak, eta herrixak aldaketia nahi zeban”.

Hauteskunde gabian hasi zan jaixa, eta jairik haundiña “Centro Republikanuan” eta sozialisten “Casa del Puebluan”. Bertako espillu haundi baten ipiñi zittuen lehelengo datuak: Eibarko udaletxerako, sozialistak 9 zinegotzi, republikanuak 7 eta abertzaliak 1; monarkiko eta karlistak, bapez. Handik gitxira hasi ziran telefonuak zarataka eta pizkaka-pizkaka beste herri eta hiri batzuetako barriak be hasi ziran heltzen. “Hi! Bilbon be irabazi egin juagu! Eta Donostian be bai!”. Casa del Puebla jendez gaiñezka; danak pozik eta kantuan, Marselesia amaittu eta Internazionalakin hasi. “Gu gaztiak giñuazen, 12 urte inguru, baiña guretzat be egun haundixa izan zuan”.

Gabeko 12xetarako garbi zeguan herri haundi guztietaen republikaren aldekuak irabazi zebela, bai Bilbon, bai Madrilen, bai Bartzelonan... “Untzaga plazia jendez jositta, jai egunetan moduan eta Astelena frontoian jendia dantzana eta kantuan” gogoratzen dau Candidok “Gu Casa del Pueblo frontoira juan eta hasi giñuazen danok ¡Viva la República! gora eta behera”. Udaletxerako hauteskundiak ziran, baiña jendiak bazekixan zer esan gura zeban harek: erregiak alde egin biharko zeban eta republikia ate joka zetorren.

“Bixamona, astelehena (apirillaren 13a), lan eguna zuan, baiña lan gitxi egin zan egun haretan! Jendia zain jeuan ia erregiak noiz esango ete zeban bazoiala!”. Jendia tabernetan, biharlekuetan eta kale baztarretan barriketan, Alfonso XIII erregiak egingo zebanaren zain. “Eta erregia ixilik”. Danok republikia etorriko zalakuan, baiña oindiok Madrildik barririk ez. “Eta holan juan giñuazen ohera. Zain. Zain eta nerbioso.”

Martitzenian, gaur 69 urte, eguzkixa epel-epel esnatu zan, indar haundixakin, sasoi barrixa zetorrela eta bera be indar barrittuta. Eta eguzkixakin batera heldu ziran arraindunen kamioiak Donostia aldetik. Badirudi, arraindun batek Eibartik pasatzerakuan Juan de los Toyos republikazale amorratuaren etxera juan eta erregiak bere lekua laga zebala aittatu zetsala. Arraindunak benetan hori esan? Ala eibartarrak, republikia noiz helduko amorratzen, eurak nahi zebena entzun? Ez dogu sekula jakingo, baiña minitu gitxian eibartar guztiak urten zeben kalera. Etxerik etxe eta aterik ate, hegaztada bizixan zabaldu zan notizia eibartar guztiongana “Jaiki! Jaiki! Republikia etorri dok eta!” entzutzen zan etxebarru guztieta. “Konfusiuña izan zala esaten juek. Toyosek gaizki aittu zebala. Edo nahi zebana entzun zebala. Baiña hantxe urten genduan danok kalera goizian goiz”.

Eibartarrak nun batuko eta erregiaren izena zekan plazan, Alfonso XIII plazan (gaur egun Untzaga). Egun bi lehenago eibartarrak aukeratu zittuen zinegotzi guztiak be hantxe alkartu ziran, udaletxera sartu eta goizeko zazpирtarako republikia aldarrikatu zeben.

Ipuin honetan izen berezixa euki zebenetako bat Secundino Loidi izan zan, sasoi haretan 12 urteko ume-koskorra, “aitta udaletxeko konserja zuan eta berak esan jestan zentro republikanora juan eta handik banderia ekartzeko. Nere anaia eta ni juan giñuazen eta holan ipiñi juen banderiori udaletxeko balkoian”. Goizeko zazpirak besterik ez eta Eibarko herri osuak garbi erakutsi zeban republikaren aldeko asmo eta gogua. Candidok ez daka dudarik: “proklamaziúna udaletxeko bateron batek egingo juan, baiña benetan eibartar guzion biarra izan zuan republikia etortzia”.

Orduan agertu ziran, horraitxiok, lehelengo nerbixuak: Bilbo eta Donostiako trenak Eibarrera heldu ziranian republikaren barririk ez; egunkarixak be heldu ziran eta republikaren izenik ez titularretan. “Eibar izan zuan lehelena, beste guztien aurretik eta jendia larritzen hasi zuan. Zer pasauko ete dok hamen? Bakarrak izango ete gaittuk?”. Ordu gogorrak izan ziran, baiña zorionez, eguardirako jakin zeben Barcelonan be aldarrikatu zala republikia eta pizkat geruago Madrilen. Erregiak hanka egin zeban

Frantziara eta azkenian lasaitasuna.

Ez zan asko bihar izan, monarkixiari gelditzen jakon gauza bakarra be kentzeko, plaziaren izena: bonberuen kamioia plazara sartu, izen zaharra kendu eta barrixa (Republikaren Plazia) ipiñi jakon arratsaldeko 5ak inguruan. “Astirik ez zeuan barrixa egitteko eta kartoizkua ipiñi zetsen. Orduan bai jendian txaluak, zaratak eta aujixak, erregian izena goittik behera jausten ikusterakuan!” gogoratzen dau Nievesek.

Holaxen izan zan ba, Eibar, republikia jaixotzen ikusi zeban lehelengo herrixoa. Eta holaxen onartu zeban Alcalá Zamorak, republikako lehelengo presidentiak, Eibarrera etorri zanian: “ si San Sebastián fue la cuna de la República, aquí (Eibarren) pasó su infancia, aquí dijo sus primeras palabras y por tanto nació”.

Itziar Alberdi eta Asier Sarasua,...eta kitto! 2000-IV-14.

1937- IV-26: EIBAR HARTUTA

Eibarko bonbardeuaren ta sutiaren 60. urteurrena betetzen da egunotan. Horren inguruko informazioña jasotzeko, Antxon Etxeberria ta Juan Manuel Vázquez gaztiengana jo dogu. Izan be, hónek eibartar bixok gerra zibillaren gaiñeko lan sakona egitten dihardue.

Antxonen ta Juan Manuelem informazioaren arabera, 1936ko iraillian frentia geldittuta egon zan. Francoren tropak Gipuzkoa osua hartuta zeken ordurako, Eibar ta Elgeta izan ezik. Intxorta mendixaren inguruan erresistentzia eratu egin zan. Akondiaren ingurueta Amuategi batailloia egon zan, frentian. Prian, metro batzuetara, Francoren tropak.

Iraileetik martxua amaittu arte holan segidu zeban gauziak, Eibarren zeguan jente gitxixak eguneroko bizimodu egiten zeban. Jenerua Bizkaia aldetik etortzen zan, Eibartar morduak, badezpada, hanka egin zeben ta Eibar ixa hutsik geldittu zan. Taillarrak Bilbo ingurura eruan zittuen. Halan ta guzti, dantzaldixa egoten zan astian bittan ta zinian pelikulak botatzen zittuen.

Francok indar gehixenak Madril hartzeko erabilli zittualako egon zan horren beste denporatan hemengo frentia geldi. Baiña Espainiako hiriburua hartzia gehixago kostauko jakola konturatu zanian, ta Peninsulako iparraldeko burdiñaren ta ikatzaren premiñia sentitu zebanian, gauzak aldatu egin ziran. 1937ko martxuaren 31n Bizkaia hartzia ekin zetsan Francok. Bonbardeuak hasi egin ziran. Hori dala ta, aurreko hillabetietako “lasaitasuna” bertan behera geldittu zan. Apirillian tropa nazionalen abioiak Eibar gaiñetik pasatzen ziran. Estrategia argi zeguan: artilleria ta abioiekiñ ingurua garbittu nahi zeben, gero infanteria pasatzeko.

Ta halan izan zan. Errepublikaren aldekuak ez zeken atake horri aurre egitteko prestakuntza nahikua. Apirilleko bigarren hamabostaldixan bonbardeuak izan ziran. Erreka-zulua aprobetxauta, refujixuak egin zittuen. Harezko zakuak, esate baterako, Untzagako musika kioskuaren arkupietan ipiñi zittuen, jentia han gordetzeko. San Andres elixako kanpandorrian sirenia zeguan, jentia abisatzeko.

Apirillaren 24ko “la lucha de clases” argitalpenian Eibarren egondako bonbardeo baten barri emon zeben. Baiña orduan egunian izan zan Eibarko bonbardeoriik latzena. Jentia refujixuetan sartu zan, baiña danak ez zeben handik urtetzia lortu.

Gaur egun Arrate Hotela dagon lekuaren inguruan, erreka-zuluan refujixua egon zan. Hildako mordua izan ziran han, Cándido Eguren orduan sasoian juzgaduko idazkarixa zan ta berak egin bihar izan zeban han hildako jentiaren zerrendia. Hogei izan ei ziran. Halan ta guzti, askoz gehixago izan zirala esan detse beste eibartar nagusi batzuk aldizkari honi. Izan be, O’Donell kaleko refujixo horren gaiñian jausittako bonbiak 500 kilo zekazela diñue.

Horrekin batera, herrixaren erdialde guztia lur iota geldittu zan. Erabat. San Andres elixiari ez jakon ezer be gertatu, baiña parrokixiaren ingurua oso hondatuta geldittu zan, Indalecio Ojanguren edo Marinen argazkietan ikusi leikian moduan. Piparkale, Arraindikale, Barrenkale, Placido Zuloaga,

Bidebarrieta ta Ibarkurutzia birrinduta gelditu ziran. Arrateko elixiak be kalte haundixa izan zeban; dana dala, Amabirjiñari ez jakon ezer pasau, milizianuak Amabirjiña ospittalian gorde zebelako.

Apirillaren 24ko bonbardeuaren ostian, Eibar sutan egon zan. Antxon Etxeberria ta Juan Manuel Vazquezek egindako lanian agertzen dan informaziñuaren arabera, sua sortzen zeben bonbak bota zittuen abioietatik. Baiña orduan egunian Eibarren egondako lekuko batzuk diñuenez, ez zan halako bonbarik izan. Mola jeneralaren tropak sua emon zetsen herrixari, behin Eibar hartu ta gero. Era guztietara, Eibar zihera erreta gelditu zan.

Hurrengo egunotan, propaganda ikaragarrixka egin zan. Eibar gorrixak erre zebela esan izan zeben. Tebib Arrumi gatzizeneko kazetarixak emondako parte baten horixe esaten zan, milizianuak emon zetsela su Eibarko etxe ta lantegixeri.

Tropa Nazionalak apirillaren 26xan hartu zeben herixa. Arrate aldetik karlistak bajatu ziran; Elgetatik, marrokiarrak; Maltzagatik, Flechas Negras izenkuak, naparrak gehixenak. Mola ta Solchaga jeneralak bertara heldu ziran, gaiñera. Argazki batzuetan ikusi leikianezi, Franco bera be Eibarren egon zan.

Batzuk hanka egin zeben Bizkaira. Arrate inguruan 600 bat miliziano egongo ziran. Horrek be ospa egin zeben, Gernikan kontzentraziñua zekelako. Baiña Gernika 26xan bonbardeau zeben.

Eibar ta Bizkaiko zatirik haundiñña hartu zebenian represiño neurri gogorrak hartu zittuen. Antxon eta Juan Manuelek aztertutako datuen arabera, maietzaren 3rako udal frankistia antolatuta zeguan.

Hainbat leku ta kaleren izenak aldatu egin zittuen. Udaletxeko funzionarixuak ta eskoletako irakasliak bota egin zittuen euren lanpostuetatik. Euskeriaren kontrako arauak ezarri zittuen.

Baiña, horrekin batera, Francoren Gobernuak gerran ibillitakuen kontrako represiñua ipiñi zeban martxan. Milizianueri kartzela edo heriotz zigorra ezarri jakuen. Ley de Responsabilidades Políticas izeneko legia indarrian sartu zan. 1934ko urriko reboluziñuaren aldeko mogimenduan parte hartu zebenen kontrako juiziak egin ziran, nahiz eta kartzelan egonda gero amnistiatuta egon. Jente asko egon izan zan Eibarren 1934ko reboluziñuan sartuta. Dana dala, diligentzia mordua zabaldu zan jente askoren kontra, baiña espediente asko bertan behera laga zittuen.

Oier Narbaiza,...eta kitto! 97-IV-25.

4. GAIXA: Politikia. Ikusizuz gaixakin loturia dauken hónek berbok eta esamoldiok.

- **Ariapekua:** Irutxurra, entxufia.
- **Bai-bai jendia, Amen-amen jendia:** Agintzaillien kontra egitten ez dabentzat jendia.
- **Baietzian, ezetzian egon**
- **Ausartasuna**
- **Adoria**
- **Berbia emon, jan:** Ziñ egiñ, ziñez bete
- **Irutxur**
- **Erremia:** Porrokatua, amorratua, sutsua.
- **Garbatu:** Damutu
- **Giro ez izan:** Giro txarra egon, istilluak egon.
- **Gizajua/Koittaua:** gizonezkuari/ andrazkuari

- **Gorrixak ikusi:** Egoera larrika igaro.
- **Harramarria:** Burruka, istillua, eztabaidea.
- **Ipur garbitzaillia**
- **Morroillopian sartu:** kartzelan sartu.
- **Neguko madarixak, Txapelokerrak:** guardiazibillak

Bosgarren gaixa

HIZTEGIXA (5):

- | | |
|-------------------|--------------------------------------|
| 1- Langilea | a- Lapikua |
| 2- Bikaina | b- Esegita, txingilizka |
| 3- Aparra | c- Fafua |
| 4- Eltzea | d- Puntarengua, puntakua |
| 5- Erori | e- Eskuma |
| 6- Eraman | f- Jausi |
| 7- Zintzilik | g- Konparaziño/esate baterako |
| 8- Adibidez | h- Eruan |
| 9- Eskubi, eskuin | i- Bitsa |
| 10- Oturuntza | j- Bihargiña |

HIZTEGIXA (5): Osatzuz esaldioxok eskumako berbekiñ:

- 1- Hemengo errebueltan txirrindulari askodittuk olixua zegualako.
- 2- Gaur Astelenan.....partiduak dagonaz eta posturatxo bat egingo jonagu.
- 3- Zelan ez zeskuan ba esniak gaiñezka egingo?,tapau barik jeguan, barren!
- 4- Nik argittuko deunat: pentsaiñ,....., zenbaki bat.
- 5- Banajoian antxitxiketan etxera! Zaparradia bota bihar jon eta erropia.....jaukanat.
- 6- Begiratin zelan datorren Ego errekia,.....eta zikinkerixa baiño ez dakarrela.
- 7- Girgilluak disimulau ezinda nabiñ eta bixar Ixuanian sekulakofafua jaukanagu.
- 8- Bardin jatan hire nobixua zatarra, txikixa edo pobria izatia, baiña.....izan deilla.
- 9- Elgetara juateko? Hartik hurrengua eta gero dana zuzen.
- 10- Bart etxian lapurretan sartu jakunaz eta harrapau daben guztia.....jone.

ADITZA:**BALDINTZA, ONDORIXUA, AHALEZKUA, SUBJUNTIBUA ETA AGINTERA.**

Aditz laguntzailliaren kasuan, **indikatibua** ondo ikasi biharko dogu, bertan oiñarritzen dalako gehixenbat ahozko komunikaziñua. **Bestelako formak (baldintza, ondorixua, ahalezkua, subjuntibua eta agintera)** gero eta gatzago eta arraruaguak egitten jakuz, ixa entzuten ez doguzelako. Horren guztiorren errezoia zera da, berbetan diharduanak komunikaziñuan erosotasuna eta erreztasuna lortu nahixan **modu berri batzuk** asmatzen dittuala **gauza bera esateko**. Dana dala, zenbat eta modu gehixago gauza bat esateko, (aditz formiakin edo ordezkuakin) orduan eta euskera aberatsagua izango dogu, horregaitik indikatibokuak ez diran formarik erabilixenak be ikusiko dittugu.

Banan-banan aztertuko doguz hónek aukerok:**BALDINTZA:** Aberatsa izango **BANINTZA...**

- Ordezko aukera batzuk: - aberatsa izan **EZKERO...**
- aberatsa **izaTERA...**(Eibarko forma jatorra)
- aberatsa **izanda...**

ONDORIXUA: ...urte osuan zihar bidaiatzen ibilliko **NINTZAKE**.

Gramatika aldetik aditz forma zuzen bakarra jarri doguna da. Baldintza lehen aldikua bada ondorixuan **lehenaldiko indikatibua** jarri geinke:

Aberatsa izan banintza urte osuan zihar bidaiatzen ibilliko **nintzake / nintzan**.

Baiña **kaleko berbetian** forma hau be **oso zabalduta** dago: Aberatsa izango banintza urte osuan zihar bidaiatzen ibilliko **nintzan** (**baldintza hipotetikua da baiña ondorixua indikatiboko lehen aldikua**).

Dana dala, baldintza eta ondorixuaren formarik erabilixenak ikusiko doguz, hau da, NOR eta NOR-NORK:

NOR:

| | NI | HI | HA | GU | ZU | ZUEK | HÁREK |
|----------|----------|----------|---------|-----------|-----------|-------------|--------|
| BALDINTZ | banintza | bahintza | balitza | Bagiña(z) | Baziña(z) | Baziñaz(i)e | Balira |
| ONDORIX | nintzake | hintzake | litzake | Giñake(z) | Ziñake(z) | Ziñakie(z) | lirake |

NOR-NORK: singularra

| | NIK | HIK | HAREK | GUK | ZUK | ZUEK | HÁREK |
|----------|-------|-------|-------|---------|---------|----------|--------|
| BALDINTZ | baneu | baheu | baleu | bagendu | bazendu | bazendue | balebe |
| ONDORIX | neuke | heuke | leuke | genduke | zenduke | zendukie | leukie |

NOR-NORK: plurala

| | NIK | HIK | HAREK | GUK | ZUK | ZUEK | HÁREK |
|----------|---------|---------|---------|----------|----------|-----------|---------|
| BALDINTZ | banittu | bahittu | balittu | bagenduz | bazenduz | bazenduez | balebez |
| ONDORIX | neukez | heukez | leukez | gendukez | zendukez | zendukiez | leukiez |

AHALEZKUA: Arratera oiñez juan **GEINKEZ / GEINKEZEN**

- Ordezko aukera batzuk:**
- Arratera **juan ahal gara/ giñan**
 - Arratera oiñez **juatia badaukagu/ bageunkan**

Oharra: Gogoratu batuan ahalezko, subjuntibo eta aginteraren aurrian partizipio markarik ez dana jartzen, baiña eibarreraz bai. Batuaz: ikus daiteke, neka gaitezen, isil hadi. Eibarreraz: ikusi leike, nekatu gaitian, isildu hari.

Ahalezkorik erabilixenak hónek dira, NOR eta NOR-NORK formak:

AHALEZKUA: NOR

| | NI | HI | HA | GU | ZU | ZUEK | HÁREK |
|-------------|----------|----------|---------|-----------|-----------|------------|----------|
| Ora.-hipot. | Neinke | heinke | leike | geinkez | zeinkez | zeinkiez | leikez |
| lehena | Neinkian | heinkian | zeikian | geinkezen | zeinkezen | zeinkiezen | zeikezen |

AHALEZKUA: NOR-NORK. (singularra/plurala)

| | NIK | HIK | HAREK | GUK | ZUK | ZUEK | HÁREK |
|-------------|---------------|-------------|--------------|---------------|---------------|---------------|--------------|
| Ora.-hipot. | Neike/z | Heike/z | Leike/z | Geinke/z | Zeinke/z | Zeinkiez/z | Leikiez/z |
| lehena | Neikian /ezen | Heikian/zen | Zeikian/ezen | Geinkian/ezen | Zeinkian/ezen | Zeinkien/ezen | Zeikien/ezen |

SUBJUNTIBUA: Zabaldu atia, sukaldian haize apur bat sartu **deiñ**.

- Ordezko aukera bat:** - Zabaldu atia, sukaldian haize apur bat **sartzeko/ sartu ahal izateko.**

| | | | | | | | |
|-------------------------------------|-----|--|--|--|--|--|--|
| | | | | | | | |
| Subjuntiboko formarik erabilixenak: | NOR | | | | | | |

| | NI | HI | HA | GU | ZU | ZUEK | HÁREK |
|--------|------|-------|------|----------------|----------------|-----------------|---------------|
| ORAIÑA | naiñ | hariñ | deiñ | Gaittian/ezen | Zaittian/ezen | Zaittien/iezen | Deittian/ezen |
| LEHENA | neiñ | heiñ | zeiñ | Geinttian/ezen | Zeinttian/ezen | Zeinttien/iezen | Zeittian/ezen |

14) Baldintza, ondorixua, ahalezkua eta subjuntibuaren ordezkuak erabilli hónetan esaldixotan:

Maider kalera gehitxuago urtengo balitza lagunekiñ hobeto moldauko litzake.

Motxila barik ariñago joan zeinkez.

Eguerdirako bertan egon geinttezela agindu zeskuen.

- Geltokixan sasoiz agertu bahintza heu be txangora joango hintzake.

- Lagaidak bakian Txomin, hau biharrau bakarrik egin neikek, barren!

- Eurixa etorri deiñ da basarrittarrak nahi dabena.

AGINTERA: Bizittasun izugarrixa emoten detsa aginterak geure jardunari, horregaitik ahalik eta gehixen erabilliko dogu, gehixenbat hittanuan. Askotan aditz nagusixa baiño ez darabigu, baiña hobe da osua erabiltzia: Isildu! / Isildu hari!

Hónek aginte formok identifikaizuz (aditza, personak...) eta egizu esaldi bana:

Esairazu

Begiratik

Kontaigun

Arreglaidak

Jasoidak

Egonari

Lagaidak

Eiñik

Eixok

Botaik

Esaiguk

Hartizu

Juari

Amataiñ

Ekarridak

ESAMOLDIAK (5):

1- Firin-faran ibilli:

2- Gibela(k) euki:

3- Hilletia jo:

4- Pasaria, ipurdiko ederra hartu:

5- Kabidu eziñik ibilli:

6- Kakuak etara:

7- Kontuak egiñ:

8- Koskabilluak zimurtu:

9- Musturtuta, musturrekiñ ibilli:

10- Oriatua egon:

A- Zerbaiti daukan baiño arazo edo eragozpen gehixago ikusi. B- Hasarre egon. C- Oso patxada haundikua izan. D- Umieri gozo berba egiñ, jolastu..E- Eguraldi laiñotua egon F- Oso harrotuta ibilli. G- Egundoko bildurra pasau. H- Asko kejau. I- Galdu, kolpe haundia jaso. J- Zeregiñ ezian ibilli.

1- Gura daben moduan bizi da eta halan da guzti be, beti

2- Aitzen emon desta andria(k) kanpotik naizelako, eta piparrak daroiadaz, honekiñ hobiak izaten dirala ta.

3- Automobil barrixa erosи dabenetik

4- Etxera etortzen danian lehenengo zeregiña, umiari

5- dabill hara ta hona, gauza onik egin barik.

6- eta ezingo gaittuk Kalamuara juan.

7- Horrek! Andria urkatzen biharrian eta bedori taberna zuluan.

8- Horrek edozeiñ biharreri baiño ez daki.

9- Koskara urten ebanian, kanpantorriari kanpokaldetik buelta bat emoteko,

10- Gaur azkoittiarrek Elgoibarko frontoian.

EIBARKO EHIZTARIAK

Ehitztariak punto y aparte ziran gure Eibar harten. Eureri esker, gure ingurueta etzegoen piztirik, ez axeri, mendiko katu, kirikixo ez eta katamixarrik. Berdin gertatzen zan hegaztiekin. Hemen ez zan ikusten arranorik, ez eta bela eta belatxingarik, lehen gure eliz-torrera hainbat aldiz etortzen ziranak. Ezta txepetxik ere. Eta hori danak etzirala, gaiñera, tiradore onak. Antxuelo bat, adibidez, txakur fiñen sortzaille izan arren, oso tiradore makala omen zan. Esaten dabe gure herrian, behin batian basarritar batek bizirik hartu ebala axeri haundi bat. Lotu eban arbola baten, Antxuelok hil zezan. Baiñan, bai zera!, bota honek tirua, apurtu bai berunak irobalia eta axerixak osasuntsu igez egin eban.

Beste batzuk, nahiz eta goizian goiz herritik urten, bota zarata haundi eta txakur talde haundiak, etziran Trabakua edo Uribenera besterik heltzen. Egun guztian ez eben ezer harrapatzen. Dana dala, jan eta edanian igarotzen eben egun gehiena. Gero, bai, etortzen ziran illuntzi aldian Kiputxa edo Iurrebasoneko tabernara eta han nahiko guzur kontatzen ebezen. Eta zelan edo halan erbi edo eperren bat hartu ebenak, han alkartzen ziran talde haundi baten, nahiz eta gitxiña tokatu, erbi-jan edo eperjanian.

Beste batzuk, nahiz eta hainbeste zarata atara ez, juaten ziran txiri-txiri txara txikira txoritzara eta noizean-behiñ jausten zan beren eskopeta tiropean txinbo-burubaltzen bat, eta horrekin aste guztirako nahiko zer-esan eukitzen eben.

Baziren, baiña –dana esan behar da- ehitzari onak be. Hara hemen batzuen izenak: Keridotarrak, Barojatarrak, Gaspar, Pola, eta abar. Honek Eperraneko tabernan zeukan beren tertulia.

Baita be Kiputxanian eta Iurrebasonian alkartzen ziran beste ehitzari asko, euren artian Romualdo Zaharra, Kaxildo, Txopa, Okelerre...

Baziran baita be legearen kontra keixara juaten ziranak. Egunsentian jartzen ziran aukeratutako txorikeixa egokian eta txoriak beren umetxoentzako jateko billa etortzen ziranean, ugari hiltzen ebezen. Etzan erraza hortarako leku onak eta hurrian billatzia. Horregaitik juaten ziran asko egunsentian keixara. Hara, baiña, egun baten zer egin eban Mariano Txurreruak. Heltzen zoiala txorikeixara, jausi zan kontuan beste batek aurria hartu etzala. Orduan gure Mariano, guardia civila balitz lez, hasi da berbetan: -¡Cabo Martinez, por aquí! Txorikeixan zegoanak, guardia civillak hurrian zirala pentsaturik, jetxi ei zan eta, antxintxika, igez egin eban. Orduan, Mariano igo zan keixa arbolarera eta patxaran nahiko txori harrapau ebazen.

- ¿Zelan aipatu ez Victor Sarasketak Picos de Europan hildako basurdak?

Baita Joaquin Fernandez eskopeta egille famatuak be hil eban behin otso haundi bat eta bai ekarri be Eibarrera. Han egon zan trofeo hora Zine Pabelloian danak ikusi zezaten.

Etzan harritzeko, ez, hain eskopeta on eta ugariak egiten ziran herrian ehitzari asko izatia: batzuk onak eta beste batzuk motelak. Oiñ Itziarrera juan biharko gera eskopeta eta ehitzari billa. ¡Oh mores, o tempora! Siñistu eziñeko denporak, bai. Gure aurretikoak zoratu egin gerala esango leukie.

Revista Eibar, 85eko eka.-uztailla

RAKETIA HARTU TA MUNDUA EZAGUTZERA

(...) Toni, Petri ta beste raketista askorekin akordau dira. Baiña oin dala urte batzuetako historixia kontau deskuenak, Eibarko izena hortik zihar zabaldu daben Kanpeonatoko honek androk izan dira: Avelina Zamakola, Agustina Elorza, Pepita Mentxaka, Ines Badiola, Nati Lopez "Eibarresa", Maite Gorrotxategi "Ermua", Nieves Bereziartua, Maria Luisa Larreategi "Tegi", Angelita Alberdi, Tere Nazabal "Elo II", Maria Luisa Alberdi eta Paulita Lamarain. Euren memorixiakiñ probia egin ta hau kontau deskue.

"Astelena frontoian jokatzen genduan ta, jokatu aurretik, frontoia eskobatzia tokatzen jakun. Gero, pelotiar frontoittik ihes egiten bazesun, haren billa juan bihar".

"Fernando "Tximiñua" gure entrenadoria izan da ta enkantadoria zan benetan. "Kabitzeko ikasi biozue" esanda, frontoiari neurrixa hartzeko, Elgoibarkuan be ibilli giñan".

"Guri dirua kostatzen jakun, raketiar erosi ta frontoia be pagau egin bihar zalako. Halan da guzti be, momentu libre bat euki ezkerro, pelotiarri jotera juaten giñan. Afiziñua zan guria; paretia zeguan toki guztietan jokatzen genduan".

"Pelotiar zesta-puntan edo palian erabiltzen diran antzerakuak ziran, pixkat txikixaguak, baiña fuertiak. Raketiar pe tenisekuak baiño fuertiaguak ziran ta rebotiakin jokatzen genduan. 31 metruak ziran neurririk egokixena".

"Beti zuriz ibilli izan gara, gerriko gorrixakin edo urdiñakin. Kasu bat dago, enpresa batena, blusa gorrixa ta urdiña erabiltzen ebena. Politikia zala ta, Sevillan, "rojas y azules" deitzetik "coloradas y azules" deitzera pasau giñan".

"Batzuk aurrelarixak ta bestiak atzelarixak giñan, pelotarixak moduan. Kinieletan diru asko jokatzen zan: egon dira kasuak herentzia jokatu dabena, ez berarena bakarrikan, hiru arrebena be tartian sartu dabenak".

"Publikua oso txarto portatzen zan gurekin, kinielak zirala ta ez zirala. Aldiak be badagoz frontoi batetik bestera, ta Valentzian Bartzelonan baiño gehixago sartzen ziran gurekin".

"Estatu osuan Eibarkuak giñan destakadienak, ta gero Mallabixan be kantera politta zeguan. Bartzelonako "Txiki" frontoian kanpeoi etara giñan, bai parejetan, baitta taldian be".

"Madrilen neguala 400 pezeta irabazten nittuan hillian. Año 35ua edo izango zan, ta pentsioa 8 pezeta kostatzen jakun ta hortik dirua bialdu eitten neban etxera. Etara kontuak!"

"Frontoiak Sevillan, Madrilen, Bartzelonan, Valentzian, Cordoban, Kanariasetan... zeguazen ta danetan ibilli giñan. Francoren gobernua Salamancan ta Burgosen egon zanian, hango frontoiko inauguraziñuan guk hartu genduan parte. Dirua irabazi, iñortxok pez; Mejikon ibilli ziranak igual ahorratuko zeben zeozer".

Hamalau urtekin juan nintzan Bartzelonara jokatzera; 13 ta 14 urtekiñ asko juan giñan etxetik. Brasilen kolgauta geratu ziranak pe egon ziran, eskerrak ni ez nintzala animatu, juateko toreruak baiño gehixago eskatzen nebala esan estan-da.

"57an Mejikon eta La Habanan ibilli nintzan. Baten, goguan daukat, jokatzen geuazela, zaratia haundixa zelan entzun genduan. Bonbia zan, Fidelek botatako bonbia".

"Dan danak ez, baiña asko ta asko ezkondu arte ibiltzen giñan. Gero, gizona zelosua jartzen zalako edo... lagatzeko erabagixa hartzen genduan".

"Telebisiñuan propagandia azaltzen zan, neskiak deportia eittia sanua zala ta esaten zebana. Gero, Moscardó generalak, Deportietako Delegaua zanian, nesken frontoiak ixteko asmuakin, fitxa gehixago ez eitteko agindua emon zeban".

"Seguritate Soziala ez genduan pagatzen baiña, horren tokixan, "utilidades" izeneko apartaduan laga bihar izaten genduan soldataren zatixa. Gaur egun, horrek ez daka iñungo balorerik; hortik ez jaku ezer geratu".

"Orduko frontoietan gero ziniak eta garajiak zabaldu ei dittue".

5. GAIXA: Animalixetan, mendixa, pelotia, foballa eta bizikletia. Ikusizuz gaixakin loturia dauken berbok eta esamoldiok.

- **Adari jokua, topekia:** Ahari talka
- **Amarauna, masma-etxia**
- **Animalixak: fristixak, aberiak, hegaztixak, arraiñak eta kokuak**
- **Aztarrena**
- **Kazari**
- **Nahi bai, Tabuion txakurra:** Beti eskian dabilenari erantzuten jakona.-Hau nahi dot, bestia nahi dot.-Na(h)i bai, Tabuion txakurra. Tabuio dalakuak izen horretako txakurra zeukan.
- **Kirikixua:** Kirikiñoa, trikuia.
- **Ugaratxua:** Igela
- **Txirtxilla:** Kilkirra
-
- **Aldatza, Pikia:** aldapia
- **Arriolarixa:** Apustuetan atzera egitten dabena. Erderaz rajado/a.
- **Azkazalak be ez jokatu:** Norbaitten alde apustu egittia zorakerixa dala esateko.
- **Puntarengua:** Bikaiña
- **Burpilla, Erroberia**
- **Dragia:** Balazta edo frenua
- **Kale egiñ, huts-egiñ**
- **Kokildu:** Arrio egiñ
- **Pasaria emon, hartu:** Norbaitti erraz irabazi, larregizko nekia hartu.
- **Posturia, trabesa:** Apustua
- **Hankia trokau:** Hankia okertu
- **Kukurrukua jo:** Apustua, desafioa edo erronka bota.
- **Karraskadia jo:** Arrio egiñ. (berba hau oillar borroketatik dator)
- **Amama:** Oso erreza euki.
- **Fueraka:** Kuriosua da. Oraiñ pelotan barruka (a barrus) ibiltzen gara, baiña lehen fueraka zan.
- **Pitxadia:** Pelotiari gogor jotzeko keiñua egiñ eta txapagaiñian laga. Dejadia.

Seigarren gaixa

SEIGARREN GAIXA:**HIZTEGIXA (6):**

- | | |
|-----------------------|-----------------------------|
| 1- Besazpia | a- Hur, hurreratu |
| 2- Garoa | b- Susmau, igarri |
| 3- Zaila | c- Galtzarpia |
| 4- Eskum(u)inak | d- Igoindu, gogaittu |
| 5- Pareta | e- Ira |
| 6- Hurbil, hurbildu | f- Traba |
| 7- Nabaritu, antzeman | g- Gorantziak |
| 8- Nazkatu | h- Motxaillia |
| 9- Ijito | i- Horma |
| 10- Oztopo | j- Gatxa |

HIZTEGIXA (6): Osatziz esaldioxok eskumako berbekiñ:

- 1- Hónek androk uliak be kentzen jittuek.
- 2- Gure basarri aurrian zeguazen saillak ikusgarrixak zittunan.
- 3- Herrira heltzen haizenian, asko daneri, merkiak dittuk eta.
- 4- Sekulako musturrekua hartu najuan hire etxe osteko
- 5- Dendarixak zeozer arrarua jonan eta lapurretan harrapau najindunan.
- 6- Azken aldixan telebisiñuari begira egitten nok.
- 7- Aspaldixan biharrian baiño ez jetsek ipiñi, baiña beti aurrera egitten jok.
- 8- Dan-danekiñ lagun izatia ez eze, eziñezkua be badon.
- 9- Hain zatarrak gaittuk ala? Ez jakuk bape neskarik berbena osuan.
- 10- Astuak moztutzen eta hónen salerosixan ziharduelako deitzen jakuen, gaiñera euskeraz egitten zeben.

ADITZA:

HITTANUA:

Lagunartian berba egittek betiko tratamendua hittanua izan da. Neskiari berba egitterakuan noka egiten detsagu, eta mutillari **toka**. Gaur egunian nagusixak baiña ez darabixe, eta lagunartian ezinbestekua deritxogunez hittanua erabiltziari, ahalik eta gehixen landuko dogu, beti be formarik erabilixenak.

Oharrak:

- Hi eta zu ezin doguz esaldi berian nahastu: * Hi! Juan zaitte Tutuluko estratara!
 - Noka edo Toka egittia entzuliaren araberakua da, ez berbetan diharduenarena. Neskiak mutillari toka egingo detsa eta mutillak neskiari noka.
 - Hi sujetua danian, ez dogu sexua bereziko: Hi lotsatixa hintzan (neskiari edo mutillari).
 - Menpeko esaldixetan (denporazkuak, konpletibuak, *baldintzak, erlatibozkuak...) ez dogu hittanorik erabiliko: * Ikusi nujuanian..., *uste dau tontak gaittunala..., *hori halan balitzok, * hori ez dok nik ikusi nujuana...
- * Eibarko aditza liburuan baldintzan hittanua erabiltzia egokixa dala diño, baiña errezte aldera guk ez dogu halan erabilliko.
- Lagunartia ez dan talde batiz egin detsagu hittanoz berba egin, ezta gurasueri edo pertsona nagusixeri be.

Aztertziz hónek hittanzko formok: (laguntzailla/trinkua, lehena/oraiña, nor/nor-nori/nor-nork/ zer-nori-nork...)

Nok:

Nintzuan:

Jakon:

Don:

Juagu:

Jakuk:

Jittune:

Jone:

Najonan:

Jittuat:

Jittuan:

Jonan:

Jetsenagu:

Genduazen:

Dauaz:

Jetsane:

Nabik:

Jestak:

Joian:

Daon:

Jaukagu:

Gabixaz:

Jiñone:

Joianaz:

Jakixat:

Jarabixat:

Jirudiñ:

Jaukan:

Jiharduagu:

Jakiñagu:

Diñostak:

Jirudixek:

Zertan desbardintzen dira toka eta noka orokorrian?

Ahalegidu zaitte Nor eta Nor-nork laguntzailliak oraiñ eta lehenaldixan ataratzen:

15) Osatzuz esaldioxok, kontuan hartuta pertsona izenak eta gaiñerako erreferentziak toka eta noka bereizteko jarri doguzela:

Hi Jon, ni lehentxuago kalera joan

Miren, zein tabernatan geldittuko

Hi Ander, atzoko neska hórrek ez Elgoibartarrak.

Hori hori antxitxika egittia, aupa neska!

Hi, atzo ez ba gurekiñ hasarratuko!

Barkatu Ane, atzo ezin izan etorri.

Baiña seme, hónek etxera etortzeko orduak?

Ez neska, ha igezkua ez Ondarrun izan, Mutrikun baiño!

Bai mutil, gaztetan ni be ez biharrerako erremia.

16) Nor- nori:

Bai Joxe, baiña hari egunero etortzen arrebia etxeko biharrak egittera.

Benetan ba Arrate! Albokueri loterixia tokau

Hori don guzur anporra! Aneri ez ezertxo be galdu.

Hire ahiztiarekiñ pasautako momentu zoragarri hárek guztiak burutik joan

Mutillak, hau dok zurrutian ibilli biharra! Konturatu barik gabeko ordu txikixak etorri

17) Nor-nork:

- Ondo daok! Gaur hik ekarri baiña bixar neuk eruango hi.
- Hire senarrak ez kalian agurtzen.
- Miren, hire granuja higuingarrixok goittik-behera busti
- Benetan jiñuat, hórrek bixok alkarri agiraka jardun egun osua
- Nik aguro egiñ neure biharra, baiña hik aidian egiñbiharko
- Miren, amatau argixa? Ostiantzian inguruko kokuak eta fristixak erakarriko
- Ha zongan antza!, harek ez etxia garbittu bere bizitza osuan.
- Hik burua galdu dok ala? Zelan ordainduko 50 milloi halako etxe aiñubia? Ezta eguzkibegixa balitza be!
- Bai neska, 18 urtekin aritzan egin eta ez jatan bape garbatu.
- Bixar gizonezkuak prestauko bildotsa soziedadian. Ta geu jarri, jan ederto, musturra garbittu, eta gero, gerokuak!
- Joxe, sasoiz ez jaikitziarren beti ibilli bihar azken orduan arrapataka!
- Horrek medikuorrek ez jakiñ ezer artez egitten. Oinguan be artazixak gaixuaren barruan ahaztu.....
- Haundixa dok ba! Hurrenguan nik ez erromarak zabalik lagako eta halan behixak ez ospa egingo.

18) Zer-nori-nork:(aditzak noka eta toka, bixetara jarrizuz)

- Nik hari egixa arpegira bota bihar/.....
- Harek guri ez/..... bakian lagatzen.
- Harek Mireni ez/.....berbia emondakua ekarri.
- Guk amari urtebetetzerako sekulako fafua prestau/.....
- Ortuan jarduteko bihar zittuan trepetxu guztiak neuk laga/.....
- Hárek hire lagunari ez/..... xemeikorik be barkatu.

19) Trinkuak hittanuan: (aditzak noka eta toka, bixetara jarrizuz)

- Barkatu, baiña gaur/atzo oso nekatuta (ni,egon)/..... /.....
- Begira, han (ha,etorri)/..... hire amandria.
- Alabia osatu danetik askoz nasaixago (gu,ibilli)/..... etxian.
- Nik nahi baiño astiruago, aida ta ixo, baiña (ni, juan)/..... aurrera.
- Jonek zer(harek, erabilli)/..... baiña, halako ariñ-biharrakiñ?
- Ikasketa bidaian beren buruari amaiñ emoteko asmua (hárek,euki)/.....
- Txilinbrizkauta daguala (harek,esan)/.....
- Lanpostu hori eskuratzeko ariapekua egon dana (nik,jakin)/.....
- Aratostietan eta kokojantzi barik, aboziñauak (guk,iruditu)/.....
- Zer (hik neri,esan)/..... jai ta jornala aplikau bihar deskuela? Nahi bai, Tabuion txakurra!

ESAMOLDIAK (6):

1- Plantak egiñ:

2- Pregoa jo:

3- Zapua, arra izan:

4- Takian (da) potian:

5- Txakilletan, Txolan egiñ:

6- Ple-ple egiñ, lafiau:

7- Hurrik emon bez:

8- Keiana egiñ, fila egiñ:

9- Ukat egiñ:

10- Zirri egiñ:

A- Isillik gorde biharrekuak mundu guztiari esan. B- Norbaitten imitaziñua egiñ. C- Ezkutuan esku-sartzen ibilli. D- Gorrotua izan. E- Mozkortu. F- Sarrittan. G- Etsi, amore emon. H- Narrua jo. I- Bai zera; ezta gutxiagorik be. J- Ospa egiñ, alde egiñ.

1- Iñor kontuan jausi baiño lehen

2- Zoro dihardu, soldadutzara ez juateko.

3- Haren biharrak ez eukan akaburik, hori baiño ez eukan buruan.

4- pekatu bada, makiñatxo bat pekatu eiñdako bagara hor zihar!

5- Ondo gordeta baiña lehengusuari detsa bere bizi guztian

6- Helmugarako kilometrua baiño gitxiago falta ebala

7- Katillunian eta badoiaz etxerutz kantu soiñuan.

8- Errealak Athletixari irabazi?

9- jaukak zeozer makiña horrek, aldatu biharko juagu.

10- Egixa izanda be, ez daukazu biharrik.

OSPAKIZUN BARIK BETE DITTU 75 URTE ALFAK

Juan zan zapatuan, urriaren 28xan, 75 urte bete zittuan Alfa. Eibarko lehelengo greba edo huelgiak Alfa sortziakin zerikusixa zekala eskribidu zeban Pedro Zelaia zanak Eibarko historiaren laburpena liburuan. Kintana Anaien taillarrian ein zeben lehelengoz hori gribiori ta bihargiñ askoren asmuetan Alfa lantegixa sortzeko asmua sartu zan 1897. urtian.

Alfa sortu baiño lehen baziran produkziñorako kooperatiba batzuk. Baiña sei hillabete huelgan emon ta gero, 300.000 pezeta eskuratu zittuen bihargin batzuk, sozialisten laguntasunakin batera. Horrekin diruorrekin, Bista Eder kalian lokala erosi ta taillarra martxan ipintziari ekin zetsen. Holan hasi zan Alfaren historixia, 1920xan. 50 pezetako akziñuak etara zittuen. Bertako bihargiñ izateko, UGTko bazkide izatia derrigorrezkua zan.

Eibar krisixak jota zeguan. Pistolak eittiari ekin zetsen Alfan, baiña armagintziaren jausaldixa eterri arren, etorkizunari aurre eiñ ahal izan zetsen. Langabezi ikarragarrixia zeguan orduan sasoian. Alfa 1927xan josteko makiñak eitten hasi zan. “Aleman bat ekarri bihar izan zeben horretarako, aittua”, azaldu dau Felix Larrañaga Alfako liburutegiko arduradunak. Toribio Etxebarria, Alfako sortzaillietakua, izan zan idea hori martxan ipiñi zebana.

Josteko makiñiakin eterri ziran, urte batzuk geruago, Alfaren sasoi onak, baiña gerriak eten ein zeban enpresiaren progresua: Estaduaren esku geldittu zan. Banco de San Sebastianerik dirua zor zetsan Alfa ta enpresia berriz martxan ipintzeako gestiñuak eitten hasi ziran. Era horretan, bihargiñ elkartea barrixa eratzeko baimena emon zeban Gobernuak. Josteko makiñak eitten segidu ahal izango zeben.

Kooperatiba honen kasua berezixa izan da. “Arrasateko kooperatibak zelako diferentziak dakazen nik ez dakitt, baiña harek kopixak dira”, uste dau Felix Larrañagak. Berak ondo dakiz aspaldiko gorabeherak. “Toribio Etxebarriak bankua ipintzeako asmua euki zeban, baiña gero gerria eterri zan ta...”.

Bertako bihargiñ ta kooperatibako sozio izateko dirua ipiñi bihar zan 1940tik aurrera. “Hona sartzeko rekomendaziño haundixak bihar ziran”. Izan be, Alfan beste edozein taillarretan baiño diru gehixago irabazten zeben. Urte baten hau kalkuluau ein zeben bertan: ume bi eukitta senar-emazte batek egunian zenbat diru bihar ete zeban lasai bizi ahal izateko. Kalkuluaren arabera, 140 pezeta. Bergararko enpresa batek gauza bera ein zeban, baiña 92 pezetakin nahikua zala esan zeban. “Halan ta guzti, hamen 200 irabazten zan”, gogoratzen dau Larrañagak.

Horretaz gain, kooperatibako soziuek producto mordua ekonomatotik merkiago etara ahal izaten zittuen. “Antxiña, sasoi baten, diru ordian txapak etaratzen zittuen kooperatibakuendako ta Eibarko denda guztietan hartzen zittuezen horrek txapok”.

Alfareni egoeria hoberutz zoian, gero ta josteko makiña gehixago saldu ta produzitzen hasi ziran. Estadu guztirako saldu zittuen makiñak. Erbestian be hasi ziran Alfan egindako tresnak saltzen ta erabiltzen.

1953. urtian Alfa instalaziño gehixago eskuratu zittuan ta barrikuntzak ezarri zittuan: estaduko lehelengo mikrofusiñua martxan ipiñi zeben, josteko makiñen piezak eitteko; Fundiziñuari ekin jakon ta horren bittartez hainbat industria hornittu zittuen; josteko makiñak eitteko transfertak ekarri zittuen. Beranduago, enplesia haunditzen zoianez, basarri ta nekazal makiñak eitten hasi ziran.

Hoherutz zoian Alfa, 70. urtietara arte behintzat. Lehenago Lambretta eskuratu zeban, baiña txarrera juan zan motor enplesia 1974an. Gerora, danak okerrera ein zeban, biharbada plantilla haundixa zegualako. 1977. urtian iñoz baiño bihargin gehixen zeguazen: 2.424. Hortik aurrera, aldez aurretiko jubilaziñuak hasi ziran.

Krisixa aurrera zoiala, Enrique Trebiño enpresariaren taldiak hartu zeban oin dala hiru urte ta enplesia beste modu batez dago antolatuta gaur egunian. Gaur egun Alfanaren izena daka ta 3R planaren bittartez, 2.000 milloii pezetako inbersiñua eittia lortu zeban Trebiñok. Eibarko 13 enpresak osatzen dabe. Danera 418 bihargin dagoz bertan. Alfaneko sariak beste 4 enpresa dakaz Eibartik kanpo ta bertan 99 lagunek dihardue biharrian.

Oier Narbaiza,...eta kitto! 95-11-3.

6. GAIXA: Biharra, ekonomixia, basarrixoa, lanbidiak eta modernidadia. Ikusizuz gaixakin loturia dauken hónek berbok eta esamoldiok.

- **Akabatzaillia:** Armetako bihargiña, pulidoria.
 - **Akats:** Piezaren fallua.
 - **Astegun buruzurixa:** Laneko eguna. Astegun buruzurixan afarixa euki bihar dok?
 - **Barautza:** Taladruaren brokia.
 - **Bihargiña**
 - **Ugezaba**
 - **Brinza, zartau:** Apurtu, zartatu.
 - **Epaikixa:** Zerra
 - **Lokia:** Ondo lotuta ez daguana. Kili-kolo
 - **Maillatu:** Kolpatu. (Abollar)
 - **Maratillia:** Destornilladuria
 - **Nekesarixa, kintzenia; Jornala**
 - **Norberan kontura jarri**
 - **Torlojua**
 - **Tortikia, Ugarra**
 - **Jai ta jornala:** Danok goguan daukagun bihar-egoera ideala.
 - **Lanian urkatu:** Bihar larregi egiñ.
-

- **Nagixa, zurixa:** Alperra, faltsua.
 - **Balixau:** Baliatu
 - **Bertan behera laga**
 - **Bittarte bat hartu:** Zerbait egitteko biharrari apur batian laga.
 - **Burrundaria:** Zarata haundixa.
 - **Eskekua:** Eskalea
 - **Harriabarria batu, Lurra jo:** Hondamendixan jausi.
 - **Zorrak/ Hartzekua**
 - **Ingirau:** Norbere kabuz moldatu. (arreglarselas)
 - **Ixil-poltsia:** Norberandako apurka-apurka gordetzen dan dirua.
 - **Jirau:** Numbaittetik zeozer lortu bihar.
 - **Jo ta pasa:** Presaka egindako biarra
 - **Kakuak etara:** Akatsak etara
 - **Kale gorrikan laga**
 - **Kontu hobia euki:** Nahiz ta karuago ordaindu, hobeto urtetzen dabena.
 - **Otxiñak egiñ/ Xemeiko barik geldittu**
 - **Bizi nahi izan:** Txarto ordaindutako biharrian aurrera etara nahixan dabilenari esaten jako.
 - **Karutixa:** Garesti saltzen dabena.
 - **Teillatua emon:** Etxia amaittu
-

- **Ortua**
- **Erromaria:** Mendiko bidietako atiak, aberiak ez pasatzeko.
- **Trepetxua:** Basarriko lanabesa
- **Tripa-truke:** Jatekuaren truke egindako biarra
- **Txarrixa hildako astia eta ezkonduetako urtia:** Momenturik onenak adierazteko

Zazpigarren gaixa

HIZTEGIXA (7):

- | | |
|----------------------|----------------------------------|
| 1- Utzi | a- Zatar |
| 2- Itsusi | b- Txingorra |
| 3- Mingaina | c- Zekena |
| 4- Musu | d- Laga, itxi |
| 5- Udarea | e- Miña |
| 6- Marrubia | f- Ondo |
| 7- Ongi | g- Madarixa, makatza |
| 8- Kazkabarra | h- Paitta, bilixa |
| 9- Zuhurra, zikoitza | i- Maillabixa, maillukixa |
| 10- Ahate | j- Laztan |

HIZTEGIXA (7): Osatizuz esaldioxok eskumako berbekien:

- 1- Hurrengo astian automobia bihar destak, neuria konpontzera eruan juat eta.
- 2- Gero eta okerrago habill! Aurreko astian egindakua oinguan txarto egin don.
- 3- Arrateko erromerixan emon zetsen alkari lehenengo
- 4- izan arren, jatorra don eta gaiñera, aberatsa.
- 5- Ezin juat siñistu be egiañ! Atzo Plaentxitik pasau nintzanian ikusi najittuan errekan.
- 6- Herañegun-antxitzik bota zeban automobia maillatu zestan.
- 7- Daukan dirutziakin eta horrek premiñan daguan anaixari ez detsa bape lagundu.
- 8- Gehixen gustatzen jakon postria, natiakiñ.
- 9- Honezkero arbolatik jausitta egongo dittun.
- 10- hartu jok eskillaretan behera jausitta.

ENTONAZIÑUA

I. Gaminderen **Euskaldunen azentuak** liburutik hartuta, Serafin Basauriren zuzenketekin:

EIBAR

SINGULARRA:

ó-o: báltza, lúrra, óna, zárra, úra.

o-ó-o: ardáwa, ardíxa, aríxa, asía, astúa, babía, be(g)íxa, biótza, burúa, gastáya, gastía, gisóna, iríxa, ogíxa, ollúa, semía, suríxa, txarríxa, txoríxa, ulía.

ó-o-o: áitxitxa, ámama, ámandria, éuskixa, íntxaurra, óllarra, txíngorra.

o-o-ó-o: afaríxa, alabía, alargúna, armosúa, arpe(g)íxa, arratoya, atzamárra, atzaskóla, guntzurrúna, itxurríxa, , madaríxa, okarána, okelía.

o-ó-o-o: bekókixa, isária, mall(á/ú)bixa, sukáldia.

TALDE KLITIKOA:

urá da, oná da, baltzá da, surixá da, semiá da, gastí da, léngusua da, óllaskua da, albía da, alargúna da, txarrá da, béstia da, bersolárixda, aberátza da.

PLURALA:

ó-o: ásak, kéixak, ónak, prákak, txárrak, sárrak.

o-ó-o: alábak, ardíxak, agúrrak, gastíak, ogíxak, ollúak, txarríxak, txoríxak, agíñak, katúak.

ó-o-o: gísonak, íntxaurrak, óllarrak.

o-ó-o-o: alárgunak, arrátoyak, itxúrrixak, atzámarrak, atzáskolak, madárixak, okáranak.

ó-o-o-o: léngusuak, téllatuak.

ADITZ PARTIZIPIOAK:

ó-o: sáldu, érre, éran, gáldu, jóni.

o-ó-o: erósi, eskátu, berótu, ekárri, apúrtu.

DEKLINABIDEA:

| Singularra | Plurala | Singularra | Plurala |
|-------------|-------------------------|------------|--------------|
| gisónak | gísonak | erríxan | erríxetan |
| gisonári | gisóneri/gísoneri | erríra | erríxetara |
| gisonána | gisónena/gísonena | errítxik | erríxetatik |
| gisonákin | gisónekin/gísonekin | errikúa | erríxetakua |
| gisonándako | gisónendako/gísonendako | erríraño | erríxetaraño |

ADITZA: Nahasi samarra begittandu jakunez, ez jartzia erabagi dogu.

IMANOL LASPIURREK EMONDAKO ARAUAK:

1-AGINDUKERAK ETA ERREGUAK: Agudo moduan.

- Eibarrera jatorrian
- **Emoidazu ogixá**
 - **Geldi egon zaittez mesedéz**
 - **Ezeizu holakorik esán Jesusá.**

- Ez jatorrian
- **Emoidazu ogíxa**
 - **Geldi egon zaittez mesédez**
 - **Ezeizu holakorik ésan Jesúsa**

2- AGURRAK ETA INTERJEZIÑUAK: Agudo moduan.

- Eibarrera jatorrian
- **Egunón Mariá**
 - **Kaixo, Felipé**
 - **Gero arte Josú**
 - **Agur Matildé, eta ondó bizí**

- Ez jatorrian
- **Egúnon María**
 - **Kaixo, Felipe**
 - **Gero arte Jósu**
 - **Agur Matilde, eta óndo bízi**

3- HARRIDURETAN: Agudo moduan.

- Eibarrera jatorrian
- **Ené, ze mahai luziá!**
 - **Horí dá gauzá ederrá!**
 - **Ai, hau bai ogí gozuá!**

- Ez jatorrian
- **Ene, ze mahai luzia!**
 - **Hori da gaúza ederra!**
 - **Ai, hau bai ogi gozúa!**

4- ZENBAITT TOKI IZEN EDO TOPONIMO:

- Eibarrera jatorrian
- **Élgetan egon gara**
 - **Ermúan ibilli da**
 - **Élgoibarkua da**
 - **Árraten eguraldi txarra da**
 - **Ábontzako itturrixa**
 - **Árraguetan gora**
 - **Galdarámiñoko bidia**
 - **Ibárkurutzian jaixua**
 - **Bidebárrixetako denda**
 - **Kálamuan zihar**
 - **Úbitxara doiaz**

- Ez jatorrian
- **Elgétan...**
 - **Érmuan...**
 - **Elgoibarkua...**
 - **Arráten...**
 - **Abóntzako...**
 - **Arraguétan...**
 - **Galdaramíñoko...**
 - **Ibarrekrúzen...**
 - **Bidebarriétako...**
 - **Kalamúan...**
 - **Ubítxara...**

5- IZEN PROPIXO BATZUK:

Eibarrera jatorrian: Símon, Isábel, Anaísabel, Errámun, Garikoitz, Ándres, Serafín, Josemáuel, Gótzon, Pilar, Josejábier, Marisol, Imánol, Mariajésus, Asier...

Esaldi motaren arabera azentua aldau leike.

6- DEITTURA BATZUK:

Eibarrera jatorrian: Gallástegi, Zendóia, Agirrébeña, Narbaíza, Amuátegi, Zarraúa, Berasáluze, Kortabítarte, Etxebérria, Goikoétxea, Jauregíberri...

7- ERDERATIKO BERBAK:

Esdrujuletarako joera haundixa daukagu. Eibarren normalian berba hasieratik hirugarren silaban kargatzen da azentu prosodiko nagusixa, nahiz 5, 6, 7 edo 8 silabako berbia izan:

5 silabakuak: Estazíñua, ilusíñua, asisténtziala, temperártura... aizkoláritza, bertsoláritza...

6 silabakuak: informáziñua, abilídadia, graduáziñua, ekológixia, erreméntarixa...

7 silabakuak: unibérsidadia, komunikaziñua, kasuálidadia, terminólogixia...

8 eta 9 silabakuak: originalidadia, autodéterminaziñua, deskalzifikaziñua...

ESAMOLDIAK (7):

1- Zilletik egiñ:

2- Tripa zorrika egiñ:

3- Tripak jaten egon, bizi:

4- Talaixan ibilli:

5- Pijo jardun:

6- Panpana jo:

7- Onik egiñ ez:

8- Hobe biharrian:

9- Moldia ekarri:

10- Kostia kosta:

A- Gosetu. B- Kalte egiñ. C- Zerbaittetan destakau, joeria euki. D- Umia zesareakiñ ekarri. E- Zelatan ibilli. F- Kostatzen dana kostatzen dala. G- Norbaitti mesede egin nahixan esan edo egitten dana. H- Zeozertan buru-belarri jardun. I- Harropuzkeriatan ibilli. J- Haserrea edo kezkaren bat dala-ta sortzen dan egoneziñari esaten jako.

1- jata egiñ dogun ibilixagaz

2- Gure katua egun guztian sagu zuluaren

3- Behiñ alemaniarra ba ei ebillen Plaentzian ez eguala bera lango murgillaririk esanaz.

4- esan netsan eta txarrian hartu zestan

5- Ondarruko jaixetara juan gura eban.

6- . Bigarren umiaeban

7- Biharreko autu honekin bizi da azkenaldixan

8- Aurtengo kursuan gure semiak biharrian.

9- Euzkixa larregi hartziak ez detsa bape.....

10- Zure semiakhartu daben ofiziorako

BATAIOAK ORAIN 100 URTE

Jaio ta lehenbait-len egiten ziran Bataioak. 24 orduren barruan.

Umiaren jaiotza orduan, medikua egoten zan etxian eta berari laguntzen gobernatzailea. Geruago parterak agertu ziran. Hauen artean lehenengoetako bat Geronima izan zan.

Gobernatzailliak Eibarren taldetxo bat osotzen zuten. Emakume oso ezagunak ziran. Beren eginbeharra hauxe zan: familia euki eban emakumeari lagundu bere garbikizunetan, umetxoaren zainketan eta bardiñ osagilleari. Erdi enfermera ziran. Experientzia eta begi askokuak.

Orduan, jakiña, etzegoan maternidaderik. Etxeko giroan jaiotzen ziran umetxoak. Medikuen artean oso aipatuak ziran Don Vicente Agirre, bere seme Don Ciriaco, Don Federico Muguruza, Berraondo jauna eta abar.

Juan zan gizaldiaren azkenetan hauek ziran gobernatzaile batzuk: Fermina, atai zaharian bizi zana; Basilia Sorgo, Mendaron andria: Maria Silleria; Maria Agustina Makalarronekua eta beste batzuk. Danak jakitunak bere arloan eta esperientzi haundikoak.

Bataioa ospatzean, gobernatzaileak eruaten eban umetxoa eleizara, Aita-amabitxiak –padrinoak-aurretik juan ohi ziran eta aita ta gobernatzailea umetxoarekin atzetik. Pañuelo sedazko apaiñ bat zaroian gobernatzaileak bere beso buruan eta hantxe magaltzen zan umetxoa.

Bataioa bakarka ospatu ondoren alderantziz etortzen ziran etxera: lehenengo umea gobernatzaileak zaroiala eta aita, gero padrinuak. Ama etzan juaten bataiora.

Handik zortzi bat egunera, bai, egiten eban elizan sartzea. Ordurarte, ziur asko, kalera urten gabe egon ohi zan. Eta umetxoa berdiñ.

Elizan sartzerakuan, kandela bat zaroian amak berakin. Eliz-atarian, kandela piztuta zeukalarik, apaizak otoitz bat egiten eban eta apaizaren estolari ikutuaz, umetxo ta kandela piztuakin sartzen zan elizan. Karmengo Amaren aldare aurrean belaunikatuta egongo zan apaizak otoitz egiten eban bitartean, eskerrak emanaz amatasunaren dohaiagaitik. Dena bukatzen zan ur bedeinkatua ixuriaz umetxo ta amarengan eta bedeinkatua biak Irutasun Deunaren izenean. Ameri, familia izan ondoren, bisita egiten jakuen erregalua eruanaz. Geihenetan, oillo bat izaten zan errregalo hau. Edo Jerez botillia eta baita ere txokolatia bolauekin.

Oilluak, orduan, erosi leikezen Isasiko Oillo lokia izeneko etxian eta baita be Salandesian, Plaza Barrikan.

Revista Eibar, 81eko martixa

ANDRAKUMIEN HISTORIXIA EUREN AHOTIK

Martixan Eibarko andrakumien argazki erakusketa izan zan udaletxeko kultura aretuan. 1900etik 1950era bitarteko hainbat emakumeren erretratuak ipiñi zittuen hango hormetan esegitta. Hori ekitaldixori aprobetxauta, emakume taldiak ...eta kitto! euskera alkartiakin batera mahainguru bat antolau zeben: bertan herriko bost emakumek gizaldi hasierako andrakumien bizimoduaren gaiñian egin zeben berba. Zeregin ta sektore guztietakuak ziran guztiak, azken batian ikuspegi zabalagua emoteko. Bertan Maria Angeles Zulaika, Leonor Larrañaga, Josefina Alberdi, Aurea Mendizabal eta Dolores Berasaluzek jardun zeben berbetan. Moderatzaille zeregiñetan Arantxa Lasak jardun zeban.

Mahainguruko emakume guztiak bat etorri ziran puntu baten behintzat: lehengo sasoieta Eibarko emakumia beste lekuetan baiño aurrerakoiagua zan. Izan be, sasoi baten, antxiña, ogixa karutu zanian andrak manifestaziñuan urten zeben prezio gorakadiaren kontra protesta egitteko. Mahaingurukuak, biharbada, ez dabe horren barri eukiko, baiña badago Eibarrren halako kontuak kontatzen daben jente nagusirik.

Dana dala, honek bost andrakumiok eruren ikuspuntutik aztertzen dabe bertako emakumiaren historixia. Maria Angeles Zulaika, esate baterako, maistria izan zan ta hamaika urte darioaz Eibar aldizdarixan kolaboratzen. Bere artikuluetan sarrittan aztertu dau Eibarko emakumiaren bizimodua. “Milla gauza pasau dirala emoten dau, oingo gaztieri kontauta, ez dabe siñisten”. Gizaldi hasierako andrak eskubide gitxiago zekan: emaztiak dirurik ezin zeban etara bankotik gizonaren firmia euki ezian; famelikan hildakorik egon ezkero urte bi t’erdixan lutua eruan bihar izaten zeban, baiña ez ostera gizonezkuak; gaiñera, goi maillako ikasketak egitten zittuen gizonezkuak gitxi baziran, emakumiak, gitxiago.

“Andrakumiak dana egitten zeban: umiak egin, umiak hazi, gaixuak zaindu ta etxe guztia garbittu. Orduan garbitzia ez zan oingo morokua”. Garbitzeko produktuak asko hobetu dirala uste dau Maria Angelesek. “Orduan ez zeguan kimika, fisika baiño”

Dolores Berasaluzek Azittaingo erretegixan jardun izan dau urte askuan, baitta hango elixako serora zeregiñetan be. Taberna munduan gauzak asko aldatu dirala uste dau. Lehen erretegira Bilboko jentia juaten zan bildotsa jatera, andrak beti gizonekin. Oiñ, ostera emakumiak kuadrillan hurreratzen dira afarixak eta egittera. Gerra ostian kanbixau ziran horrek gauzok, diru gehixago egoterakuan.

Doloresek, dana dala, ume ta gazte denporia basarrixan emon zeban. Han egitten zittuan biharrok gogoratzen dittu. Basarrixan jaixua izan arren, kalera juan zan bizi izatera. Josefina Alberdiren kasua, ostera, alderantzizkua da: kalian jaixo ta gero basarrira. Josefina esanetan, krisixa zala ta, Arrateko bideko azkenengo zatixa egitten jardun zebenian, gizonezkuak biharra egitten zeben ta andrakumiak janarixa emon.

Basarri ta kalekuen artian, lehen behintzat, desberdintasunak baziran. Antxiñako basarrixetan emakumiak gizonen biharrok be egitten zittuen. Mahainguruan jardun zebenen arabera, basarrixan administraziño guztia etxeoandriak egitten zeban. Emakumiaren zeregiñak garrantzi haundixa zekan basarrixan: matriarkaua zan nagusi.

Aurea Mendizabal ATS izan zan, baiña gizarte girua ezagutu zeban. Praktikante lanetan izebakin hasi zan. Hareri laguntzen zetsan lehelengo. Gero emakumieri libratzen laguntzen ibiltzen zan ta hurretik ezagutu zittuan emakumien gorabeherak.

Emakume batzuk taillarretan egitten zeben biharra, baiña gizartian ez zeguan hori onduegi ikusitta. Leonor Larrañagak, esate baterako, txikittatik gura zeban etxetik kanpo biarra egiñ, taillarrian. Ugezabak ez zeben taillarrian andrazkorik nahi izaten: eurendako kumunik ez zeguala esaten zetsen. Halan ta guzti, taillarretan lana egitten zeben andrak askoz be zeregiñ gogorragua eukitzen zeben ta, gaiñera, gizonezkuak baiño diru gitxiago irabazten zeben.

7. GAIXA: Eguneroko bizimodua, kulturia, modia, ohitturak eta relijiñua. Ikusizuz gaixakin loturia dauken hónek berbok eta esamoldiok.

- **Armozua:** gosarixa

- **Askia goixan:** Gitxi jaten dan tokixari buruz esaten da.

- **Babia**

- **Entramia, sakia**

- Ez gatz ta ez berakatz: **ganorabakua, sosua**

- Fota: **Antxiñako 8 formako ogixa**

- Pellak: **Aratostietako postria, errebanadekin batera.**

- Glok egiñ: **Ase, bete.**

- Okelia

- **Mikia:** Gitxi jaten dabena.

- **Mokofiña**

- **Litxarrerixia**

- **Pikukadia:** Piskolabisa

- **Tripa zorrixa egiñ**

- **Bazkari/Afari legia egiñ**

- **Meriandia**

- **Txutxu:** Buñueluak

.....

- **Atorra:** blusia

- **Galtzetiñak**

- **Girgilluak:** Mitxeliñak

- **Zilbota:** Tripia

- **Zinbrixua:** Oso argala

- **Prakak/Galtzak**

.....

- **Arnesia gastau:** hil

- **Aingerua izan:** umia hil

- **Hanka bat kanposantuan euki**

.....

- **Arasia:** apala

- **Topiña:** txolota, tazia

- **Kikili usaiña, antza**

- **Lizuna:** moho

- **Lixibia:** arropa-garbitzia

- **Narrasa**

- **Txolota**

- **Burduntzalia:** Zopak lapikotik ataratzekua

- **Zamaua:** mantela

.....

- **Bete:** Haurdun laga

- **Erditu, librau**

- **Hankagorrixa:** jaiobarrixa

- **Hartu-barri, Hazur barrixak egiñ:** haurdun geldittu

- **Lo erriak egon:** Lo egin nahi ta ezinda negarrez daguan umia.

- **Maiñak egiñ:** Mimoak eskatzeko negar faltsuak.

- **On billa, on billa, bonbilla:** Bikote perfektuaren billa dabilenari gertatzen jako.

- **Umezaria, ohialia:** Pañala

- **Atsua / aguria:** emaztia/ senarra lagun giruan.

Zuzenket a Orrixak

- 1) - a + a= ia : alaba ➔ alabia
- e + a= ia : semea ➔ semia
- e + e= ie : senideen ➔ senidien
- e + o= io : emakumeon ➔ emakumion
- i + a= ixa : mendia ➔ mendixa (baiña guztia)
- i + e= ixe : animalietan ➔ animalixetan
- i + o= ixo : behiok ➔ behixok
- o + a= ua : gurasoak ➔ gurasuak
- o + o= uo : neskatook ➔ neskatuok

2) **Jarrizuz hónek berba amaierok eibarreraz:**

Esan dozun berbia oso zatarra da.

Herixa(re)nak dira hónek basuok?

Gordeizuz artazixak!

Abadien lapikotxua txikixa baiña goxua.

Hórrek sarixorrek gaztetakuak dira.

Erdialdeko denda barrixtan ezin da astian zihar be ibilli.

Zeuek gaztiok ez dakizue zer dan gosia.

Olixua darixola daroia kotxia

3) Aztertzizuz azpiko berbak eta zergaittik batzuk **-ia** amaitzen diran eta bestiak **-ixa**: Toribio Etxeberriaren lexikoittik ataratakua (begira **ixa**)

Habia / habixia: habeia, habia (kabia)

Aldia / aldixa: aldea, aldia

Haria / harixa: harea(Hondarra), haria

Arria / harixia: palmo (taco y arra), harria

Asia / hasixa: kontinentia, hasia

Astia / astixa: Astea, astia

Barria / barrixa: barrea, barria

Erria / herixa: errea, herria

Esia / hesixa: Ese letria, hesia

Gerria, gerrixa: gerra, gerria

Guria / gurixa: gurea,nahixa / guria (biguiña, samurra)

Ia / ixa: ea (zehargalderetakua), ia (kasik)

Maria / Marixa: Marea / Maria (izen)

Oria / Horixa: Orea (masa), horia

Ontzia / Ontzixa: onza, hobetzea / ontzia(lapikua, itsasontzixa

4) Osatzuz hurrengo esaldioxok orain eta lehenaldixan:

- Hárek goiz juan dira/.ziran mendira.
- Jon aboziñau samarra da /zan haren ustez.
- Ni zurekiñ ibiltzen naiz/ nintzan egunian-egunian.
- Zu ez zara/.ziñan iñoi diskotekara hurreratu be egiñ.
- Hori dok hori guzur anporra! Gu ibilli gara/.giñan/giñazen perretxiko batzen.
- Eta hi zergaitik ez.haiz/.hintzan. foballian egittera etorri?
- Azkenian alkartu .zarie/.ziñien/ ziñazien.. zuek bixok.

Hónek aditzok errezzak dira, baiña derrigorrezkua ikusten badozu egizu beste ariketatzoren bat (ahozkua edo idatzizkua) hobeto finkatzeko.

5) Osatzuz hónek esaldioxok:

Neri gehixen gustatzen .JATANA mendira joatia da.
Háreri atzoko tomatiak eta piparrak ez.JAKUEZEN. bape gustau.
Anderrek etxia txukunago euki ezkero ez ..JAKOZEN..inguruko arratoi guztiak etorriko.
Hasarre gaozela? Erregular, zeueri ez...JATZUE/N...halako isuna sekula etorri.
Ondo merezixa daukazu! Esandakua egiñ ezkero ez ..JATZUN...halakorik pasauko
Joni ez..JAKO.. bape ondo begittandu bere arrebiari esan detsaguna.
Neri ugezabak ez ..JATAZEN...etxera biharra emoten etorri, gero!
Zeuri oindiok ez..JATZUZ..oporrak burutik juan.
Señoritura etorri ..JATAN.. tripa truke biharra eskaintzera, eta nik ezetz esan netsan, jakiña!
Britaiñarreri gure herrixka asko gustatzen ei..JAKUE..
Partidua ona? Atzeneko illadan tokau..JAKUN..eta ez genduan pelotia be ikusi!
Maillukixak madarixak baiño gehixago gustatzen.JATZUEZ/EN..zueri.

6) Osatzuz hónek esaldioxok:

Katuak ezin .dau... halakorik egiñ.

Hárek atzo ez..Zittue(ze)n...aittu geure azalpenak

Atzo Anttonek ez..(z)eban..bihar haundirik egiñ.

Atzo egin .genduzen..guk egittekuak!

Zuekiñ ernagauta nago eta ez.nozue....gehixago pegoran zaiñ eukiko

Irakasliak ez ..dabe..beti sudurran puntan jartzen jakuena egingo.

Domekan ez .genduan/zen..guk nahi beste perretxiko batu.

Berbia emondako pelikula guztiak ekarri..dozuz/ dittuzu(z)...zuk?

Afan usaiña darabill eta danak adurra darixola lagako.dittualakuan...dago.

Gu hire etxera agertu bat egittera eterri eta hara nun topau.haugun..umien jostailluekiñ afariketan.

Zuek atzo nahi beste afaldu..zenduen..., ahua neurri!

Julianek pelotia lagako dabela aitzen emon.dau...

Kanposantu erdixan ezkutau nintzan eta bertan laga..nittuan..granujok koskabilluak zimurtuta!

Aldapadia igotzerakuan aldian geroian arropa guztia kendu..genduan...

Atzo zuk zelan ekarri...zenduzen...lagun guztiak etxera? Burutik egin jatzu ala?

Hórrek egin ..dabe..armozua! Biña kafittesne ta hiruna zumo arnasa baten eran..dabez/dittue(z)....

Zuek gaurko posturak irabazi..dozuez/dittuzue(z)..baiña hurrenguan arrio egin biharko ...dozue.

Gizonezkuak ez ..gaittue/gaittune..andrazkuok aintzakotzat hartzen.

7) Beteizuz hutsuniok dagokixinen deklinabide kasuakin:

- Gizon.ok. agintzen ei dogu etxian..., baiña andrak.....dira nagusi.
- Andrak... gaurko egunez gizonak.... beste dira eskubidietan.
- Hórrek danetik jakane, alaba /alabak.. eta seme / semiak... ugari.
- Baneki zeiñ alabakin.. geldittu diran etxian..!Baiña ez jakiñat.
- Semiandako..... boligrafo ederra ekarri dau amak.....
- Hiru semeri... erosi detse pisua, baiña laugarrenari..... ez.
- Eibar/ Eibarko... herriktik.....lantegi asko juan da kanpora...
- Herriko..... kalieri..... izenak aldatu bihar detsez.
- Zu.... beti zeuriari..... eusten, ahuntzak..... mendira..... joten daben moduan.
- Caribe..... itsasora..... eta hango hondartzetara.....juango nintzake pozik.
- Munduko gobernu buruak....ezin dabe egoeria.... konpondu.

8) Ariketak: Aldaketa bokalikuak:

| | |
|-------------------|-----------------------|
| Atera ➔ Atara | Ile ➔ Ule |
| Gutxi ➔ Gitxi | Haserretu ➔ Hasarratu |
| Iltze ➔ Ultze | Elkar ➔ Alkar |
| Hezurra ➔ Hazurra | Beltza ➔ Baltza |
| Irten ➔ Urten | Berdin ➔ Bardiñ |
| Bider ➔ Bidar | Dena ➔ Dana |
| Txerri ➔ Txarri | Lore ➔ Lora |
| And(e)re ➔ Andra | |

Hónek aldaketa bokalikuok euki dabezen berbok asko be asko darabiguz eguneroeko jardunian, beraz ondo ikastia komeni da, baitta konsonantiko batzuk be.

Aldaketa kontsonantikuak:

| | |
|----------------------|--------------------|
| Gurpilla ➔ Burpilla | Bolibar ➔ Gollibar |
| Berreahun ➔ Berregun | Goizian ➔ Goixian |
| Belar ➔ Bedar | Larru ➔ Narru |
| Konbeni ➔ Komeni | Trumoi ➔ Trunboi |
| Ipini ➔ Ifiñi | Gurdi ➔ Burdi |
| Ihes ➔ Igés | Ilar ➔ Idar |
| Konbentu ➔ Komentu | Uhala ➔ Ugala |
| Mobidu ➔ Mogidu | Iaz ➔ Igez |
| Zilar ➔ Zidar | Iparra ➔ Ifarra |
| Leuna ➔ Leguna | Pabonua ➔ Fabonua |

9) Batuaz dagozen erakusliak eibarrerara pasaizuz, azentua kontuan hartuta, eta gero izenaren aurretik edo ostetik moldaizuz:

- Hónek ardurabakuok edozeiñ astegun buruzurixan be afarixa egitten juek; ardaujana baiña!
- Amataik (**hori**) radixuori!
- Hónetan/**hamen(go)** etxiotan haiziak gogor joten dau.
- Biharrian astiro gabiz eta **hóneri gaztiori** barriketan hastia baiño ez jakue bururatzen
- Guzurrak esaten hasi danetik, **hárekin drogosuekin** dabillela begittantzen jata.
- Ezagutzen don (**hau**) neskiau?
- **Horko kaliotatik** pasatzen da tanborradia.
- **Hórrek baldarrok** blastiua emon detse semiari.
- Ia zeiñek egitten daben **hara/hango piñura** joanetorrixia ariñen!
- **Horreri/ horko pregorako eskillarori** garbittu bat emon bihar detset.
- **Horko kobazuluotako** isiltasunak beldurra emoten desta.
- Amorrua emoten jestek **hónek tramankulu modernuok!**
- **Hárek/ háreri atsueri** adar joka ibiltzia be, hik daukak baloria!
- **Hóne(n)gandik / hónek agintarixo(n)gandik** ez juat ezer espero.
- Zer diñok baiña? **ha guztia** ez zuan halan izan!
- **Harek neskiak** botatako begirakunia ez zuan gozua izan!
- **(Horrek) mutillorrek** ez dau gauza onik egingo!
- Ni zakar egon nintzuan, baiña **hárek morroia(re)k** ez zittuan atzian gelditzekuak, gero!

10) Osatizuz esaldioxok:

- Irakasliak zueri martxando guztiak barkatu .detsuez
- Ameriketako osabak bizikletia oparitu..(z)eskun...eta asko poztu giñan.
- Zoro haiziak emon.(d)esta... eta neure kontura jarri naiz biharrian.
- Ugezabari ez ..gentsan/gentsagun... ondo aittu eta ugalak solte laga genduzen.

- Nik gaur ospittalian daguan lagunari agertu bat egin..detsat.. eta kuadrillako txutxumutxu barriak kontau..detsaraz...
- Zuek guri atzo posturia egin ..ze(n)skuen/ zeskuzuen... eta guk gaur zueri onartu..detsuegu..
- Autubatzailia herrixan pregoia jo dabe, baiña guri ez ..deskue.... ezer galduet.
- Basarrixan nekazen trepetxu guztiak laga..netsazen...Patxiri ortua lantzko.
- Frontoian orru galantak egin..destez...baiña azkenian partidua neuk irabazi.
- Eta guk zer oparituko ..detsagu.. Piliri bere urtebetetzian?
- Pello Zabalak atzo neri Arantzazun esan..(z)estan..gaur truxalak egingo dittuala.
- Jonek etxekuori lanpernak ekarri..deskuz...
- Nik nahikua ta larregi aguantau..netsen..igez jantxakur hórreri.
- Gaur zuk lixibia egin.destazu...baiña nik bixar pegoria garbituko..detsut..
- Umetan gurasuak litxarrerixia baiño ez ..(z)etsen. emon umiorri, eta oin girgilluak dantzan daroiaz.

11) NOR: EGON

- Zu etorri ziñanian buruko miñez NE(N)GUAN, baiña gero juan jatan.
- Tren geltokira heldu giñanian ez (Z)EGUAN billeterik.
- Ez GA(G)OZ/GARE hori oraiñ eztabaidatzeko gertu.
- Istripua izan zanian hárek pare-parian (Z)EGOZEN/(Z)EGUAZEN/ZEREN.
- Ointxe gertu ZAGOZIE/ZARIE txalupan ibiltzeko.

NOR: ETORRI

- Maltzagatik NE(N)TORRELA illundu zeban.
- Ointxe DATOR izeko Maritxu!
- Uste dot egun haretan oso azkar GENTOZELA.
- Nundik ZATOZ gabeko orduotan?
- Hárek ez DATOZ bat guk diñogunakin.

NOR: IBILLI

- Gaur iñoz baiño ariñago NABIL.
- Atzo hori makiñori ez (Z)EBILLEN ondo .
- Gaur parrandan gustura GABIZ, baiña bixamona latza izango da.
- Gaur diru morduakiñ ZABIZIE, eta bixar auskalo!
- Biharrian (Z)EBIZELAKO ez dira etorri.

NOR: JUAN:

- Gaur atzo baiño bobeto NOIA, baiña denpora eskasa egingo dot.
- Zu Anderren billa zenbizenian, ha zure etxera ZOIÁN.
- Ez dot uste ondo GOIAZENIK, galdua gabiz bidia laga dogunetik.
- Gaurko txikiteuan oso azkar ZOIAZIE.
- Etxera ZOIAZENIAN ikusi zeben Arrate.

12) BERBA ALKARTIETAN SORTZEN DIRAN BEREZITTASUN FONETIKUAK:**- “EZ” PARTIKULIA ERABILLIZ SORTZEN DIRAN ALDAKETEN GAIÑIAN:**

| KASUA | ESATEKO MODU JATORRA | ZELAN IDATZI BIHAR DAN |
|---------------------|----------------------|------------------------|
| ez + b= ezp- | ezpaletor | ez baletor |
| ez + d= ezt- | eztator | ez dator |
| ez + j= etx- | etxakixat | ez jakixat |
| ez + l= el- | eleuke | ez leuke |
| ez + n = en- | enoia | ez noia |
| ez + z= ez- | ezan | ez zan |

Oharra: Eibarreraz ez dogu ez + g= ezk- egitten, ez + g= ez g- baiño: ez gara esan eta idatzi.**- “BIHAR” PARTIKULIA ERABILLIZ SORTZEN DIRAN KONTRAKZIÑUEN GAIÑEKO ARGIBIDIEN:**

| KASUA | ESATEKO MODU JATORRA | ZELAN IDATZI BIHAR DAN |
|-----------------------|----------------------|-------------------------|
| Bihar + d- | biou | Bihar dogu |
| | biestak | Bihar destak |
| | bihada | Bihar da |
| | biok | Bihar dok |
| Bihar + j- | bihaok/n | Bihar jok/n |
| Bihar + ko +d- | bihakostazue | Biharko destazue |

- ADITZ NAGUSIXA “-N”Z AMAITZEN DANIAN SORTZEN DIRAN ZENBAITT KONTRAKZIÑOREN TRATAMENTUA:

| KASUA | ESATEKO MODU JATORRA | ZELAN IDATZI BIHAR DAN |
|-----------------------|----------------------|------------------------|
| -n + d= Ø | esatetsa | Esaten detsa |
| | emoetsut | Emon detsut |
| -n + e= e | esaeban | Esan (z)eban |
| | emoeban | Emon (z)eban |
| -n + g= g | izategiñan | Izaten giñan |
| -n + go + d- | emongeuat | Emongo deuat |
| | eingou | Eingo dogu |
| | eruangostak | Eruango destak |
| -n + j= Ø | esateako | Esaten jako |
| | etortzeaku | Etortzen jaku |
| (-n) + ko + d- | etorrikok/n | Etorriko dok/n |
| -n + z= z | ikustezan | Ikusten zan |

- ADITZ AMAIERAKO BESTELAKO KASU BATZUK:

| KASUA | ESATEKO MODU JATORRA | ZELAN IDATZI BIHAR DAN |
|------------------|----------------------|------------------------|
| -t + b= p | eztakipa | Ez dakit ba |
| -k + b= p | etorriopa | Etorri dok ba |

Idatzizuz hónek aditzok modu zuzenian. Gogoratizu berba egitterakuan forma alkartuak erabilli bihar dittuzula, beraz ahalegindu danak bihar dan moduan ahoskatzen:

- ez dakitt
- izan zeben
- bihar dabe
- ez balitza
- eruango detsut
- ez zeukan
- juango dok
- ez jaukat
- esaten detsuet
- biharko dau
- ez joiak
- erosi deste
- ez nekixan
- joaten jatzu
- ez gaittuk
- jaten detsak
- ez deiñ
- bihar dozue
- ez litzake
- esango destan
- izaten zuan

13) NOR- NORK: EKARRI

- Egarri demasa NEKARRELAKO gelditu nintzan itturixan.
- Gauza larregi DAKAR eta dana jausiko jako.
- Zuendako txakoliña GENKARREN, baiña bidian eran genduan.
- Hónek gaurko haiziok ez DAKARRE gauza onik.

NOR- NORK: ERABILLI

- Atzo kotxe barrixa NERABIXANIAN birrittan gelditu jatan.
- Gaur Goñik pelotia oso gogor DARABIL.
- Jon! Zergaittik DARABIZU halan Xabiertxo?
- Maisuak txakilletan harrapau zittuan! Jainkuari eskerrak, kondoia (Z)ERABIXEN.

NOR- NORK: ERUAN

- Loibia atzian NEROIAN bizikletatik jausi giñanian.
- Ixa urtebete (Z)EROIAN erre barik, eta atzoko ezkontzan pakete eta erdixa erre zeban.
- Zuk uste dozu gaur DAROIAGUN kargia arriskutsua dala?
- Egun osua DAROIAZUE adarra joten.
- Hórrek DAROIE albo kargia! Eguardirako ple-ple eginda zoiazen eta oindiokan be zurrutian.

NOR- NORK: EUKI

- Buruko miña NE(U)KAN eta ez nintzan kontzertura juan.
- Egittekoren bat egitteko gogua DA(U)KA gaur.
- Gaillurreraiño igotzeko asmua GE(U)NKAN, baiña izoztuta zeguan.
- Gogorik ez BADA(U)KAZUE , ez zaittie etorri.
- Hórrek bixok dirurik (Z)E(U)KENEZ, danon artian ordaindu genduan.

ZER- NORK : *IÑO (ESAN)

- Guzurra zala NIÑUAN momentuan azaldu zan benetako lapurra.
- Aurrian tokirik ez daguala DIÑO.
- Gu ados gagoz, eta zuk zer DIÑOZU?
- Zarata honekiñ, ezin deutsuegu DIÑOZUENA aittu.
- Bai, oiñ hori DIÑUE, baiña atzo ez (Z)IÑUEN halakorik.

ZER- NORK: JAKIÑ

- Nik BANEKIXAN atzoko partidua ez zana amama izango.
- Jon anporlari hutsa zana BAZEKIXAN Mirenek.
- Danok GENKIXAN epaillien erabagixan ariapekua eta irutxurra egon zana.
- Zuk bakarrik ZENKIXAN Joxek arrio egingo zebana.
- Hárek ez DAKIXE ipurdixari erregiaren arpegixa be esaten jakona Eibarren.

ZER- NORK: IRUDI

- Arratek Mireni sapua detsala DIRUDI.
- Dana baltzez margotuta txirtxilla DIRUDIZU.
- Halako aboziñaukerixak egitten zittuan eze burua juan jakola (Z)IRUDIXAN.
- Danok alkarrekiñ hasi eta amaitzen dabenian Berligo Filarmonikia DIRUDIXE.

ZER- NORK: JARDUN

- Gaur goizeko bostetatik DIHARDUT biharrian.
- Kasko barik eskalatzen DIHARDU, gaurko eguraldixakin traba egitten detsala esanda.
- Jakin leike zertan DIHARDUZUEN danok alkarri begira?
- Arratsalde osuan pijo ikasten DIHARDUE.
- Ez dakitt zertan ZIHARDUAN momentu haretan, baiña danok bildurtu ginttuan.

ZER- NORI- NORK: ERITXI

- Oso ondo DE(R)ITXOT zuek esandakuari.
- Jonek garestiegixa DE(R)ITXO etxe barrixari.
- Oiñ arte ez zara isildu, baiña benetan zer DE(R)ITXOZU?
- Gure aitta-zanak samurregixa (Z)ERITXON gure bizimoduari.

14) Baldintza, ondorixua, ahalezkua eta subjuntibuaren ordezkuak erabili hónetan esaldixotan:

Maider kalera gehitxuago urten ezkero (urtetzera, urtenda) lagunekiñ hobeto moldauko litzake/ zan.

Motxilla barik ariñago joan ahal zara.(joatia daukazu)

Eguerdirako bertan egoteko agindu zeskuen.

Geltokixan sasoioz agertu (ezkero, agertzera, agertuta) heu be txangora joango hintzake/hintzan.

Lagaidak pakian Txomin, hau biharrau bakarrik egin (ahal dot, egittia badaukat), barren!

Eurixa etortzia don basarrittarrak nahi dabena.

HITTANUA:

OHARRA: Hónek ariketok hittanua apur bat ezagutzeko balekuak dira. Geure ustez, formarik garrantzitsuenak Nor (oraiñ-lehen), Nor-nori(oraiñ), nor-nork (oraiñ-lehen) eta nor-nori nork (oraiñ,singular). Trinkuetan: egon(oraiñ,lehen), ibilli (oraiñ), juan (oraiñ), erabilli (oraiñ, sg.), euki (oraiñ,sg.), *iño-esan-(oraiñ,sg.), jakiñ (oraiñ,sg) eta jardun (oraiñ).

Dana dala, klasian beste ariketa mota batzuk (ahozkuak batez be) egin biharko dira hittanorik oiñarrizkuena jaso eta erabilli deixen ikasliak. Unidadian dagozen testuetatik aparte, Juan San Martinek *Zirikadak* eta *Eztenkadak* liburueta hittanua asko darabill.

15) Osatziz esaldioxok, kontuan hartuta pertsona izenak eta gaiñerako erreferentziak toka eta noka bereizteko jarri doguzela:

Hi Jon, ni lehentxuago kalera joan..nok..

Miren, zein tabernatan geldittuko ..gaittun...?

Hi, Jon, atzoko neska hórrek ez..zittuan..Elgoibartarrak

Hori..don.... hori antxitxika egittia, aupa neska!

Hi, atzo ez ..hintzan.. ba gurekiñ hasarratuko!

Barkatu Ane, atzo ezin izan ...nintzonan.. etorri.

Baiña seme, hónek..dittuk..etxera etortzeko orduak?

Ez neska, ha igezkua ez..zonan.. Ondarrun izan, Mutrikun baiño!

Bai mutil, gaztetan ni be ez ..nintzuan... biharrerako erremia.

16) Nor- nori:

Bai Joxe, baiña hari egunero etortzen....jakok..arrebia etxeko biharrak egittera.

Benetan ba Arrate! Albokueri loteria tokau..jakone....

Hori don guzur anporra! Aneri ez..jakon/jakonan...ezertzxo be galdu.

Hire ahiztiarekiñ pasautako momentu zoragarri hárek guztiak burutik joan..jatanaz....

Mutillak, hau dok zurrutian ibilli biarra! Konturattu barik gabeko ordu txikixak etorri...jakuaz..

17) Nor-nork:

- Ondo daok! Gaur hik ekarri....nok.... baiña bixar neuk eruango...haut....hi.
- Hire senarrak ez....najon.....kalian agurtzen.
- Miren, hire granuja higuingarrixok goittik-behera busti....najone.....
- Benetan jiñuat, hórrek bixok alkarri agiraka jardun....juek.....egun osua
- Nik aguro egiñ...juat/ jonat....neure biharra, baiña hik aidian egiñ biharko...dok / don...
- Miren, amatau ..don... argixa? Ostiantzian inguruko kokuak eta fristixak erakarriko....dittun..
- Ha zonan antza!, harek ez ...jonan...etxia garbittu bere bizitza osuan.
- Hik burua galdu dok ala? Zelan ordainduko..juagu..50 milloi halako etxe aiñubia? Ezta eguzkibegixa balitza be!
- Bai neska, 18 urtekin aritzan egin...najonan.....eta ez jatan bape garbatu.
- Bixar gizonezkuek prestauko...jone..bildotsa soziedadian. Ta geu jarri, jan ederto, musturra garbittu, eta gero, gerokuak!
- Joxe, sasoiz ez jaikitziaren beti ibilli bihardok/jugu.....azken orduan harrapataka!
- Horrek medikuorrek ez jakiñ ezer artez egitten. Oinguan be artazixak gaixuaren barruan ahaztu..jittun.....
- Haundixa dok ba! Hurrenguan nik ez..jittuat...erromarak zabalik lagako eta halan behixak ez..jok/juek... ospa egingo.

18) Zer-nori-nork:(aditzak noka eta toka, bixetara jarrizuz)

- Nik hari egixa arpegira bota bihar..jetsat/..jetsanat.
- Harek guri ez..jeskuk/.jeskun.. bakian lagatzen.
- Harek Mireni ez..jetsak./.jetsan..berbia emondakua ekarri.
- Guk amari urtebetetzerako sekulakofafua prestau..jetsagu./.jetsanagu..
- Ortuan jarduteko bihar dittuan trepetxu guztiak neuk laga .jetsaraz../.jetsanaraz...
- Hárek hire lagunari ez .jetsek./.jetSEN.. xemeikorik be barkatu.

19) Trinkuak hittanuan: (aditzak noka eta toka, bixetara jarrizuz)

- Barkatu, baiña gaur/atzo oso nekatuta (ni,egon).naok./.naon... .najeuan../.najeuanan..
- Begira, han (ha,etorri).datok../.daton..hire amandria.
- Alabia osatu danetik askoz nasaixago (gu,ibilli).gabixaz./.gabiñaz.. etxian.
- Nik nahi baiño astiruago, aida ta ixo , baiña (ni, juan) banajoiak.../..banajoian... aurrera.
- Jonek zer(harek, erabilli).jarabik./.jarabiñ.. baiña, halako ariñ-biharrakiñ?

- Ikasketa bidaian beren buruari amaiñ emoteko asmua (hárek,euki).jaukek./.jaukane..
- Txilinbrizkauta daguala (harek,esan).jiñok./.jiñon..
- Lanpostu hori eskuratzeko ariapekua egon dana (nik,jakin).bajakixat.../.bajakiñat.
- Aratostietan eta kokojantzi barik, aboziñauak (guk,iruditu) .jirudixagu.../.jirudiñagu.
- Zer (hik neri,esan).diñostak./.diñostan..jai ta jornala aplikau bihar deskuela? Nahi bai, Tabuion txakurra!

HIZTEGIXA(1):

1e, 2l, 3b, 4a, 5 j, 6h, 7d, 8f, 9 c, 10i, 11k, 12g.

HIZTEGIXA(2):

1h, 2i, 3g, 4b, 5b, 6j, 7 e, 8a, 9f, 10cd.

HIZTEGIXA (3):

1c, 2i, 3h, 4g, 5j, 6f, 7b, 8d, 9 a, 10e.

HIZTEGIXA (4):

1c, 2e, 3g, 4i, 5b, 6d, 7f, 8 a, 9j, 10h.

HIZTEGIXA (5):

1j, 2d, 3i, 4 a, 5f, 6h, 7b, 8g, 9e, 10c.

HIZTEGIXA (6):

1c, 2e, 3j, 4g, 5i, 6 a, 7b, 8d, 9h, 10f.

HIZTEGIXA (7):

1d, 2 a, 3e, 4j, 5g, 6i, 7f, 8b, 9c, 10h.

Hónek esakera eta definiziñuok *Eibarko euskeraren esakerak eta beste berezittasun batzuk liburutik hartuta dagoz*. Bertatik erderazko balixokidia eta adibidiak hartu ahal dira, zelan eta noiz erabiltzen diran ikusteko.

Geure ustez jatorrenak eta joko haundixena emoten dabenak aukeratu doguz, baiña irakasliak aukeria dauka bere gustokuenak sartzeko.

Komenigarrixia da ahoz edo idatziz gehixago lantzia, kontestuak asmauta edo esaldixak osatuz.

ESAMOLDIAK (1):

1d, 2h, 3b, 4j, 5e, 6g, 7a, 8i, 9c, 10f

ESAMOLDIAK (2):

1c, 2f, 3a 4g, 5b, 6j, 7d, 8h, 9e, 10i.

ESAMOLDIAK (3)

1c, 2h, 3j, 4d, 5a, 6i, 7f, 8b, 9e, 10g.

ESAMOLDIAK (4):

1h, 2j, 3i, 4g, 5b, 6d, 7a, 8f, 9c, 10e.

ESAMOLDIAK (5)

1j, 2c, 3h, 4i, 5f, 6a, 7d, 8g, 9b, 10e.

ESAMOLDIAK (6)

1b, 2a, 3d, 4f, 5h, 6e, 7i, 8j, 9g, 10c

ESAMOLDIAK (7)

1d, 2a, 3j, 4e, 5h, 6i, 7b, 8g, 9c, 10f.

Inakurket a
gehixago

Unidade didaktikuan h nek testuok sartu doguz Eibarko euskeriaren eta Eibarko bizimoduaren adibide zuzenak izatiarren. Formarik adierazgarrixenak, erabillienak eta jatorrenak negritaz azpimarratu doguz. Dana dala, testu guztiak ez dagoz erabat eibarreraz idatzitta, batzuk batuaz dagoz, beste batzuk nahasixan... Beraz, ikastunidadian ikasitakua praktikatzeko be balio izango dabe testuok.

JUANITA LOIOLA: GERRIAK ALDATU EGIN ZEBAN EIBAR.

(Gaixak: 4 Gerria, 5 foballa, 3 Jaixak eta 1 euskeria.)

Nik gerra denporan 20 urte **nittuan**; honek dana aputzen **zetsun**: gerriak aldatu eiñ zeban Eibar ta baitta jentia. Orduan Eibarren ez **zeguan** kanpo-foballik ta Elgoibarra juaten giñan foballa ikustera. Eibarkuak ta Elgoibarkuak ez ziran ondo konpontzen ta danetik **entzutzen** zan. Baiña kuadrillia **zekagun** Elgoibarko mutillekin ta bertara juaten giñan **barriketara** ta eurekin egotera.

Jaixetan Eibarren bertan gelditzen giñan ta jente asko etortzen zan kanpotik. Ez ta pentsau bez hemendik juatia; konbidauak etortzen ziran ta etxietan egoten ziran 10-12 lagun **bazkarittan**, gero beste etxietara juaten ziran. San Juan bezperan mantekaua hartzen **genduan** Untzagan ta gero fuego artifizialak ta **ostian** musika ta dantza.

Gaztañerre ointsukua dala esango **neuke**, egongo zan baiña denpora askuan galdua egon zan. Gogoratzen dot ni txikixa nintzanian etortzen zirala basarrira familikuak ta tortilla, **tanboliñian** erretako gaztañak ta esnian artua zopetan hartzen **zeben**. Baiña hori denporiakin galdu eiñ zan. Ta karnabalak be nere denporatan ez dot gogoratzen, baiña bazegoan istorixak kontatzen zebazenak denpora haretan karnabaleri buruz. Nere ordurako asko galdua zegoen ta Franco denporan gehixago.

Euskera diferentzia zeguan basarri ta herrixan artian. Herrikua “txulituagua” zan; “esan jetsat” esaten zeben guk “esaetsat” esaten genduan bitartean. Kalian da basarrixan nahiz ta **hurrian**, holan emoten zan. Gaur egunian hau zeozer aldatu da ta ez da hain **petua**.

Koldo Mitxelena, ...eta kitto! 94-VI-3. 15.orr

VENANCIO EGAÑA:

(Gaixak: 6 Biharra, 5 Club Deportibua, mendixa, bizikletia, foballa.)

Ondarruan jaiotakoa, 14 urtekin, mutiko zala, etorri zan Eibarrera.

Eskopetagintza ikasten hasi zan Vistalegre kalian. Gabino Lizarriturri zan bere **ugezaba**. Honekin ikasi **eban** ofiziu eta baita be ugezaban etxian bizi izan zan lau urtian. **Tripa-truke** egon zan Gabinon etxian bertakoa **balitz lez**. Lehenengo urtian, asteko errial bat irabazten eban. Bigarrenian, bi, hirugarrenian, hiru eta laugarrenian pezeta bat asteko.

- Ofizua ikasi ondoren, nun hasi ziñan biharrian?, galdetze dautsat Venanciori.
- Danok-Bat kooperatiban. Hantxe, hain zuzen, galdu **nebazen** nere dirutxuak, izardi eta osasuna be ez gitxi. Ondoren, sei lagun alkartu eta geure kontura eskopetagintzan hasi giñan, Union Armera firma eratuaz. Lehenengo Ardantza kalian, trenbidia baiño lehenagoko etxian eta behe baten, eta gero Jardiñetan aritu izan giñan. Horrelaxe gure gerrara arte. Gerra denpora, garai baten, Mallabin egon nintzan eta beste apur baten Deuston eibartarrak eratu eben fusil fabrikan.

Une hontara helduaz, esan biarra dago gure Venancio eskopetagintza kontuan **puntarengua** izan dala. Etxegoan beretzat sekretorik eskopeta arloan. Baiñan bada beste gauza bat oso aipagarria Egañaren bizitzan: Eibarko Club Deportibuaren sortzaillietako bat izan zan.

- Bai, sei bat lagun izan giñan Club Deportibuary hasiera emon **gentsanak**. Antonio Telleria, Floren Zumarraga, Arando forjarixa, Illarramendi eta bostok Andres Prietok eukan taberna baten alkartzeko ohituria **zeukagun**. Mendigoizaliak giñan. Anaitasun eta politika alde batera lagata, jendearengan mendarako zaletasuna eta kirol amateurrentzat berdin sortaraztea nahi gendun. Asmo hau aurrera eruateko sortu gendun Club Deportibua.

- Zelan izan ziran hasierak?
- Lehenengo batzarrak Errebal kaleko Kontadoreko etxian zegoan Fomento Industrialen egin genduzen. Bagiñan 40 eta piku eta hauen artean sortu zan lehenengo junta, Jose Laskurain lehendakari

zala. Ni, vocal aukeratu ninduen eta Jainkoak daki zenbat urtean vocal lez jarraitu neban.

- Lehenengo zentroa nun izan zenduten Club Deportibokuak?
- Isasin, **Kiputxaneko** kafian. Gure aurrian, kamiñotik beste aldera, Mortero 42 taldekoak zegoazen. Geruago, Untzagara eterri giñan **Marianeko** taberna gora.
- Entzunda daukat eskursiñuak egiten hasi ziñatela...
- Bai, hasiera-hasieratik. Domeka gehienetan egiten genduzen **mendikarak**. Jendea poztuarazitzeko eta propaganda egiñaz, kale-jira txistulariekin egiten gendun, eta gero abiatzen giñan mendiruntz. Saitzen giñan buzoia ipintzen, iturriak sortzen, eta zer ez! Gogoratzen naiz Kalamua bideko azken iturritik goratxuago geuk ipiñi genduzela hamabi pagu. Lehenengo ibilaldiak Elgetako Leon Olabarrian esne kamioiakin egin genduzen.
- Txirrindularia be izan zara...
- Bai, Deportibuan sartu nintzanian, txirrindulari be bihurtu nintzan. Txirrindua benetan maite izan dot! Lehenengo urteera, **domeka** baten eta taldean Bizkargira. Eta nora ez gara heldu! Halako haitzetara juateko Floren Zumarragakin goizeko hiru t'erdietan urtetzen giñan Eibartik.
- Bizikleta ona zeukazun?
- Lehenengua **Alhondigeruari** erosi netzan. Geruago beste nere **gogo-gogoko** bat erosi neban: Automoto eespecial izenekoa zan eta 300 pezeta kostau jatan.
- Futbola be asko gustatzen jatzu...
- Bai, asko benetan. Ipurua egin zanetik oraintxe hillebete batzuk arte, partidu guztieta juan izan naiz. Eta atsegíñez jarraitu izan dot ostikolarien gora-beherak. Nik berihala begia **jo neutsen** Urtiaga, Garate, Ormaetxea eta beste batzuei, eta nik haietaz pentsatutakoa egia bihurtu da.

Revista Eibar, 84ko abendua, 10.orr.

SEKUN, TELEFONISTA TA FRUTA SALTZAILLE:

(Gaixak: 6 Biharra, 5 Club Deportibua, mendixa, bizikletia, foballa.)

Sekun esan ezkerro, ezagutu leike Eibarren Sekundina Egiazu. Eibarren jaio zan 1904. urtean, Ardantza kalian. Bederatzi anai-arreba izan ziran. Gaur bera bakarrik bizi da. 15 urterarte Untzagako eskolan ikasi eban Doña Angela eta Doña Petrakin. Olabekin be ikasi eban dibujatzen **Kontseju-zaharri**.

Neskatua zala, sukaldia **arenatzen** zegoan une baten, eterri **jakuen** etxera Telefonikako zuzendaria, bere **ahizta** Luisa Eibarkko telefonuetako nagusia baitzan.

-¡Oh! Qué chica mas maja, esan eutsan. ¿Ya quisieras ser telefonista?

- Si, señor.

- ¿Tienes escuela? ¿qué tal estás de ortografía?

- Ni ondo negoan, diño harrokeria barik Sekunek. Matematika gaiak asko gustatzen **jatazen**. Idazten be oso ondo aritzen nintzan. Dana dala, examiñatu ninduen Donostian eta oso ondo geratu nintzan. Euskerara itzuli edo traduzitzeko orduan, lehenena neu izan nintzan.

Eta horra hor, 16 urtekin, gure Sekun Eibarko Telefonikan sartuta. 1920. urtea izango zan. Telefonika Caja Ahorros goian zegoan, Elgetakale eta Ifarkale ertzian. Bere txanda, egunez eta baita gabaz be egiten eban. Gabaz, 10 errial irabazten eban, eta egunaz 20 errial.

Horrelaxe hogei bat urtean bi zerbitzuak egin ebazen. Ezkondu ta gero be telefonista izan zan.

65 urtertarte. Baita gerra onduan be, nahiz-eta bere ahizta Luisa eta Vicenta jaurtiak izan.

- Nobixua laga 10etan eta telefonuetara juaten nintzan. Gure etxian, bost telefonista izan giñan familiar: Luisa –Telefonuetako nagusia-, Vicenta, Victoria, gure lehengusiña María Luisa eta bostok. Luisa batez be santa bat zan.

- Bihar asko egin zenduan telefonuetan? Galdetzen dautsat.

- Bai. Milla ta piku konferentzia izaten genduzen **egunian-egunian** Republika garaia eta lehenagotik. Minimua, hiru minutu izaten ziran. Eta euregaitik 0'75 ordaindu bihar izaten zan. Orduan, klabijekin biharra egiten **genduan**. Etzegoen automatikorik. 100 abonaurentzat zeukagun kuadrua. Extranjerira be nahiko dei egiten ziran.

- Frutera be izan ziñan?

- Bai, horixe. Lehenengo plazan bertan. Gero, era berian, Indianoko palazio ataiaren dendia ipiñi gendun. Danetik saltzen gendun: fruta ta janari, patata, bildotsak –nere senar Venancio hiltzen zebazen bildotsak eta oso ondo gaiñera-, arda, txanpan eta ahal zan guztia. Gerran, baiña, dana galdu gendun. Bai denda, ta bai etxe. Bizi, Elgeta kalian, Batista igeltseruan etxian, Badeten aurrian bizi giñan. Ta dana apurtuta gelditu zan.

- Gerra garaian estuasun asko pasatu zenduten?

- Lehenengo kañonazua geure etxian sartu zan. Batetik bestera pasau eban. Nahiz eta explotau ez, Karakatetik jaurritako kañonazo haurra Toki Ederreko ostian jausi zan. Beste baten, Plaza Barrian, Leokadianeko eskaparatian **nengoala**, Arratetik **zetorren** tiro batek gitxigaitik ez **ninduan** ikutu.

- Entzunda daukat, gerra ostian. Estraperlista be izan ziñala...

- Zerbait egin bihar ba. **Goian zerua eta behian lurrakin gelditu giñan**. Orduan, barriz, fruteriakin hasi giñan. Bilbora egunero juaten nintzan, hemengo gauzen ardura nere gizonaren eskuetan lagata, gauzak erostera. Ordubateko trenian juan eta illuntzian etorri, gabeko 10etan, gaiñera, telefonista jarraitzen neban. Estraperlo apur bat be egin behar izan gendun. Naranja otsara edo zestuetan, han barruan, azpian sartzen genduzen oliyuak eta urunak. Behin, baiña, guardia civilak harrapau ninduen. Nere estuasuna! Bajakin nengoan Telefonikan. Nere bildurra zan galduko ete neban puestoa. Bihotzez, ez denunziatzeko eskuatu netsen guardiacivilleri. Aitu eben nere egoera eta ez jatan ezer txarrik pasau.

Revista Eibar, 85eko maiatza. 9.orr.

JOSE “QUERIDO”-REKIN TERTULIXAN

(Gaixa: 5 Club Deportibua, mendixa.)

Jose Etxeberria “Querido” 1912an jaio zan eibartar familia batean. Bai Eibarren eta bai Euskal Herriko leku askotan oso ezaguna da, eta oso maitatua gainera, karakter zabaleko pertsona dalako. Euskal Herria asko maite dabela argi dagoen gauza bat da, bere mendiak, jendea,... dana. Nahiz eta jendearen artean diferentziak eta gorrotoa egon, bere ustez mendian gauza guzti hauek alde batera lagatzen dira eta bertan egindako lagunak betirako izaten dira.

“Gu gaztiak giñanian ez **gekagun** orain dagozen polideportibuak, orduan gure gaztetako jolaslekuak zera ziran: errekok, herriko hormak eta mendia. Herriko hormetan pelotan egiten genduan, errekan peskan eta mendian gaztaña lapurretan. 14-15 urtekin, eta ilusioñ askokin Galdaramiñ ta Urko igotzen **genduazen**. Gero 17-18 urte inguruan hasi giñan Klub Deportibuan konkursuak egiten nagusiekin, eta gure lehenengo mendiak izan ziran Oiz, Aitzgorri,... 1934an 2000 metroko mendiak igotzen hasi giñan, lehenengua San Lorenzo izan zan, Errioxan. Baiña urte honetan, reboluziñuaren ondorioz kartzelara sartu ninduten”.(...)

“Lehenengo mendiak gerria amaitu ta gero Udalaitz izan zan. Bizikletan Kanpazar igo neban eta gero oinez Udalaitz. Klub Deportibua hasi zanian eskursiñuak kamioietan egiten genduazen, autobusiak ez zeguan ta. Hala ta guztiz mendian ibiltzeko nere laguntasuna bizikletia izan zan: Aitzgorri, Ernixora, Izarraitzera,... Gero gure lehenengo eskursiñua hemendik kanpo “Picos de Europa”-ra izan zan. Juanito San Martin geuregia zalarik, gu baiño hobea zan ta eskaladan”. (...)

“Mendian ibiltzen jakin egin behar da, mendiak asko aldatzen da eguraldiak eta horrexegaitik ez da beti bardin ibili behar. Kontuz ibili behar da mendian. Mendiak maite izan behar da baiña bere

errespetua euki behar **jako**; mendiak gu hartzia nahi gaitu, amak be bai, baña amak be noizian behin **zaplastekua emoten desku**, eta mendiakin bardin gertatzen da. **Norberak** kontua badaka ba orduan ez dago arriskurik. Mendian prisak alde batera laga behar dira, ez batzuk egiten daben moduan ia zein lehenago allegau. Bestaldetik, mENDIA EZ DA BAKARRIK ZUZEN-ZUZEN PUNTARA AILLEGATZEKO, berak dittuen edertasunak ikusteko ere bai, hau da, mENDIA EZAGUTZEKO. Akordatzen naiz Indalecio Ojanguren fijau barik igotzen zebala mendiak, bakarrik egiten zeban mENDIA IGO ETA FOTOGRAFIAK ATARA, kontutan hartu barik ze bidetik igo zan, bera atzetik joaten zan jendeari segika.

Mendian ibiltzeko **gertau** egin behar da, hobe da erropia eta janaria sobran eukitzea faltatzea baiño. Brujulia beti poltsikuan eruarea oso importantea da ze laiñua edozein momentutan etorri leike, baiña jakiña, brujulak ez detsu markatzen Donostia nun dagoen edo galdua zagozenean zer egin behar dozun; bruJulia ikasi egin behar da erabiltzen". (...)

...eta kitto, 89ko otsaila. 2.zk.

RAMON SARASUA: EUSKERIA ETA MUSIKIA BERE BIHOTZIAN

(Gaixak: 7 kultura, 4 politikia. Oso eibarrera jatorra egitten dau. Hittanua lantzeko egokixa.)

Ramon Sarasua musikuen familixa batean jaixotakua da. Bere osaba Juan Bautista Gisasola dogu, konpositoria izandakua. Gaur Eibarren daguan konserbatorixuak bere izena **daroia**. Familixan lau anaiek ikasi eben musikia, baiña bik bakarrik segidu eben: Antonio anaia nagusixak eta Ramonek.

Ramon osaba Juanitokin Orfeoi Eibartarrian egon zan eta geruago nesken koru bat formau eban Goiari izenekua.

Bere anekdota edo kontu benetako batean esan desku: "1942 edo 43an izango zan udaletxetik deittu **zestenian** La Navidad del Pobre edo Caritasekua egiñ bihar zala ta . Nik formau neban grupua, asko giñan neska ta mutillen artian: larogei bat edo , ta danok basarrittar jantzitta juan bihar **genduan**; bandia, korua, ta Olentzerua be **eguazen**. Neu be juan nitzan musikako akademixara basarrittar jantzitta **ta zain, ta zain, ta zain**, ta ez eban urtetzen **kabalgatiorrek edo zerorrek**, ta musikuak ta bandakuak zaharrak **zittuan**:

-Hi! Zer pasatzen **dok** hemen!...ixa zazpirak **dittuk** eta sei t'erdixetan **esaezkuek** urtetzeko ta..

- Ah!... **etxakixat** nik, hemen ordenak **dauazek**, ayuntamentukuak esango dabela noiz urten. Ta halakoren baten etorri jatan bat errekadista modura ayuntamentutik eta juateko plenuetako lekura. Juan nitzan hara eta han hartu **niñuen** ba, kristonak esaten!! Bandera españoliakin ez **bagenduan urtetzan ez ebala urtengo** kabalgatiak edo Olentzeru horrek esan zesten, ta nik esan netsan:

- Bueno baiña ... neri ze **esateztazue**, elixiak deittu desta neri ta ni hemen ensaiuetan hille t'erdixan egon nok eta...

Ta **amorrua** emon zestan. Bajau nitzan ta han nekazen behian arkuetan danak, larogeixak, espektatibean eguazen zer pasatzen ete zan ta esan **eusten** hauxe:

- Ta Ramon, zer egiñ **biajuau** ba...?

Ta nik erantzun:

- Nik **erabagixa** hartu **juat** nik zer egiñ **bioten**.

Ta juan egiñ nitzan eta bestiek be bardīña egiñ zeben. Horregaitxik bandiak ta Olentzeruak bakarrik urten eben. Ta gabon hurrengo egunian ugezabak esan zestan:

- Poliziakuetatik **zera daok, deixa daok**.

Denuntzia baten telegramia zan. Baiña azkenian konpondu ziran gauzak jefe poliziakua eibartar batekin ezkondu zanian, orduan **historixiori bertan behera** geldittu zan.

Ramonen osaba zan Gisasolak " Koral Eibartarra" sortu eban bere anaia Antonio zuzendari izan zalarik eta Ramon bera subdirektore. Ramon gerotxuago Koru parrokialian musika asuntuakin hasi zan eta **ondiokan** be segitzen dau; **honek koruonek badaroiaz** bizirik 80 urte inguru. Berak **daroian** korua

gizonena da. Baiña Donostian hiru bider kantau dabe: Alfako umiekin, Merzedarixak eta Aldatsekuekin be bai. Bere kantuen artian “Haurtxo kanta” da bozeta egindako kanta exitosuenetako bat, eta berak **diñonez**:

- Horrek bai, onena **horretxek urten eztan**.

...eta kitto, 1989ko martxoan.3.zk.

**IÑAZIO LEZETA ETA JOSE ALBERDI:
OIÑ ARRATIETAN DANTZAN EITTEKO GOGUA FALTA DA.**
(Gaixa: 3 Jaixak)

Arrate-Balleko hónek lagun bixok geure herriko Amabirjiñian omenez ospatzen diran jaixak iñork baiño hobeto ezagutzen dittuztela esan leike. Urte askuan ibilli izan dira bertan. Hori dala ta, Arratiak ze aldaketa izan dittuzten ikusi dabe. Euren ustez, gaur egunekoak ezin leikez lehenguekin konparau, oiñ gauza pilla bat gehixago prestatzen diralako. Halan da guztiz be, pozik gogoratzen dabez gazte denporako **hárek jaixak**, oiñguen **aldian** askoz dantza gehixago egiten zalako. Jose, merkatu plazan saltzaille dagozen basarritarren artetik gizon bakarra da. Lezeta basarriko Iñaxio, ostera, plazako saltzaillia ez da, baiña sarrittan handik zihar ibiltzen da andriari laguntzen.

- Zuen gazte sasoiko Arratiak zelakuak izaten ziran?

- Gu gaztiak giñanian dantza premixua egoten zan Arraten. Erromerixia egoten zan gehixen. Soiñua egoten zan ta dantza gehixena, soltia. **“Jazbana”** esaten **jakona** zeguan, hiru edo lau laguneko konjuntua. Egun guztia dantzan, goizian hasi ta illuntzera arte. Horixe euki genduan gure gazte denpora guztian Arrateko jaixetan.

- Gaiñera jente guztia oiñez juaten zan goizian, jatekua hartuta. Zapata-kajan eruan ta pago onduan ipintzen zeben **bazkarixori**. Holan pasatzen zan eguna. Han erromerixia zeguan ta beti dantzan ibiltzen giñan. Dantzan egitteko pagau egiñ bihar izaten zan, soiñujoliari pagau eiñ bihar jakon. Gizonezkueri kobratzen zetsen orduan, pagau ta **paparrian** txapa txiki bat ipintzen jakuen. Beittu paparrian eta ez bazeukan... tak! Dantza mordua eitten zebanak papel mordua eukitzen zeban paparrian. Hori bastante berandura arte izan da, ez dakitt, 25-30 urte izango dira.

- Egun batian Markiñan Santa Eufemian batek 21 pezeta emon **zittuan** dantzan eitteko; **jota papar guztia bete-bete eginda!**

...eta kitto 92-IX-6

PEDRO BASAURI PAGOAGA, “ PEDRUTXO”:
(Gaixa: 5 Toriadoriak, 7 zinia.)

1893. urtean, azaroaren 30ean, Eibarko Arragueta kalian jaio zen. Beraz, bere jaiotzaren 100. urteurrena izango da aurtengo San Andres egunian.

Torero trajea Eibarren jantzi zeban lehenengo bider nobillada batean. Iluminado Saenz “Iluminadito” eta Celso Saenz “Armerito” eibartar nobilleroen ordezko ezpatari gisa sartu zeben kartelean. “Atxita” ere han inguruan zebilen.

Izen handikoa izan zan “Pedrutexo” toreatzaileen munduan. 1914tik 1931ra makina bat korridatan hartu zeban parte. Ameriketan, Egipton... eta beste hainbat tokitan ere erakutsi zeban zezenaren aurrian zeukan maisutasuna. Zineko artista ere izan zan. Henri Vorins frantziar zuzendariak egindako “Pobres niños” eta batez ere “Militona o la tragedia de un torero” izeneko filmetan (Gautier-en nobela baten oinarritua), protagonistaren papera pantilaratu zeban.

“Pedrutexo” izeneko filmea, bere bizitzari buruzkoa, Hegoameriketan emon zeben. Hollywood-era

eruan nahi izan zebenian, eibartarrak, 1929. urtean, zinema munduakin zeukazen lotura danak moztu egin zittuan eta ez zan bota zinemaren “meka”n.

1921. urtean, bere bizimoduaz liburuxka bat atera eban Juan Torrabadella kataluniarrak Bartzelonan. “La vida y arte de Pedrucho” zan liburuxkaren izena.

Martin Basauri, “Pedrutxo”ren anaia, Marsellen hil zan Camargueko zezen batek harrapatuta. “Pedrutxo”k handik denbora gitxira itxi zeban zezenen mundua. Bartzelonan 1973. urtean hil zan.

Bego Azpiri. ...eta kitto, 93-XI-24

JOSEFINA, SOSOLA BASARRIKUA: KALETIK BASARRIRA JUANDAKUA.

Gaixa: 6 Bizibidiak: Basarrixoa. Euskera bizixa darabill.

(...)

- Zelakua izan zan zure baserriko hasikeria?

- “Ni jaixo nitzan **Errebalian**, kalian jaixo nitzan. Gerua o Juan nitzan **Eskareiko** errotara. **Orbetik goratxua** daguana, amama nekan han. Gero handik, ama gaixotu **jatanian Ixuara** Juan giñan. Gero hamar urtekin kriada Juan nitzan errekauskak eittera ta... Ez nekixan ez dibidir ezta multiplikar be. Hantxe errekauetan eta serbitzen, ahal zan guztian! Ta gero **handitxetik honaxe ezkondu**. Baiña hemen Joxek darabill apellirua, laurehun ta berrogeitamar urte **darioaguz** apelliru horrekin hamen. Sosola baserriean izena Gisasola apellirutik datorrerla pentsatzen dot. Gisasola beste baserri batetik dator. Gisasola baserrixa dao, liburua eta eskudua be badoaz. Ni kuarentaidosian etorri nitzan ta oiñ hirurogeita hamaika urte **dakaraz**”.

- Oiñ be zaldixakin juaten zara kalera, ezta?

“Neu ta beste bat bakarrik juaten gara holan Eibarrren. Beste bat asto **zar-zar** batekin juaten da, **Asua** baserrikua da bera. Tenbidian azpixan daozen tuneletatik juaten da **horra baserrira**. **Haratxeño** ekartzen dau astua ta lagatzen dau. Ta neri dana protestia: ez lotzeko ta... ondiño! Usaiña emoten dabela zaldixak ta ez lotzeko! Ta esan notsan: ba bai! Lotukot ba! **Hementxe lotukot!** Errresidentziako batek be **esaeztan**: - badakizu zer pasatzen dan hamen, kanpokuek aginduak **emotezkuezela** ta guk **eztoula** ezer **aiñdutten** hemen!

Ta zer eiñ neban? **Alkatesiana juan ta esan notsan, hauxe ta hauxe gertatzen jata. Juan daneko berrogeita sei urtian edo zazpixan egunero-egunero etortzen naiz ta...**

- Lotu zuk, **esaeztan**, zuk lotu eta ezer badakazu kejarik etorri.

Ta bueno, holan segitzen dot. “Furia “ zaldixa be aurrera doia, ta holantxeik, hemeretzi-hogei bat urte eukiko dittu honezkerio.

(...) Zelakua da Eibarko jendia baserriko produktuekin?

“Txarra. Ze, **esangotsut**, zaldixan **badaroiadaz** porruak, edo letxugak, edo zeozer, iñor **etxata** etorriko. **Jakiñian dendan gehixau pagau bihar dabena**, dendara juaten dira! Iñor **etxatzu** etorriko ta, - zu, honek zenbaten? Holakotxe jentia dao! Nik **eztot** entenditzen **hori martxiori!** Nik pentsatzen dot baserrittarreri ez emotiarren dala dana edo bestela, tonto batzuk dia!

Oiñ itxuria jentiak deskremaua bihar dau, ez loditzeko edo. **Ha zerekiñ eiñdako esnia dan nahi neuke jakin nik!** Nik sebuakin da hazurrekin eitten dabela pentsatzen dot. Gure esnia hiru egunian ezin leike eukin **galdu** barik ta, hille bixan egoten dia horrek esniok, zer dake ba?

-Zer eiñ biharko litzake jentiak baserriean biharra eiñ **deixan**?

“Nik **estakitt**. Baserrixa nahi dau jentiak oiñ txalet moduan edo, denporia pasau ta soziedade moduan, **hori ezta martxia, eh!** Ta baserrixa dana undira bihar da! Hemen **Arrate aldian daoz bat eta bapez badaozenak basarri mordua**. **Arrate ballen be iguala doia**. Zera, bapez. Segidark ez. Eztot entenditzen nik. Holako politxa da baserrixa baiña, neretako bai, neri asko gustatzen **jata**.

Jentiak nahixao dau **kintzenia**, sobria hillan azkenian, ha ona da. Hamen ezta ikusten soberrik. Hamen igual hartzen dozu frutia edo ta hartzen dozu dirua. **Oiñ, jatekua beti! Edurte batek hamabost egunian joko baleuke, jatekua eukingo geunke!** (...)

Idoia Irazola Lasuen, ...eta kitto. 91ko urtarrila.

ELGETA ERREKADISTIA

Gaixa: 6 Bizibidiak

Anizeto Oiartzabal, “Elgeta korneta” zan eibartarrontzat. Batetik, Elgetan jaioa zalako; bestetik, bere eginbeharraren ezaugarritzat kornetia erabiltzen **ebalako**. Luzea zan gorputzez. Nahiko **zimela**. Tiple abotsa zeukan. Bestalde, oso alaia zan. Orduko eibartar jendiak astero-astro, bai Gasteizeruntz urtetzerakoan, bai handik bueltatzerakoan, bere kanta ta korneta soñuak entzuten **ebezen**, eta gustora gaiñera. “Oeste”ko pelikuletan ikusten diran antzeko karro haundi bat zeukan. Hiru mando ederrek bultzatzen eben karroa. **Eta, zer etzan han sartzen!** Vitorixatik gauza asko ekartzen ebazen: kartutxoak, gatza, txokolatiak, azukre kortadilluak...zer ez! Eruan be danetik eruaten eben. Gauzak, diruak, enkarguak mota guztietakuak.

Mando ta karraua eukitzeko korta Bidebarrieta kalian zeukan, gaur Iraolagoitiaren liburu denda dagon lekuau.

Ausarta zan gure Elgeta errekadistia. **Ibilli egin behar zan gero ha ibiltzen zan moduan**, bakarrik eta askotan gabez. Izan ebazen bere arrixkuak. Behin, berak jakin barik, arazo larri baten sartu eben Plaentxiako arma fabrika batekuak. Sartu **etsezen** legetik kanporako arma batzuk eta guardiacivillak bera be gaizkile edo konplize **lez** hartu **eben**. Hori dala-ta, beste batzukin hillabeteak pasatu bihar izan ebazen Burgoskko espoxian. Eskerrak, epe hartan, bere emazte Guadalupe Belastegik seme gaztetxoen laguntasunakin, jarraitu **eutsala** Gasteizerako **juan-etorriari**. Emakume ausarta, benetan, Guadalupe. Zazpi seme alaba izan **ebezen**. Elgeta errekadistia Eibarren hil zan 76 urtekin 1940. urtean. Berakin amaitu zan igarotako gizaldian hasitako Gipuzkoan zegoen errekadistarik ospetsuenetako bat.

P. Revista Eibar, 84ko otsaila, 6.orr.

JULIAN MUÑOA – MARIA ZABAleta

Gaixa: 6 Bizibidiak, Aurrerapenak.

Hotel Julian famatuko Julian Muñoa oso ezaguna zan Eibarren. Jaiotzez etzan gure herrikoa, Elorrioko baizik. Hantxe, “Basterretxe” basarrian jaioa zan 1885. urteko maiatzaren 27an. Gaztetatikan, baiña, 14 urte ezkerro, gureganatu zan.

Pedro Zabaletak, Bidebarrieta kalean –gero Hotel Julian izango zan lekuau bertan- fonda bat zeukan. Honera etorri zan Julian.

Zabaleta ostatukoak bazeuken karro bat eta zaldia bera erabiltzeko. Zaldia, hain zuzen, hantxe **goratxuago**, Batzokia egon zan azpian, gordetzen eben. Julian Muñoa izaten zan zaldiaren gidari ta bai, egunik-egun, juan-etorriak egin be estaziñora karrikotxe hartan. Hori zan bere eginkizunetako bat hotelian: kargak eruan eta ekarri eta berdiñ jendeak.

Fondako ugezabaren **loiba** bat be **hantxe** bertan lanean zegoan. Maria Zabaleta zan bere izena. Hau, Azkoitin jaioa zan, “Kategi” basarrian, 1881. urteko uzaillaren lehenengoan, eta, berdin, oso gazterik Eibarrera etorrita zegoan osabaren babesera.

Fonda hontan, hain zuzen, agertu jakon bere kozinera bokazioa Maria Zabaletari, eta fonda hontan entzutetsu egin zan **puntarengو sukaldari lez**. Askori erakutsi eutsen sukalde gaiak. Berakin egondako beste kozinera on bat –Frantziska Ganuza, Venancio errekadistaren emaztea- hau be

aipatzekoa da.

Eta hementxe bertan, Bidebarrieta kaleko fondan, Jainkoak nahi izan eban Julian eta Maria alkar ezagurtu, maitemindu eta uztartzea. 1907. urteko ilbeltzaren 11n izan zan, Eibarren, beren ezkontz eguna.

Laister beren kontura geratu zan fondaren zuzendaritza eta jabetza. Hortik datorkio Hotel Julian izena.

Julian Muñoa ausarti agertu zan negozio kontuan beti bere gizatasun eta bihotz ona gauza guztian gaiñetik azalduaz. **Barriketa bakua**.

Bera izan zan, gure gizaldiaren lehen urteetan, lehenbiziko kotxea Eibarrera ekarri **ebana**. Berak ipiñi eban lehenbiziko aldiz taxis zerbitzua. Zazpi taxis eukitzera heldu zan. Beti sei taxis **gertu eukitzen ebazen**. Eta 30 eta piku urtean Jainkoak daki zenbat zerbitzu egindakoak diran.

Bidebarrieta goian, Vistalegrerako igoera hasten zan aurrez aurre, euki eban garajea. Era berean, Zuloaga kalean beste bat jarri eban, hau batez be erreparazioetarako. Hemen ezagutu gendun eibartarrok Jose Mari Fernandez mekaniko **puntarengua**. Eta honen anai Isidoro, txoferra. Eta beste asko ta asko, Julian beraren semeengandik hasita. Fondaren aurrean, ia Merkatu Plazari ikutzen, gasolinera bat be ipiñi eban Julianek. Era berean eta bere kontura beste hiru gasolina -agentzia jarri zituan Elgoibar, Markiña eta Bergaran.

Bitartean, ixil-ixilik, baiña leial eta bihotzez, aspertu gabe bederatzi seme-alaben laguntasunakin, etzan lanean geratzen ama Maria Zabaleta. Hotel Julian fonda **lez** eta kafeteria arloan berdiñ, oso goi maillara eruan ebazen.

Zoritzarreko gerrak apurtu eban famili hartako zoriontasuna. Durangoko bonbardeuan hil zan Julian 1937ko martxoaren 31n, 52 urte zituala. Bere emazte kutuna handik zazpi urtera, 1944ko iraillaren 4an.

Julian eta Maria ahaztu eziñezkuak dira guretzat. Orduko Eibar kutunaren zati bizi eta eredugarri izan ziran.

Revista Eibar, 84ko apirilla. 6.orr.

EIBARKO BAILARAK

Txanguak egitteko eta toponimia ikasteko testu aproposa.

Gaurkoan **Eibarko** bailarei buruz hitz egingo dugu. **Eibarrek** bost bailara dauzka: **Kiñarraballe**, **Arrateballe**, **Gorostaballle**, **Mandiolaballe** eta **Agiñaballe**. Hauek herri bakoitzeko mugarriekin banatuta daude.

Maltzagan hasten da **Kiñarraballe**, eta hemendik **Irure** eta **Illordo** baserrietairaino igota, alde batekoa **Eibar** eta bestaldekoa **Plaentxia** da. **San Salvador** ermitaraino igotzen jarraituko dugu eta hemendik **Bergaretxegaineraino** dena da **Eibar**, baina hemen **Bergarako Goimendi** auzoko mugarri bat dago. Pixka bat gorago **Elgetako Azurtza** dago, eta bertan **Elgeta** eta **Eibar** banatzen dituen mugarria. **Azurtzatik Galdaramiño** igo eta alde batera **Eibar** eta bestera **Elgeta** izango ditugu. **Galdaramiñotik Bizkaia** eta **Gipuzkoa** arteko muga egiten duen **Zaldibarko Olarriaga** auzora jaitsiko gara. Hemen bukatzen da **Kiñarraballe**.

Kalamua mendian jaiotzen da **Iruñabe** eta **Iruñakoerrota** baserrien artetik **Elgoibarko Saturixora** jaisten dan errekatxoa. Errekatxoaren alde bat **Elgoibarko San Pedroballe** eta bestea **Arrateballe**. Bigarren bailara hau hemendik **Arratera** doa eta handik **Lezeta**, **Abeletxe** eta **Sumendixa** baserrietan behera **Azitainen** bukatzen da.

Gorostaballe Eibarko baserririk garaienean hasten da, **Txabolan** hain zuzen ere, ondoren **Santa Kruz** eta **Asua-errekan** behera **Barakaldo** kalerairaino hedatzen da. Bailara honetan daude **Orbe**,

Biriñau, Marapilla, Narbaiza bertsolariaren jaiotetxe **Ezkaraierrota, Gorostagaineko** eta abar luze bat.

Mandiolaballe Akondia menditik **Ixuara** zabaltzen da, **Urkoraino** jarraitzen du eta **Olarriagaraino** jaisten da. **Urko** mendiak lau zati ditu: batek **Ermura** jotzen du, besteak **Markinako Barinagara**, beste batek **Mallabira** eta azkenak **Eibarrera**. **Urkon** behera **Ermuko Elorreta** baserrietatik igaroko gara, eta hemendik bailara bukatzen den **Olarriaga** auzora eta bertako benta ezagunera.

Bostgarrren eta azken bailara **Agiñaballe** da, **Ixuatik Markinaino** zabaltzen dena. Bertan **Gorostiza, Zumaran, San Roman** eta **Arandoak** baserriak daude. **Agiñagako** elizaren ondotik, **Agiñazpi** eta **Agiñagain** baserrietatik **Bariñagako** mugarria dagoen **Orei** baserrira joango gara. **San Romanetik Kalamuara** igoko gara, eta hemen, **Urkon** bezala, mugarri banaketa daukagu: **Ixuara** ematen duen aldea **Eibarkoa** da; beste bat, **Elgoibar**; hirugarrena, **Illagoitxi** eta **Illazpe** baserrietan behera, **Barinaga**, eta beste aldea, **Lomiño** baserrira goazela, **San Andres de Etxeberria**.

Hemen bukatzen da Eibar eta bere bost bailaren inguruko ibilbidea, zalantza gabe, gure herria hobeto ezagutzen lagundi gaituena.

Revista Eibar: Imanol Ortiz de Zarate, Geu gera, San Andres egoitzako aldizkaria, 10. Zk.tik itzulia

MANUELA TXOPA

Gaixa: 7 janarixak. 6 Bizibidiak. 4 politikia

Gure gerra aurrean, Eibarko kozinerarik entzutetsuenetako bat Manuela Txopa zan. Itxura danez, sukaldari artea odolian **zaroian**. Egona zan, gaiñera, kozina ikasten Txatxaramendin eta baita be Altzolako hotelian.

Eibarko ostattu onenetatik –adibidez Badet eta Hotel Julianenek- sarritan deitzen zetsen beren jatordu haundienetan laguntzaille buru bezela. Zenbat aldiz ez ete zan juan Orbeanera, etxe hartako banketeak **gertatzera!** **Ikustekoa zan, gero**, Manuela Txopa, amantal zuriz jantzita, kalez kale, berak egindako tarta eder bat bandejan eruaten etxeren batera.

Bere etxeian –Kandido hojalateruan etxian bizi zan Ibarkurutzen- ostattua zeukan **apopillo** jakin batzukin. Eta gaiñera askok eskatzen zetsen reposteri gauzak eta baita ere beste janari batzuk egiteko. Era berean, sukalde gauzak ikasi nahiean, **asko eta asko** pasatzen ziran bere etxetik. Baita ere, eta ez behiñ bakarrik gaiñera, sukalde arteari buruz kursilloak eman **zituan** Eibarko andra askoren probetxurako. Manuela Txopari esker kozinera **puntarengo** izatera heldu ziran gure herriko emakume asko eta asko. (...)

Ama Manuelan etxian apopillo zeguan guardia civilen kapitan Garrigos jauna. Octubreko Reboluziño egunian, Manuela arduratuta zegoan **etzetorrelako** bazkaltzera kapitana. **Giro ederra zegoan kuartel inguruau bazkaltzera etortzeko!** Manuelak, baiña, bihotzak bultzatuta, eta nahiko arrixukin bialdu eban bere seme Juan kapazotxo baten kapitanari jatekua eruatera. Sozialisten kontrol batzuk pasau ondoren –hauek ere bihotza baizuten- laga **zetsen** jatekua eruaten. Eta bai eskertu be kapitanak hain detalle zoragarri hau!

Handik urte bira, anai arteko gerra zala-ta, bazkal errekaera egin eban Juan hiltzeko epaitua zegoan frankotarren eskuetan. Estu ta larri juan zan ama Manuel Garrigos jaunarengana. Etzan erraza honengana heltzea Donostian. Baiñan honek entzun bezin laister Manuela Txopak bera ikusi nahi ebala, hartu eban harrera eta borondaterik onenakin. Baita Manuelak, negarrez, esan be bere seme Juan hiltzeko zorian zegoala. Orduan Kapitanak: Zeiñ? Reboluziño egunian neri jatekua ekarri **zestana?**

- Bai, hai xe bera.

Ta kapitanak agindu zetsan Manuelari bere eskuan zegoan guztia egingo ebala Juan askatzeko. Eta **halaxe** gertatu zan.(...)

“AMAÑA” .Revista Eibar, 83ko eka.-uztailla,26.orr.

FRANCISCA ARRILLAGA

Gaixak: 7 egunero kotasuna, modia, ziniak. 3 Jaixak.1 Antxiñako Eibar. 4 Gerria

- Noiz jaio ziñan?
- 1893.ian, oingo Toribio Etxebarria kalian, “**Andres Arro**”nian, han beheko etxian. Gero juan giñan “**Guardia**”neko gora. Han bizi izan nintzan 32 urtian.
- Nun zeguan Guardianeko tabernia?
- Frontoi Zaharreko ertzian. Oiñ Serapianeko dendia dagon lekuan. Hantxe eguna Guardianeko taberna entzutetsua. Entzute haundikoak ziran, bai, Guardianeko **konpuestuak**. Guardia bera –Larraza jauna- ibiltzen zan, kalera urtenda, bere konpuestua saltzen. Etzan nahaste bat besterik: erdixa kafia etra beste erdixa **pattarra**. Negoziante hutsa zan Larraza jauna.
- Nun egiten ziran jaiak orduan?
- **Plaza Barrixan** be asko. Gogoratzen naiz **Aratostiak** Plaza Barrixan ospatzen zirala. Don Ziriako eta bizi ziran onduan. Orduan Untzaga bera baiño gehiago izaten zan Plaza Barrixa. Gogoratzen naiz ni txikia nintzala zelan jentia ibiltzen zan leku hartan alkarri oratuta, pasiuan eta saltoka. Untzagan bertan baiño alaitasun gehiago egoten zan.
- Gogoratzen zara lehengo Untzagakin?
- Bai horixe! Arboladi ederra zegoan Untzagan. Eta San Juanen ermitia. Amigoneko kafia be Untzaga ertzian zeguan. Gero Nochenekua izan zana, **haixe** zan, lehenago Amigonekua. **Hantxe aurrian**, plazia itxi eta teatruak egiten ziran oiñ musikia **joten** dan ingururuntz. Gu, neskatillatxuak, Amigoneko bittartietatik ikusten gendun teatrua. Amigonekua herrixan lehenenguetakoa zan. **Txatxananekuak eruaten eben hango martxia**.
- Han zeguan, zure txiki denporan, Salon Teatrua?
- Bai. Aspaldikua zan. Arratsaldian, domeketan, hantxe joten eban organilluak eta, gabian, musikia izaten zan. Arratsaldian sartzeko hiru **xemeiko** bihar izaten ziran. Eta gabian **errialia**. Baiñan, askotan, ez genduan errialik be izaten! (...)
- Gerra denporan, nun egon ziñan?
- Nik ez neban Eibartik urten. Hori bai, estuasun haundiak pasatu **genduzen**. Nahiko ordu pasatzen genduzen abioien bildurrez orduan egiten ziharduen Banco Gipuzkoanoko etxe azpian. **Haraxe** juaten giñan **antxitxiketan** hegazkiñen bildurrez, ustez han seguru geundela.
- Gerran, nik eztakit zelan salbau giñan. **Ha azkenengo bonbardeua O'Domell kalekua ikaragarria izan zan**. Ni Otola basarrira asko juaten nintzan. Hantxe **nengoan** frankistak sartu ziranian. Eibar negargarri geratu zan. Nik dana erretzen ekusi neban. Herrian sartu eziñ eta Jardiñetatik bueltan etorri bihar izan giñan Arraguetara. Gero, gose haundia pasau gendun. **Harek ogi baltzak jan bihar lastuakin egindakuak!** Mixeria haundia. **Danok alkar jatia zan orduan be**. Gogoratzen naiz zelan juaten nintzan **arrantxo** billa Auxilio Socialera. **Nere ama, horraitio, iñoi ez neban eruan**. Beretzat beti zerbait izaten neban. **Gurasuak, gero, gauza haundia dira!** Ta azkenian be, Jaungoikuak beti laguntzen dau eta danok behintzat bizirik urten gendun.
- Beste gauza asko, lehengo Eibarreri buruz, kontau eustazen Frantziskak. Orduko jantziak zelakuak ziran, adibidez.
- Andrakumiak, marinera eta goniakin eta txaketaxoren bat **baeguan** negurako. Gero hasi ziran

jersiak eta.

Aste guztian erropa batekin. Ez eguna elegixarik! Gizonezkuak, tunika bat jantzi eta aste guztian halaxe. Umiak, aurreko amantaltxo batekin jantzi –kalau batzuk ertzian eginda- eta eskolara bialtzen **genduzen**. Senzillo bizi zan jentia. Gero urten eben lujuak. Ha beste bizimodu bat zan. Guardianeko etxian, 15 pezetako errentia **geukagun**. Irabazi be gitxi egiten zan. Biziorik ez. **Zelan hartzen jakozneurriak bizimoduari!**.

Revista Eibar, 82ko maiatza, 7.orr.

FELISA AZKARRAGA

Gaixak: 2 Eskolia,Dibujua, 6 Biharra. 7 Teatrua eta korua, ohitturak

Felisa Azkarraga **gatz eta pipar** haundiko andria da. **Eibartar peto-petua**. Bere aita sastria zan. “Sastre txikixa” lez ezagutzen eben orduko eibartarrak. Oraintxe dala 86 urte jaio zan. Felisari, baiñan, 86 urte hoiek ez diote kendu bere irripartasun, gatz eta umore ona.

- Felisa, nun izan zan zure lehenengo eskolia?

- **Txiki-txiki** nintzala, Ibarkurutzeko Arrautzianeko ume txikitxoen eskolan sartu ninduen. Han zaintzen **giñuzen** Jose Larrañagan amak eta **amandriak**. Euren etxeko bigarren bizitzan zan. Han **eukezen** banko txikitxo batzuk eta gu han jarrita ipintzen **giñuzen**. Han ibiltzen zan amandria bueltak emoten gure inguruan eta bai sarritan be oriñalakin gu txikitxoei laguntzen.

Gitxi pagatzen gendun eskolatxo hartan, **baiñan bai burrukan egiten gendula gogotik. Nahiko atximurkadakin juaten nintzan etxera**. Bai beste asko be nik egindakuekin.

Gero Felisa Alhondigako eskolan ibilli zan.

- **Eskolan – diño berak- nahiko lista nintzan, baiñan** martxando gehiegitzo egiten nebazen. **Hasi nintzan baita ere Dibujora juaten.**

- **Norekin eta nun?**

- Jazinto Olabekin. Dibujua asko gustatzen **jatan**. Nahiko sakrifizio zan gurasoentzat, **pesetia hillian** pagatu bihar zalako, **baiñan ni ez nintzan gelditu hantxe sartu arte**. Goizian, Alhondigako eskolatik urten eta 11etatik12ak arte. Arratsaldian, 5etatik 6retara. Klasiak izaten genduzen Elgetakaleko ertzian, Juzgaduan **aurrez-aurre**. Gogoratzen naiz (...) Jazinto Olabek esaten **euskula**: “Zuetako 20 neskakin baiño nahiago dot 40 mutillekin Dibujua erakusten egotia”.

Baiñan ni, nahiz eta **bihurritxua** izan, asko ikasi neban Dibujo eskola hartan. Gurasuak, baiñan, josten ikastera eruan nahi ninduen. Nik, barriz, gogo gitxi hortarako: grabadora izatia nahi neban. Eta **izeko Juanakin juan nintzan egun baten Gandiaganera**. Erakutsi **netsazen** dibujuak eta harek esan **eustan**: Etorri biharrera nahi dozunian”. 14 bat urte **neukazen** han sartu nintzanian. Gandiaga oso ona zan guretzat. Egunero-egunero, gaztetxoei ordu beteko aukera emoten **euskun** papelian dibujatzeko mahaitxo baten. Laster ipiñi **eztan** baita be **zidarrian** grabatzen. (...)

Biharrian **geundela** asko kantatzen gendun. Batez be antxiñako kantu ederrak. Gandiaga bera be oso kantari ona zan.

- Kantoria be izan zara, Felisa...

- Bai eta ez txarra, gaiñera. Mariaren alaben kongregaziñoko koruan, 15 urterako hasi nintzan kantuan. Don Poli Larrañaga abadia zan gure zuzendari. Berakin egiten genduzen Errebal kaleko Barberukan ensaioak. Pianista zan Gregorio Orbea eta kantorak 13 bat lagun. Ensaioak gitxienez astian behiñ egiten **genduzen**. Kantau, barriz, Kongregazioko egunetan, eta maiatzian egunero, Ama Birjiña Sortzez Garbiaren bederatziurrenian, eta abar. Perosiren meza eta beste bi ikasi genduzen. Ez **genkigun** solfeorik, baiñan Don Poliren teknika batzukin nahiko ondo arreglatzen giñan. Don Agustin Enbil parrokuak, urtian behiñ, merienda goxua emoten **euskun**. Orduan jaten genduzen Maria

Tabernerriak egindako nahiko **txutxu**. Eta mahai azpian bandeja gordetzen gendunok gehiago oraindik.

- Teatrista be izan ziñan...
- Bai, Kongregaziokuak teatro talde bat formatuta gendukan Don Poli zuzendari zala. Batez be Karnabaletan egiten genduzen teatruak Salon Kruzetan. Don Poli zan zuzendari eta apuntadore.

- Zelakua izan zan zure gazte denboria?

- Guk **ederto** pasau gendun gure gazte denporia. **Ni bihurritxua banitzan bai apurtxo bat. Beti zirikadaren bat sartzeko goguakin.** Behiñ gogoratzen naiz apaiñ elizara juateko asmuakin, orduantxe ezkontzeko zegon nere ahizta Eugeniaren ezkontz-mantilla hartu netzan. **Bueltan izan ziran komediak!**

Aita zuzena zan. Ez **euskun** lagatzen dantzaldietara eta juaten nahiko nagusi egiñ arte. Eta gero be **erretirua** oso ondo gorde bihar izaten zan. Ama, gaiñera, ez zan ogera juango, danok etxera eterri arte.

- Noiz ezkondu ziñan?
- 27 urte **neukazela** eta Karnabaletan. Ez naiz asko gehiago gogoratzen. Nere anai Florentino be orduantxe ezkondu zan. Bi parejok Ama Sortzez Garbiaren altarean ezkondu **giñuzen** Don Felix Ibargutxik. Egun harten bertan ezkondu ziran baita ere Justo Oria, Tomas Egurrola eta beste Ardantzako bikote bat. Ezkondutako gehienok Madridera juan giñan biajian.

Madriden soldadutza betetzen **zegozen** Galarraga eta Tomas Amuategi. Haiekin asko ikusi giñan egun haietan. Beren nobixak emonda eruan **eutsaguzen** sanblaskopil bedeinkatuak. **Ta bai gustora jan be danon artian hantxe Madrideko kafe baten.** (...)

Revista Eibar, 82ko apirilla, 7.orr.

AMANDRE ESTEFANIA: 100 URTE

Gaixak: 6 Ekonomia, biharra, 3 jaixak eta errromeriak, 4 Gerria

Estefania Arruti Irazabalbeitia, Eibarko **amandre** beneragarri bat da. Ehun urteko mugan dabil. San Iñazio egun baten ikusi zun lehenengo aldiz munduko argia Urkiko Takillango basarrian.

- (...) – Noiz ezkondu ziñan, amandre?
- **Gazterik.** Don Valerio Bidaurre, “Parroko tuertua” elizako nagusi zala. Juan Jose Osoro zan nere senarra.

- Ni gaztetxo nintzala –diño- sei **perro** t’erdian zegoan lauko ogia. **Fota bi txakur eta erriala** kostatzen ziran. **Azunbre** esnia, hiru perro t’erdi. Eta nahiko kafe bi errialekin. Ezagutu neban denpora bat, bai, ogia eruaten gendula baiñan liburuan apuntia egiten zan, gero hurrenguan ordaintzeko.

Etzegoan dirurik. Nere gizonak Alfan lan egiten eban. Bertako sortzailleetakoa zan. Baiñan urte batzuetan, **biharraren truke** ez gendun dirurik ikusten, txapak baizik. Asteko irabazia bederatzi txapa ziran. Txapa bakoitzak durua balio eban eta haietan erosten genduzen gauzak kooperatiban.

- Egia da susto haundia izan zenduela **izko** batekin?
- **Bai horixe.** San Juan batzuetan estuasun haundia izan gendun. Atara eben izkua Torre Zaharreko plaza aurrera eta **hara hor izkuak iges egiñ ebala**. Ubitxako basarrian atera eutsen **iria** eta honek bota eben izkua modu txarrian, Gu Iturrao basarrian jokuan geundela, ikusirk ikzua **hurretik** pasatzen, **estutu** giñan ta bai etxe barruan sartu ere.
- Frantziara be heldu zara, amandre?
- Bai, gerra zoritzarrekuan Santanderrera eruan **giñuzen** eta nere **loibia** eta familikoak zaintziarren juan bihar izan nintzan Frantziara. Nik, ordea, ez dakit zelakuak diran lurralte haiet. Ondo, bai, ondo hartu **giñuzen** hango jendeak. Eta ni etxean egoten nintzan **umezaiñ** eta **jerseygiñan**. Horrelaxe hiru

bat hillabete, beti Eibarrekin pentsatzen.

- Jolas eta lan asko egindakua zara?

- Jolas askorik ez. Biharra bai ugari. Erromerira Azitainera juaten giñan. Orduko erromeriak ederrak ziran: goiz hasi eta goiz amaitu. Avemaixtarako etxera. Musikako lehenengo txanda akabau eta etxera **antxintxiketan**, gurasoen esana ondo betetzeko.

Amandria etzan,ez, kaleko emakume ibiltaria. Iñoz etzan Pabelloiko zinian sartu. Ordubete bat libre baeukan, basarrira juaten zan biharrera. Biharrerako lotzsarik ez dau izan iñoz, ezta damurik be biharra egin beharrarena. Oraintxe arte, bere etxetik **Eibarko martxari jarraitu dio**. Eta oraindik ere, bere buru **zolian**, Eibarko azken larogetitamar urteetako historia **darioa**.(...)

Revista Eibar, 81eko abendua, 7.orr

PERIKO KRUZETA

Gaixa: 7 zinia

Txontan jaio zan Periko Kruzeta. Hantxe, Karmeldarrak gero egongo ziran lekuau. Beste aldi baten Arraguetan bizi ondoren, bere familia izan zan Estaziño kalian lehenengo egin zan etxian bizi izan zana. **Harrezkero** bere bizitza guztian Estaziño kalian iraungo eban. Gandiaganeko aurrerz aurre jaso zan Casoino Artista, Perikoren aita gidari zala. Gero, ados ez zetozelako, handik aldendu egin ziran Casino Artistakoak -behia eta lehenengo pisua erabiltzen ebezen- eta orduan, behia kafe bihurtu zan eta lehenengo pisua etxebizitzaz.

Kafe Kruzetan bailia egiten zan garai hartan! Ah, baiña edozeiñ emakumek ez zeukan han sartzerik: moiñodunak bakarrik dantzan egin **zeikien!**

Konpañia asko etorzen ziran Salon Kruzetara. Eta kantore eta kantora famatuak. Emilia Bracamonte, Raquel Meller, Cornadó anaiak **eta nik dakit zenbat gehiago**.

Periko Kruzetari esker ekarri zan Eibarrera zinia. Juan zan bera Bilbora, liburu batzuk erosi, estudiatu eta bere kontura eta berak bakarrik montau eban zineko makiñia. **Eta gero, zenbat bihar ez ete eban egiñ gure Perikok kafetik aparte, zinia zala-ta!**

Baita ere berak eta bere aitak, zinetik haruntz, gaur maternidadia dagon lekutik haruntz, pelotaleku bat jasotzeko asmoa euki eben, bai planoak egin be, nahiz eta gero lortu ez asmo hura.

Periko Kruzeta, bere sasoian, oso billarista ona izan zan. Onena urte askoan. Ikusi besterik ez dago 70 urtekin zelan urten zan txapeldun. Baita be oso jokulari ona zan txameluan, hau da, dominó antzeko joku hortan.

P. BIDEARRIETA, Revista Eibar, 84ko eka.-uztailla, 26.orr.

PATXI ARANAKIN BERBETAN

Gaixak: 6 Biharra, 5 Pelotia, 3 kalegirua.

Patxi Arana Aristondo **eibartar peto-petua** da. Bihotz oneko gizona, benetan. Eibartar jatorra. **Bihargin sutsua. Pelotazale purrukatu**a. Eibarko historiaren gertakizun asko bere buru ta bihotzian **darioiaz**en ezkerro, oso atsegíñ da berakin berbaldi bat egitia. Hona hemen berakin egindako jardunaldiaren gauza batzuk...

- Patxi nun jaixo ziñan?
 - Untzaga kalian. Oingo Kalbetonian, Bilbozarren ertzian, oktubrearen 10ean, 1879 urtian.
 - Denpora asko eskolan?
 - Oso gitxi. Ezta bi urterik be. Nere eskolia Bidebarrieta zan, oiñ eskola barrrixak dagozen lekuau.
- Maixuak: Segundo Maiora eta Arrateko maixua.

- Zenbat urtekin hasi ziñan biharrian?
- 12 urtekin. Txomonian bost bat urte egin nituan.
- Gero nora?
- Kintananera, estaziño aurrian, Matxarira **goiazela**.

Hemen, pistolagintzan egiten gendun. Bi urte egin **nebazen Kintananian**. Gero **Korriuanian** –G.A.C- egin nebazen beste hiru urte. Huelga bat dala-ta **urten bihar izan neban** Korriuanetik.

Zergaitik huelga?

- Hara ba. Gure biarra izaten zan goizeko 6retatik 8rak arte. 8retan ordu erdi libre izaten genduan gosaltzeko. Sartu barriz ta 12ak arte. Bazkaldu ta ordubatian barrura 7rak arte. Bihargiñak eskatzen gendun arratsaldeko 6rak arte. Hori ez **eskuelako** emon, juan giñan huelgara.

- Huelga ondoren nun egin zenduan biarra?

- Urkusuan –Orbeanian- 21 urtekin sartu nintzan ta 28 urtera arte jardun neban. Biharra gastau zan ta urten egin bihar. Orduantxe hasi nintzan **nere kontura**.

- Nun?

- Bilbozarrian. Iturritxo laguna neban ta harek emon zestan lekua bere tallarrian. **Hantxe**, nere kontura, 14 urteko gazte bikin hasi nintzan biharrian.

- Zer egiten zendun?

- Pistolianzako pieza soltiak. Tallar hartan 16 arte egon giñan. Handik Dos de mayo kalera etorri giñan. Hemen, 20 urtian **jardun neban**, 1936ko gerria etorri arte. Gero, 1939 urtian, Ubitxako tallar hontara heldu giñan.

- Noiztik dator zure pelotarako afiziñua?

- 16 urte ezkerro. Pelota partidu asko ikusitakua naiz. Lehenengo Frontoi Zaharrian.

- Hango partidorik onenetakoren bat?

- Azkoitiko Txikixak eta Manolo Paxieguak jokatu ebena **eskuz esku**. Azkoitiarrak irabazi eban. 30era zan jokua. 28-18 galtzen zeguan Txikixa ta 28an partu ziran. Gogoratzen naiz Don Ziriako Agirre ta paxiegutarrak asko jokatzen ebela Manoloren alde. Partu ziranian, juan ziran Aldatzarren, Azkoitiko Txikixaren apoderauarengana, **parrian trabesak** geratzeko eskatzen. Baiñan ezetzian geratu ziran ta Azkoitiko Txikixak irabazi eban 30-28.

- Pelotari on asko ezagutu dituzuz?

- Bai horixe! Sustarra, Azkoitiko Txikixa, Txorrotxa, Kantabria, Mondragonese, Atano hirugarrena ta beste Atanuak, Etxabe anaiaak, Rubio, Ubilla, Onaindia, Gallastegi, Barberito...asko ta onak benetan.

- Orduan ala oiñ dago afiziño gehiago?

- Ointxe gehixen. Lehen baiño jende gehixago doia pelota jokura. Jokau be ointxe gehixen.

- (...)

- Patxi, kantu zalia be izan ei zara?

- Bai, pixka bat, batez be kanpuan afalduta gero. Gogoratzen naiz zelan etorri zan Julian Gayarre Eibarko Txikixa ikustera. Neuk be entzun netsan kantuan Gisasolaneko kafian,

Segundo Maiorak pianua jota. Kanpuan, Txirixo kale guztia jendez beterik zeguan Gayarreri entzutzen.

- Eibarko Txikixa maitatua izan zan Eibarren?

- Oso maitatua. Askotan juan zan Ameriketara pelotan jokatzen. Handik bueltan, herrira etortzerakuan, Zumarragatik zihar kotxian **zetorrela**, Eibar guztia eukitze eban bere zaiñ Urkusuko iturri ingurran. Han egoten zan Personia, Persona Zarra, gizon bizarduna bandera ta guzti ta herriko musika bandia. Handik danok juaten giñan Frontoi Zaharrera. Guztiz bonbillaz argitura billatzen gendun. Hantxe bizi baiziran Eibarko Txikixa, Pilar bere andria ta Zeferino, Juan ta Enriketa seme-alabak.

Gogoratzen naiz ondo zelan etorri zan egun baten Fraskuelo torerua gure pelotari famatu honengana

ta zelan bota ebazen granuja kuadrilliarri Frontoi Zarretik behera dirua –laurlekuak- bolo-bolo.(...)

- Orduko ipuiñen bat...
- Gure kuadrillakuak oso zaliak giñan Olerriara juaten. Hantxe ondo afaldu ta bueltan serenata zoragarriak asmatzen genduzen. Gabe baten, ordubatak inguruan bagentozen Olerriatik bueltan Isasin behera orkesta osua. Gitarria joten eben Maximo Plaentxiatarra, Padilla ta Salaok. Ballarinek flautia ta Polin Kastrok klarinetia. Etorri jaku bidera Moskatela serenua eta esan desku:
- Mutillak, hau eskandalua baiño hobia dok eta kalian zihar bueltia emoizue.

Holaxe zan. Jendia jaiki ta bentanetan entzutzen zeguan. (...)

Revista Eibar,67ko abuz.-irailla, 12.orr.

ANTONIA IRIONDO: NIK EZ DOT NAHI ERRETIRATZERIKAN

Gaixak: 6 Biharra, ekonomia. 7 Ohitturak

Julixo honetan 78 urte beteko dittuen arren, biharrerako gaztiak baiño gogo haundixagua daka Deban jaixotako andra honek: goizeko seirak aldian jaikitzen da ogixak saltzera juateko. Zeregin honetan luzaruan **jardun** eta gero, gauza asko aldatu dirala ikusi ahal izan dau. Gaur egun ogixa eitteko makiña asko dago. Halan be, jentiak lehen baiño gitxiago jaten dau, **akaso** hondartzara juaterakuan “mitxelin” gehixago ikusiko **jakoza** pentsatzen **dabelako**.

- Ogixa lehen eta oiñ ez da bardin egitten. Esango **deskuzu** zelan aldatu diran gauzak ogixa egitteko orduan?

- Ogixa egitteko modua aldatu eiñ da, lehen eskuz eitten zan gauza asko, baiña gaur egun makiñak daoz edozertarako. Gaiñera, lehengo **labak** egurrakin ibiltzen ziran eta oinguak ez: elektrikuak dira. Ogixari formia eskuz emoten **jakon** lehen, baiña guzti hori aldatuta dago gaur egun, barrak eitteko formadora izena dakan makiñia dagolako. Masak be amasadoriakin eitten dira. Baiña hori ez da dana, oiñ fermentaziño kamarak daoz. Lehen askoz be bihar gehixago eiñ bihar izaten **zeben** ogixakin. Erosteko modua be aldatu dala esan **leike**, sasoi batian koskak egoten zirala entzunda dakat. Eskuan pagau biharrian, denpora bat pasauta pagatzen zan ogixa. Baiña hori neuk pe ez dot ezagutu, antxiñako kontua da hori. Nik ezagutu izan dotena hau da: hillian azkenian edo astian azkenian pagatzeko liburuan apuntau, baiña jente zintzuari bakarrik. Koskena ez, panaderixako amari entzun izan **netsan**: bakotxak erosten **eban**ogi bakotxangaitik makilla baten marka bat eitten zeban, edo. Baiña hori oingo jentiak pe badaki, lehengo gurasuak eitten zeben. Jente formala dakagu hamen eta jentiak ez zeban tranparik eitten, tranpen kontu horrek ez dira egixak. Hamengo amak pe lehen **fotak** eruan eta **aldaban** ipintzen zittuala esaten eban eta sekula ez **jakola** falta izan berari. Fotak zortzixan formakuak ziran, **armozutarako** eruaten ziran eta aldaban laga. Gero, goizian jaikitzerakuan, aldaban eukitzen zeben ogixa.(...)

Koldo Mitxelena,...eta kitto, 92-VII-17. 15.orr.

EULOGIO GARATE

Eulogio Garate 1889ko azaruaren 13an jaiotako eibartar jator bat izan zan. Industri arazoetan **puntarengua**. Gizon haundixa bere egintza ugarixtetan, nahiz eta berak bere buruari garrantzi edo importanziarik emon ez. Bere egintzarik haundixena –nere ustez- hau izan zan: armagintzan biharrian **ziharduen** G.A.C. fabrika, eibartarrentzat “Korriuanekua” Arragueta kaliaren hasieran, **Arikitxaneko zubixaren** ertzian zeguana, bizikleta fabrika bihurtzia. Horretarako Frantziara abiatu zan, han bisittatu zittuan hango txirrindu fabrika batzuk, eta han ikusittakuakin eta bere burutik ataratako ideiekin, buelta osua **emon zetsan** G.A.C. tallarrari.

Ikusirik fabrkazio berri honek etorkizuna zeukala, Eulogio Garaten bidiari jarraitxu **zetsen** Orbea, B.H.,

eta gero beste fabrika batzuek. Horrek aberastasun ez txikixa ekarri zeban Eibarko industriarentzat, zeren eta, ez bakarrik bizikleta, baitta be bizikletaren inguruan doiazen beste gauza asko fabrikatzen hasi ziralako eibartarrak. Penagarria, baiña, gaurko eguneri begiratuz, Eibarrerri hainbeste fama emon **zetsan** industri hau gure herritxik kanpora juan **jakula**, bai Gasteiz, Mallabi edo Durango aldera.

Eulogio Garate, anai arteko gerra zala ta -bera Errepublikako denporan kontzejala izan zan-Frantzian zeguala, bere industria jakintza aprobetxatu nahirik, austriatar enpresario Frich Mandelek bultzatutra, gure Elogiok Argentinarako abiada hartu zeban, han eskopeta fabrika bat -Kometa izenekua- jasotzeo. Horretarako, ordea, beste eibartar batekin, Luis Ormaetxeakin, zortzi hillabete pasa zittuan, makiña egokixak eta eskopeta industriko teknika gaurkuak esamiñatzen.

Elogioren bihotza, baiña, beti Eibarrekin **amesetan** zeguan. Azkenik lortu zeban bere herri maittera itzultzeko gogo bizia betetzia 1953. urtian, eta bere bizitzako azken hamabi urtiak hemen igaro **ebazen**.

Pedro Zelaia,...eta kitto! 94-II-11. 8.orr.

TESTU MOTZ ETA BIZIXAK:

Kontaketa labur eta bizixak, hittanua, kontaketa jatorra, hiztegixa, entonaziñua eta aditz trinkua lantzeko egokixak.

MARIANO TXURRERUA

Gizon xelebria Mariano. Luzia **zan** gorputzez eta irudimenez. **Mehe-mehia**. Bizar haundixa bere aurpegixan. Umoretsua. Galdo Txikin estilokua umore kontuetan. Bere fetxoria gehixenak Karo bere lagunakin egitten **ebazen**.

Basarritar batek sagar arbola bat **zeukan**. Baiñan ondo zaintzen ei **zeban** sagar arbola hura. Hara iñor ezin **zeikian hurreratu**; laister han **zan** ugezaba “en defensa propia”.

Baiñan, dana dala, Mariano eta karok **sakatu etzen behin ederra.Joan dira** arbola ondora. Marianok eskopeta berakin **zaroian**. **Igo da** Karo arbola gaiñera, ta berihala hemen **dator aintxitxiketan** ugezaba. Mariano hasten da diarka arbola gaiñeko Karori:

- ¡Caraillu, de esta no te escapas, te mato, atí y a quien sea!.

Ta jo tiro Karogandik bost metrora ta, danba! Bestia, faltsuan lurrera.

Ugezaba, tiruak eta amenazuak entzunda, gelditu da, arbola direziñua laga ta, bildurtuta, **igesixari emon detsa etxerutz**.

Bitartian, bi lagunak, hartu nahiko sagar ta aldendu **ziran** arbola ondotik. Handik pixka batera, basarritarra etorri **zanian** arbolara, ez **zeban** ezer billatu, ez gizon ta ez sagar.

Behiñ batian, Marianok hartu **ebazen** Maltzako errekan **eskallu** batzuk, **gitxi aukeran**. Eta esan ei **eban**:

- Honek **zapuburutxuok** be, eskalluak **dagozen** tokian egoteko, ez **ditxuk** txarrak izango. Eta eskallu ta zapuburutxuak, danak nahastian, eruan **ebazen** tabernara kaxuela baten jateko.

- Ipiñi danak batera, al pil-pil, kaxuela baten!

- Zapuburutxuak be bai? –**diño** tabernariak.

- Bai

- Zelan?

- **Eskalluen moduan**.

Agindu lez ipiñi ta ekarri **eban** mahaira, kaxuela. Morterua modukua geratu ei **zan** eskallu ta zapuburutxuen nahastia kaxuelan. Horrela ikusita, iñor ez zan atrebitzen jaten hasten. Han **zeguan** Mariano ta Karokin beste euren lagun bat, bularreko gaixuakin **zeguana**. Eta honi esan **zetsan**

Marianok:

- Probau heuk lehenengo; **heuk dakak zer galdu gitxien da!**

Mariano ta Karo, egun baten, kazara juan **ziran**. Beste asko, goizian goiz urtenda, han **ziran** leku onak hartuta, baiña danak trampakin, beda denboria baitzan.

Gure Mariano ta Karok ez **zeben** euki goiz jaiki biharrik. Eurak denporaz, **patxadan**, heldu **ziran** lekurik onenera ta guardia civillak **balitzakez moduan**, hasi **ziran alkarri deika**:

- ¡Oye, Gutierrez, por aquí deben estar!

- No, Martinez, por este otro lado.

- Puestokuak, berba harek entzunaz batera, guardia civillak inguruan **ziralakuan**, laga txabolia eta **hanka jokuari emon zetsen**. Mariano eta Karok hartu **eben** eurentzat txabolia ta nahiko **txoriren jabe** egin **ziran**.

Eibarko Ayuntamentuan **asmo gogor bat** hartu **eben** gaueko errondalarixak **ziharo** kentzeko. Euren artian Mariano Txurrerua ta Karo be **baziran** nahiko lan emoten **zetsenak** serenueri. Ekarri **eban** ba Ayuntamentuak Sestaotik **arrazako sereno txatua, errondalari** guztiak berak birrinduko **ebazela** esaten **ebana**.

Lehenengo egunian, goiz aldian, hartu **dituz** “in fraganti” Mariano ta Karo. Ispeziñora eruan, izen, apellidu eta direziñua hartu ta Flandesen pika bat ipiñi **baleu** bezela, **amaiñ emon etzen** gure **gautxorixeri** hurrengo egunian, hamabixetan, Ayuntamentura alkatiaren aurrera agertzeko agindua emonaz.

Baiña, hona hemen gure Mariano eta Karok, euron izen benetakuak emon biharrian, izen faltsu batzuk emon **ebezen**: Jose Sakristau ta beste **goitar** batena.

Hurrengo goizian, emon **detsaz** sereno txatuak alkatiari errondalarien izenak. Irakurri **dittuz** izenak eta esan:

- Honeik ezin izan **leikez!**

- Bai, esaten **eban** txato serenuak, honexek **dira** euron izenak, eurak emondakuak dira.

Deitu **detse** alkatiak bi gizoneri ta, jakiña, serenuak ez **zittuan** ezagutu gabeko berak hartutako errondalari moduan. Harek beste batzuk ziran.

Ta hor amaittu ziran arrazako txato serenuan serbizioak. Sestaora barriz juan bihar izan eban.

Pedro Zelaia. Revista Eibar 65eko abuz.-irailla, 17.orr.

GALDO-TXIKIN ZIRIKADAK

Hamaika gizon xelebre sortu izan da Eibarren, ta euren artian, Galdo-txiki **ezta azkenen gelditzen zana**. Gizajua, juan zan urtian hil zan, ta berakin Eibarren jatortasun zati bat. **Zegaitik eze**, lehengo eibartar jator bat hiltzen **dan** bakoitzian, badirudi berakin **daroiala** beste mundura gure herriaren zati bat.

Zuloagak pinturara edo Juanito Gisasolak musikara moduan emon **eban** Galdo-txikik bere bizitza umorera. Umorista asko izan ditu eta ditu gure herriak. Umoristak euren artian be era askotakuak **dira**, ta behin Kaitano Kareagak ederki esan **zestan** moduan, Galdo-txiki, okerkierietarako umoria **eukana genduan**. **Zirixa sartzen genduan ha mutilla**.

Honek dira bere gertakizun batzuk:

Behin bere lagunekin juan ei **zan** Donostiarra agostuko Andra Mari jaixak pasatzeko asmuetan, kantauaz: “Festarik behar bada, bego Donostia...” Ze, donostiarren antzera hankak arin **zituen jai-zarraparria zan aldera**.

Inork ez ei **eukan hagiñeko miñik** eta kantsaziñorik, ta errazoi horri oratuta ibilli ziran orduakin

konturatzeka. Horraitzio, berandu batian, nahiz ta gazta sasoian izan, **errendidu ei ziran.** Ta, **orduan kontuak ohia billatzen.** Jo batera ta jo bestera, **lo-kamusa** bat eitxeko besterik ez bazan be, kostauta billau ei **eben** ostatua. Baña kondeziño batian: oge banatan biñaka eitxeko kontuan. Ta gaiñera batzuek koltxoia lurrian botata ta beste batzuek muelle hutsian.

Suertera jaurti ei eben ta Galdo-txikiri Anbroxio Balentziagakin tokau ei jakon ogeko muelle gañian, beste bi lurrian koltxoian ziralarik. Gañerakuak oge biko kuarto baten sartu ei ziran, ahal dan moduan.

Galdo-txikik beti bezela egin bihar **eban** fetxurixaren bat, da bestieri ezer **esateka** baña ondo ikusteko moduan, hasi ei zan, ogeratu aurretik, tapak jaso ta periodiku papelak kurioso-kurioso izara gaiñean ipintzen. Anbroxiok, hori ikusirik, esan ei **zetsan**:

- Baiña mutil; zoratuta hago ala? Zer **diarduk papelok** zabal-zabal ipiñiz?

- Hara Anbroxio. Ta bestiori be berdiña esatera **najoiak**. Momentu honetara heldu **garanez**, nere desgrazia bat kontau bihar **detsuet**. Lagun onak **zarienez**, uste **juat** ixillik gordetzen jakingo **dozuela**. Nik, ixa gabero ohian kaka eitxen **juat**.

- E! - bestiak batera-batera -. Ohian kaka eitxen **duala**?

- Bai mutillak! Baiña mesedez, **ezaixozue** iñori esan.

Anbroxiok:

- Ni ez **najoiak** hire onduan lorik eitxera. Nahixago **juat** Boulebardean pasiau. Beste lagunen kuartuan , nahiz da lurrian, lekurik ez badago behintzat.

Beste bixak:

- Guk pe bai. Hire **kakarantsa** aguantatzia baño hobe izango **dok** eta.

Egoera horretan, bakar-bakarrik gelditu **zan** Galdo-txiki kuartuan. Ta, orduan, koltxoia ipiñi eban bihar zan lekuau ta oge bigunian sartu **zan**.

Lurrian lo egin **ebenak**, aldi baten, Galdo-txikiren kakarantzaren inbidia be izan ei eben, bizkar-hazurreko miñez **euazela**, bestaldeko kuartuan **lo zurruztadak** entzunaz.

Goizian juan **ziran** lagun guztiak bere kuartora, **bere lepotik barre eitxeko asmuan**. Baña han ez zan ezer pasau. Galdo-txiki billau **eben** lotan **nasai asko**, bakar-bakarrik oge zabalian, bestieri adarra joaz.

Kuadrilla berakin Elgoibarko ferixara juan **zan** batian, bururatu **jakon** basarritar batzueri **adarra jotia**. Honela ipiñi **zetsen** plana bere laguneri:

- Zuetariko batekin borroka itxurak eingo **jitxuat** eta gero nere **bende** hankapian hartu ondoren **jeupadak** eingo **jitxuat** basarritar saillari begira: badago bat, etorri neregana! esanaz.

Ta iñor urtetzen bada indarrak neurako **jitxuagu**, baña ni baño gogorragua bada, nere alde urtetzeko kondeziñuan.

Baiezkua emon ei **zetsen**.

Egin **zitxuen** ba borroka itxurak ta erabagita eguna moduan, **Galdo-txikik urten eben** irabazten. Lurreratu **ebanian**, gaiñian hankia ipiñitxa. Alboko basarritarreri:

- Badago bat, etorri **deixala** neregana! Badago bat!

Bai azaldu be. Pagu arbolia baño gizon mardulago zan Artaso pelotariak hartu ei **eban** esku artian ta pelota bezela **erabilli** ei eben, lagun guztiak **ollotuta hanka eiñ** ondoren.

“Badago bat!” deiari erantzutzeko, iñor **baeuan** edo ez baeuan, belarronduak ondo berotuta **urten ei eben** Galdo-txikik.

Horregaitxik, behin, Astelena frontoian Artason pelota partidua ikusi ondoren, bertako gora-beherak kontatzen **ziharduela**, euren arteko batek esan ei eben:

- Artasok gogor joten **jok**.

Ta Galdo-txikin erantzuna:

- **Etxaukat** iñork esan biarrik. Artasok gogor joten **dabena**, ondo probauta **jaukat**.

A, baña, ordien epia helduko zan dudarik ez **eben** lagunok. Bi hillabete ez ei ziran pasau. Orduan izaten **ziran** zaldizko kotxe dotore bat ei **euan** Agiñazpiñeko taberna aurrian lagata, bere ugezaba bapkaltzen eguna artian. **Ha** zan Galdo-txikin momentua. Hartu ta **eruan eban** Untzagara. Ta han, bere laguneri:

- Tio etorri **jatak** Ameriketatik zihero aberastuta, ta bere kotxia **laga jestak**, artsaldia pasatzera Bilbo alderutz nai **bagendu** juan. Zer **deitxozue** mutillak?

Ez bat eta ez bi, esan orduko han ziran guztiak hanka ta burua zalgurdi gañian.

Galdo-txiki jarri zan peskantian, laguneri esanaz:

- Agiñazpiñerako errekaua **jaukat** ta bide batez Eibarri bueltia emongo **jetsagu** jentia ikusi **gaitxian**, holan, inbirixia emongo **jetsegu**.

Hori esanaz, abixau ei **ziran** Bidebarrixetan behera Urkuzuko plazaraño. Agiñazpiñeko atai aurrekaldian gelditu zan ta lagunak kotxe barruan lagata juan zan tabernara, errekaura **zoian letz**. Kotxian ugezabagana **hurreratu** zan ta **aitzen emon zetsan**:

- **Kargu eixozu zeure kotxiari**, bost **kankallu** sartu dira barruan ta asko deskuidatzen **bazara** eruango **detsue** auskalo nora. Horrek mutillok ondo ezagutzen **ditzut** nik, lehenago be hainbeste holako egindakuak dira horrek. Onen-onena, ezertariko esplikaziño barik bizkarra berotzia merezi **dabe**.

- Hori laga neure kontu.

Berakin **euan** beste gizon bat hartuta **urten eban** kalera. Ipiñi ziran kotxian **ate banatan**. Esan **zetsen**:

- Mutillak! Urten banan-bana! **Hazurreta miña zer dan jakin deizuen**.

Galdo-txikik, **kale kantoitik** begira, ha ei zan funziñua ikusi **ebana**.

.....
Galdo-txiki ziri sartze kontuan **atzian gelditzekua ez bazan be**, beti izaten ei **zituan** bere inguruaren beste adar-jotzalle batzuek be **axaxa emoteko gertu, bereren bat egin deixan**.

Gañera, txikia zalako beti tentatzen ei **eben**. Nahi da berak esan gizonak ez dirala metruakin neurten, abillidadiakin baño.

Behin, trenian, Maltzan gelditzuta **euazela**, andenian **zutiñik euan** gizon morrosko bategaitik, lagunak tentatu ei **eben**, esanaz: “Hori bai hori gizona, ta ez hi, txiki ziztriñori”. Galdo-txikik berriz azkar ipiñi ei **zetsen trabesa**, baietz hari **matralleko bat**, beste lagunok ezetz.

Han ei **euan** beste gizon erraldoiori, andenian, trenerutz begira, Ta trena martxan asi **zanian**, Galdo-txikik, trenetik, luzatu ei **zetsan errebeskara** bat eta han gelditzu ei zan gizon morroskua **ikubilla** altzauta **sentellak jaurtzen**, ta ez gañera San Juan eguneko arpegiakin. Baña, gure Galdo-txikik trabesa irabazi.

.....
Beste behin, ba ei zan Eibarren holako gizon bat **serixuan-serixoz** “grobia” zan bat, aberatsa ei zan eta egunero pasiatzera juaten ei **zan** makilla dotore bat eskuan **ebala**; baña orduango Eibarren ez ei zan iñor libratzen gatxizenen batetik, ta nola jentia huskeria bategaitzik uxatzen **zebenetarikua** zan, “Auspoa” deitzen ei **zetsen**, ta berari ez ei **zetsan** ezerk su gehixago emoten berari “Auspoa” deitziak baño.

Baña **hainbat txarrago** beretzat. Orduan, gatxizena ontzat hartzen ez eben guztieri adarjotze gehiago eitzen ei **zetsen**. Izan be, adarjotzallia, adarra jotzkuak bihar ditxu, eta honek minberatzen diranak izaten dira, ta ez jamonik eitzen ez **dabienak**. Beriz, Galdo-txikintzat zelan ez zan dotorerik, aberatsik eta serixurik, hari “Auspoa”ri **bereren bat eitxia bururatu jakon**.

Egun baten, Elgoibarko auspu-konpontzalle bati bialdu ei **zetsen** errekaua, juateko Eibarren **uleixa** lekutara, auspo bat **euala** konpontzeko ta.

Juan zan auspo-konpontzalla “Auspu”**nera**. Auspu konpontzera etorrela esan **ebanian**, **makillian aurrian hartuta atara eban kalera** elgoibartar gizajua. Gutxi gora-behera, hola zan Galdo-txikin umoria, ta holakuak bere fetxorixak.

KAITANO KAREAGAN URTERA ZELEBRIAK

Bihargiña **gutxi lazkua** izan da Kaitano ta gañera grabauan ezagutu danik **puntarenguena**. Alfonso XIII erregiarentzat eskupeta bat grabau ei **eban**, eta hain harritxua gelditu ei zan errregia **eze**, Gernikara eterri zan batian deitu ei **zetsan** biharrian ikusi nahirik. Han zan gure Kaitano bere erremintxekin trankil asko erregia ta bere inguruko jaunen aurrekaldian bere **biharrari jardunaz**. Ta jaun batek esan ei **zetsan**:

- Hainbeste lagunen aurrian biarra eitzen ez al zara nerbioso ipintzen?
- Ez. **Dakidalako** zuetariko iñork ez **dakixala nik aña**.

Holako nasaitasunian bizi izan da gure gizon hau.

.....
Behin, Merzedes bere alabiak esan ei **zetsan**:

- Aitxa, Koliseora juan bihar **ziñake**, Santa Teresitan bizitza emoten **dabe** zinian. **Negar eraitzekua** da, baña gustauko **jatsu**.

- Negar eraitzekua gustau? Nola **leike** hori?

Juan zan ba domekan Koliseora bere alabaren eskariz eta ixa zine guztia andrazkoz josita billau ei eban. Gizonezko banakaren batzuk hor-hemen ta ume mordua. Butaka numeraua **eukan** da andra artian tokau ei **jakon**. Ha ei zan zoriona bere buruantzat, “bedeinkatua zara zu andra guztien artian”, bururatzten ei **jakon**.

Pelikula erdixa baño lehen, bere **alboko** andra bat, pañuelua atarata negar-zotinka asi zan Santa Teresitari begira. Kaitanok, hori ikusirik, gozatu nahirik bezela, preguntau ei zetsan:

- Senide bat al dozu?

.....
Lagunekin bromak pasatzen be ez da mutil txarra.

Egun batian, ondo bazkaldu ondorian, Kasino Artistan, kafiakin Martell kopa bat eskatu **eban**. Lagunak harritxuta gelditu ziran, baña Kaitanok, serixo-serixo jarraitxu ei eban jai arratsalde haretan, **zein da zeremonia baten balego moduan, lantzian-behin** poliki tragotxu bat egiñaz Martell kopiarri.

Arratsalde erdirutz hasi zan **oika ta aika**, tripara eskuak eruanda, miñez balego moduan. Alboko batek esan **zetsan**:

- Baña zer **dok** Kaitano, zer pasatzen **jak**?
- **Nik jaukat txixalarrix, mutillak!**
- Lelua haiz ala? Ez **hago** ba leku txarrian. **Juari** komunera ta baketuko **aiz**.
- **Ez holakorik, mutillak. Ez horraitziok.** Behin bost duro pagau ezkero Martell kopiarri, eutsi ahal dan guztia.

Eutsi!

.....
Kasino Artista izan da beti Kaitano eta bere lagunen leku hartua, beste eibartar jator **askoren letz**. Da, Kaitano, Arragueta aldeko **kantoiko bentanan** ikusi izan **dogu** hamaika aldiz.

Diñuenez, azpikaldian, Patxi-txikiñeko tabernan batzen **ziran** Peña Gallastegikuak, bolara batian ixa egunero eitzen ei **zitxuen** merienda ederrazkuak. Ohitxura zaharra da bai Eibarren eta bai inguruko herrixetan, jan-edanak eitxeko aitxikiz soziedadiak organizatzia. Pelotarixa, ziklistia edo toriadoria bardin da, **kustiñua da** lagunartian umorez pasatzia.

Peña Gallastegikuak afari-merinda ederrak eitzen **zitxuen** bolara haretan, Kaitanori allegatzen ei **jakon** egoten zan bentanara kazuelen lurrunaren usain gozua. Ta, egun batian, ogi hutsakin juan ei zan ta **lantzian** puxketatxo bat kendu eta bentanan euki ondorian jaten ei eban. Lagunak harritxuta begiratzen ei **zetsen**, zoratu ete zan, ta bestia, bentanan eukitako ogi puxketak **mausta-mausta jaten**. Batek galdetu ei **zetsan**:

- Zer **darabik**, Kaitano, ogixa haizetuta jaten?
- Patxi-txikiñetik okelarik **eztok** etortzen, baña pena emoten **jestak** usain eder honek galdu biarra. Hau lurrun aprobetxagarria **dok**.

.....
Aintxiña baten **ederra zirixa sakatu bihar izan zetsan** Mari-Ospitxal zaharrari. Asmau **eban** kantsontzilluak galdu **zitxuala** eta Mari-Ospitxalenera juan da esan zetsan **pregoia joteko** herrixan, ia iñok billau **zitxuan** euren labanderiari bidian galdu **jakoziela-ta**.

- Bueno, ta zelan igarri zeuriak diran jakitzeko? Ezaugarririk bai al **dauke**? – esan ei **zetsan** Mari-Ospitxalek.

- Bai gizona, nere inizialak, Kaitano Kareaga, K. K.
- Gehixagoko barik, hasi ei zan Mari-Ospitxal pregonerua Eibar guztian kalez-kale tanborra joaz holan **diar eitxen**:
- Jaun-andriak: Atzo, herri honetan kantsontzilluak galdu dira; ezaugarritzat K. K. **darioie!**

.....

Urtietan aurrera zoiala, kalian pasadizuan billau **eban** andra batek **diñotsa**:

- Gogor **zabiz** Kaitano, gogor?
- Bai, **geruago ta gogorrago**.
- ...?
- **Gogorran-gogorrez** makurtzeko gauza ez **naixela**.

.....

Aspaldi ikusi bariko lagun zahar batekin tope egiñ **ebanian**, denpora bateko aiskide harek esan **zetsan**:

- Oiñezkero hi be urtiak aurrera **hoia**, Kaitano.
- **Bai, gizona**, hirurogetamar ointxe betetzeko.
- **Ene! Ez ditxuk** emoten.
- **Ez ba**, ezin emon; emon al **banitxu ez naitxukek** eukiko.

.....

Beste behin:

- Gauza bat nahi **neuke** nik jakiñ.
- Zer?
- Nun hil bihar **naixen**.
- Zertako?
- **Haraxe** ez juateko.(...) Herritarra. Herritar filosofia eterriaren jabe **zana**. Bere ateraldiak, Sokratesenak atenasdarren artian bezela zabaldu izan dira eibartarren artian. Bere adimenetik, huskeriak balira bezela atara ziran horrek esaeriok:
“ Tontuaren seniderik hurrenengua: harrua”
“ Ez daukanaren borondatia: gauza eskaxa”
“ Munduan bada gauza bat , gitxiago daukanak gehixago daukanari emoten detsana: lotsia “
“ Munduan harrokeri asko sortu **daben** gauza da ispilla “
- Zer, Kaitano guardasol barik?
- Bai, etxian laga dot, busti ez **dein**.
Eibarrerutz **etozten** guziekin, Plazentziako ezagun batek, beti **gorantziak** bialtzen **zetsazen**. Ta behin:
- Hi, Kaitano, **urliaren** partez, gorantziak.
- Uriari **esaixok** lehenak be **gastatzeka daukadazela**.

Juan San Martin, Revista Eibar, 63ko abuz.-irailla, 12.orr.

Kaitanok esaten ei **zuan**:

- Badakizue biajerako gauza bi txarrenak zeintzuek diran? Guardasola ta andria. Guardasola zaindu ezin **dalako**; andria, iges ezin **jakolako** egin.

Ba ei **zeguan** behin herren batekin **demandan**. Itxuria, **aukeran okertxua** ei zan kojuori. Kaitanok esan ei **zetsan**:

- Uste **juat**, ez **nagok** seguru, baña hik hankia **daukala** onena.

Kaitano, euskalduna izakiz, gizon apala eta oso bihargiña **genduan**. Gure herritar gehienak **diran** bezela. Grabadorea ofizioz. Eta, ez nolanahiko grabadorea. Gaur, Eibarren diran ofizio hortako onenak bere ikasle izatetik pasatuak dira. Hamaikari erakutsi izan detsa beretzako probetxu askorik gabe. Zahartzarora aspertu ere egin zan bere amaiera gabeko erakusketan eta ordukoa dogu gertakizun hau:

Behin juan ei jakon gizon bat:

- Nere semiak, gizon argia aterako dan itxuria **jaukak** eta heurekin biharrian hartu bihar **heuke**.
- Sentitzen **juat**, baiña ezin **naiek**: argia **badok**, ikasi eta berihala alde egingo **jestak**; barriz, tontua **badok**, beti nerekin euki biharko **juat**.

Pedro Zelaia, 66ko otsailla, 10.orr.

BIBLIOGRAFÍXIA

- **Flexiones verbales y lexicón del euskera dialectal de Eibar**, Toribio Etxebarria. Eibarko Udala - Euskara Batzordea, 1998ko martxoan.
- Eibarko euskeriaren deklinabidia eta entonaziñua, **Imanol Laspiur Zabala**. **Eibarko Udala – Euskara Batzordea, 1999ko azarua**.
- Eibarko aditza, **Aditz Batzordia**. **Eibarko Udala – Euskara Batzordea, 1998ko otsaila**.
- *Eibarreraz idazteko oiñarrizko erizpidiak*. **Eibarko Udala – Euskara Batzordea, 1997**.
- **Eibarrera jatorraren bidetik**, Imanol Laspiur Zabala. ...eta kitto Euskara Elkartea. 1999ko apirilla.
- Eibarko euskeraren esakerak eta beste berezitasun batzuk, **J.A. Argoitia, N. Azkarate, X. Gezuraga**. **Eibarko Udala – Euskara Batzordea. 1995ko apirilla**.
- Deba ibarreko euskeria, **Koldo Zuazo**. **Deba ibarreko udalak. 1999ko azarua**.

Eibarreraz idatzitako testuak **Revista Eibar** eta ...eta kitto aldizkarixan topatu doguz.

Testu gehixago topatzeko:

- Juan San Martin, **Eztenkadak eta Zirikadak**.
- Pedro Zelaia, **Umore giroan**.
- E. Izagirre, M. Lizarralde, A. Narbaiza, **Eibarko idazlien eta idazlanen antologixia**. Eibarko Udala. Euskara Batzordea, 2000ko otsaila.

Eranskina

HIZTEGIXA eta ESAMOLDIAK

HIZTEGIXA eta ESAMOLDIAK

AZALPENAK ETA LABURDURAK

AZALPENAK

1 - Sarrera guztiak letra lodiz jarri dittugu

2 - Sarreria, *izenari*, *izenonduari* edo *izenlagunari* dagokixonian, berbia *absoluto mugagabian* jartzia begittandu jaku egokixena, eta jarraixan **mugatu singularraren** eta **mugatu pluralaren** amaierak. Hona hemen taulatxo honetan **mugagabiaren** amaieriaren arabera, **mugatu singularraren** eta **mugatu pluralaren** amaierak. Mugagabia da bakarrik letra lodiz doiana.

| Izena, izenlaguna edo izenonduaren amaierak | | | |
|---|-------------------------------------|----------------------------------|------------------------------------|
| Mugagabiaren amaieria | Mugatu singularraren amaieria | Mugatu pluralaren amaieria | Adibidia |
| a | ia | +k | hondartza/ia/k |
| e | ia | iak | albidade/ia/iak |
| i | +xa | +xak | kazari/xa/xak |
| o | ua | uak | desafixo/ua/uak |
| u | +a | +ak | oiñaztu/a/ak |
| ixa | ixia | +k | harrokerixa/xia/k |
| r | rra | rrak | hur/rra/rrak, baiña ur/a/ak |
| il | illa | illak | artopil/lla/llak |
| it | itta | ittak | konbit/tta/ttak |
| ostianguak | +a | +ak | akats/a/ak |

LABURDURAK

| | |
|----------------|--|
| adb. | Adberbixua |
| adv. | adverbio |
| ant. | antonimua |
| arrt. | arrunta |
| fig. | sentido figurado |
| g.er. | gitxi erabilixa: Lexikoian TE-k dakarzen Eibarko berben sinonimueri (ezagunak bai baiña normalak ez diraneri) jarri detsegu laburdura hori. |
| gitxes. zentz. | gitxiespen-zentzuan |
| irud. | irudizko adieran |
| iz. | izena |
| izlag. | izenlaguna |
| izond. | izenondua |
| lagart. | lagunartekua |
| morf. | morfosintaxixa |
| vulg. | vulgar |

Eibarko euskeria-Gaztelania

HIZTEGIXA ETA ESAMOLDIAK

| EIBARKO EUSKERAN | BATUAN | GAZTELANIAZ |
|--|---------------------------------------|--|
| ababa (<i>Ababa nok ni ala, hori sinistu deiran!</i>) | lelo, ergel | chocho,-a; chalado,-a |
| abegi/xa/xak (<i>g.er.</i>), hartuera/ia/k, jera/ia/k | abegi, harrera | acogida |
| abendu/a/ak | abendu | diciembre |
| abendu/a/ak , txitxalapur/rra/rrak | miru | milano |
| abezian egon | landu gabe egon | estar en los rudimentos |
| abilidade/ia/ik , albidade/ia/ik | abilizia, trebezia | habilidad |
| abixadia hartu | abiada hartu | tomar impulso |
| abospolo/ua/uak , artopil/lla/llak | inozo, zozo | pánfilo |
| abots/a/ak | ahots | voz |
| aboziñau/a/ak (<i>izond.</i>) | berezi | especial; único,-a |
| adari-joko/ua/uak , adari-topeka/ia/k | ahari-joko, ahari-talka | pelea de carneros |
| adarra jo | adarra jo, harpa jo | tomar el pelo |
| adore/ia/ik , adole/ia/ik | adore | árbol, fundamento |
| adurra darixola | adurra dariola | que se le cae la baba |
| afaloste/ia/ik | afalondo | post. cena |
| afan usaiñak erabilli | harrokerian ibili | hacer ostentación |
| afana emon | afana eman | dar excesiva importancia |
| afariketan egiñ, ibilli, jardun | jolasean ibili | jugar a ser mayores, jugar |
| agertu bat egiñ | bisita bat egin | hacer una visita |
| agiraka egin/jardun | errieta egin, haserre egin | reñir |
| aguro , ariñ, azkar, bizkor | agudo, azkar, laster, bizkor | rápido, apresuradamente |
| -ahala (<i>postp. aditzaren hurrengo</i>) | -ahala, -en neurrian/heinean | a medida que, según |
| ahalegiñ/a/ak | ahalegin, eginahal | empeño, esfuerzo |
| ahalegiña egiñ, ahalegindu | ahalegindu, saiatu | empeñarse, intentar |
| aho(a) bete hagiñekin laga | aho(a) bete hortzegin/ haginekin utzi | dejar con un palmo de narices; |
| ahobero/ua/uak | ahobero, ahozabal | dejar boquiberto,-a |
| ahopian berba egiñ | ahopean hitz egin | exagerado,-a; bocazas |
| ahua neurri | nahi beste, aukeran | hablar en voz baja, |
| aida baten, aidian egiñ | amen batean, berehala, oso azkar | hablar con prosodia no clara, susurrar |
| aida ta ixo | nola edo hala, kostata | a discreción, a pedir de boca |
| aiene/ia/ik | aiene | en un santiamén |
| aieneka egon | aieneka egon | a trancas y barrancas |
| aieneka/ia/k | aiene | quejido, lamento |
| aintzakotzat hartu | aintzat hartu | quejarse de dolor, lamentarse |
| aittagiñarreba/ia/k | aitaginarreba | quejido, lamento |
| aittaitta, aittitta, aittajaun | aitaita, aitajaun, aitona | tomar en consideración |
| aittatu | aipatu | suegro |
| aittu, ulertu (<i>g.er.</i>) | aditu, ulertu, konprentitu | abuelo |
| aitzen emon | aditzeria eman, adierazi | mencionar, nombrar |
| aixa emon | adorea eman, arnasa eman | entender, comprender |
| akabatzaille/ia/ik | leuntzaile | dar a entender, advertir |
| akaso , biarbada | beharbada, agian | alentar, dar animos |
| akats/a/ak | akats, koska, hozka | pulidor |
| aketo/ua/uak | gizon handi, gizontzar, gizakote | quizás, tal vez |
| akordu/a/ak , oroipen/a/ak | oroipen | mella |
| | | hombrachón |
| | | recuerdo |

| | | |
|---|--|---|
| albait (<i>morf.</i>) | ahalik, ahalik eta | lo mas... posible |
| albidade /ia/ia/k, abildade/ia/ia/k | abilezia, trebezia | habilidad |
| alboko /ua/uak, auzoko/ua/uak (<i>orokorragua</i>) | auzoko | vecino,-a |
| aldapa /ia/k, aldats/a/ak | aldapa, aldats, malda | cuesta, rampa |
| -en aldian (<i>morf.</i>) | -en aldean | al lado de, en comparación con |
| aldian izan, euki, eruan | aldean izan, eduki, eraman | llevar consigo |
| aldra (<i>gizon edo animalixa talde haundixa</i>) | talde, andana, saldo | grupo, tropel, bando |
| alkondara /ia/k (<i>gizonezkuena</i>) | alkandora | camisa (de hombre) |
| alper /rra/trak, nagi/xa/xak, zuri/xa/xak | alfer, nagi | vago,-a; perezoso,-a |
| alperrik izan/jai egon (<i>norbaittekiñ</i>) | alferrik izan, jai eduki/izan/egon | ser en balde; no esperar nada (de alguien), ser inútil. ponerse/estar en celo |
| altan jarri/egon | arreske jarri/egon | suegra |
| amagiñarreba /ia/k | amagiarreba | soltar, dejar libre |
| amaiñ emon | aske/solte/libre utzi, jaregin | terminar |
| amaittu | amaitu, bukatu | ganga, chollo |
| amama (<i>Taberna barrixa zabaldu dabenetik horrek dauka ámama garaua</i>) | mauka, pagotxa | abuela |
| amandre /ia/ia/k | amama, amandre | marisabidilla, afeminado |
| amandre /ia/ia/k (<i>lagart.</i>) | orojakile (neskatoak), maritxu (<i>gizonak</i>) | tela de araña |
| amaraun /a/ak, masma-etxe/ia/ia/k | armiarma sare | apagar |
| amatau | itzali, iraungi | enmadrado,-a |
| amazulo | amakoi, amazulo, amazale | precipicio |
| amil /lla/llak | amildegia | desorden, confusión, lío; revoltijo |
| anabasa /ia/k | nahaspila, nahaste | mujer, esposa |
| andra /ia/k | andre, emazte | novia; novio |
| andragei /xa/xak (<i>nobixia</i>); gizongei /xa/xak (<i>nobixua</i>) | emaztegai; senargai | mujer |
| andrakume /ia/ia/k, andrazko/ua/uak, | andrazko, emakume | animal |
| emakume /ia/ia/k | animalia | reino animal |
| animalixa /ia/k | animaliak | mentira grande |
| animalixak : fristixak, aberiak, hegaztixak, arraiñak, kokuak. | gezur handi | mentiroso,-a (superlativo) |
| anpor /rra/trak | gezurti, gezurrentzi | corriendo |
| anporlari /xa/xak | lasterka, arineketan, korrika | parecido, semejanza |
| antxitxika, antxitxiketan | antz, itxura | olor (malo), hedor, tufo |
| antz /a/ak | kirats, hats | umbrío (paraje, sitio) |
| antz /a/ak | laiotz, ospel | elegir |
| añube /ia/ia/k | apartatu, aukeratu, hautatu | no parece que |
| apartau , aukeratu | apenas (ez dirudi) | apuesta |
| apenas (<i>apenas iñor etorri dan</i>) | apustu, postura, trabes | joder (vulg.) |
| apostu /ua/uak (<i>g.er.</i>), postura/ia/k, trabes/a/k | larrua jo (lagart.), txortan egin(arrit.) | a propósito, apostar adecuado,-a |
| apotan egiñ , txakilletan egiñ | apropos, berariaz, nahita | un poco |
| apropos (<i>adb.</i>) | apropos, aukerako, egoki | árbol |
| apropos /a/ak (<i>izond.</i>), aukerako/ua/uak, egoki/xa/xak | pixka bat | comilona de vino (expresión equívoca) |
| apur bat, pixkat | arbola, zuhaitz | oveja |
| arbola /ia/k, zugatz/a/ak (<i>g.er.</i>) | Aitzakiaren batekin ardoz | |
| ardaujan /a/ak | bete-bete egitea | |
| ardi /xa/xak | ardi | |

| | | |
|---|--------------------------------------|---------------------------------------|
| ardi/xa/xak, arkakuso/ua/uak | arkakuso, kukuso | pulga |
| argal/a/ak (<i>batez be pertsonak eta animalixak</i>), mehe/ia/iak | argal, mehe | delgado,-a; fino,-a |
| argi/xa/xak, azkarri/xa/xak | argi | despierto,-a; intelecto |
| ariapeko/ua/uak (<i>iruzurra, entxufia</i>) | ezkutuko gauza, azpitikoa | a escondidas, con engaño, enchufe |
| ariapeko/ua/uak (<i>erreketan lur azpittik sortzen dan ura</i>) | ur-azaleratze | afloramiento de agua |
| arin bihar/ra/rak <i>(Don Pedro Zelaia beti arin biharrian ikusten genduan kalian),</i> | presa | prisa |
| prixia/ixia/k | | |
| aritxalari/xa/xak | seme-iriole | hijo pródigo |
| aritxan egiñ, juan | gurasoen etxetik alde egin | irse de la casa paterna |
| aritxan ibilli | seme-iriole ibili | andar de hijo pródigo |
| arkakuso/ua/uak, ardi/xa/xak | arkakuso, kukuso | pulga |
| armozu/a/ak | gosari | desayuno |
| arnasa baten eran | tragoan edan | beber de un trago |
| arnasia gastau | hil | morirse |
| arol/a/ak (<i>harrua, trinkua ez dana</i>) | porotsu, harro, mami gutxiko | poroso, poco denso |
| arpegi/xa/xak, mosu/a/ak | musu, aurpegi | rostro, cara |
| arra/ia/k, arra bete/ia/iak | arra, arra bete, zehe, zehe bete | palmo (medida) |
| arrada/ia/k, aurrerakada/ia/k | aurrerakada, tirakada | avance, estirón, arrancada |
| arrantza egiñ | arrantza egin | rebuznar, llorar a gritos |
| arrapataka ibilli | presaka ibili | andar de prisa |
| arrara/ia/k, zarrada/ia/k | zirrara, zarrada, emozio | emoción, estremecimiento |
